


ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

# senez

PELLO ZABALETArekin HIZKETAN  
FITen XII. KONGRESOA BELGRADON



3

zenbakia

6 urtea

1990



# **Senez**

## **Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria**

**10**

**VI urtea  
3 zenbakia**

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin

**E.I.Z.I.E**

**Azala: LAURA ESTEVE**

**ISBN: 84-7086-272-3**

**Legezko gordailua: S.S. 223/91**

**Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz**

# Senez

## Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

### **Erredakzio Batzordea:**

Zuzendaria:

Koldo Biguri

Hizkuntz arduraduna:

Koldo Biguri

Batzordekideak:

Jose I. Berasategi

Iñaki Ibañez

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo

Gaztelerazko laburpenak:

Koldo Biguri

Ingeleseko itzulpenak:

Brian Webster

### **Maketa eta konposizioa:**

Jesus M. Zabaleta

### **Helbidea:**

EIZIE

Etxague jenerala, 6

DONOSTIA

Telefonoa: 42 91 66

**E.I.Z.I.E**



## Aurkibidea

Ale honetan .....	7
-------------------	---

### Gaiak

Pello Zabaletarekin solasean. - <i>L. Auzmendi</i> , <i>K. Biguri eta J. Zabaleta</i> .....	13
FITen Munduko XII Kongresua. Belgrado 1990 <i>J. M. Zabaleta</i> .....	37
Euskara eta publizitatea. <i>Jesus Eguzkizaga</i> .....	51
Poesi itzulpena kultur testuinguruaren koordinadetan. <i>Sarka Grauová</i> .....	61
<i>Aliceren Abenturak Lurralde Miresgarrian</i> liburuaren itzulpenaz. <i>Manu López Gaseni</i> .....	69
Itzultzaile profesionalentzako azterketa profesionalak. <i>J. C. Sager</i> .....	79

### Puntuz puntu

Andoni Sarriegiren eskariari erantzunez. <i>Anjel Lobera</i> .	91
Katalanaren zinpeko interpretariak. <i>Josep Peñarroja Fa</i> .....	101
Procidako Literatur Itzultzaileen Etxea, Napoli (Italia). <i>Koldo Biguri</i> .....	105

### Iruzkinak

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea .	111
Bibliografia .....	121
– MATYSSEK, Heinz: <i>Handbuch der Notizentechnik für Dolmetscher</i>	
– KING, Margaret: <i>Machine Translation Today</i>	

- NEKEMAN, PAUL: *Translation, our future / La Traduction, notre avenir*
- BRIAN, T. Fitch: *Beckett and Babel*

## **Berri eta albiste**

«Literatura Unibertsala» deritzan itzulpen bildumaz. <i>Lurdes Auzmendi</i> .....	129
Duvoisin Kapitaina (1810-1891) «euskal itzultzaileen buruzagi eta errege. <i>Xabier Mendiguren</i> .....	133
EIZIEko Ohorezko Bazkideak.....	137



## **Ale honetan**

Aurreko ale bikoitzean itzulpenari buruzko elkarrizketak egiten hasi genuen bidetik jo dugu orain aurkezten dugun beste ale honetan ere; oraingoan, ordea, Pello Zabaleta, esperientzia eta eskarmentu handiko itzultzailearekin eginiko solasaldi mamitsu bat dakarkigu, joan den urtean Eusko Jaurlaritzak emandako Euskadi Itzulpen Saria jaso zuela aitzakiatzat harturik. Eta ez dira nolana hikoak, ez eta ere lotsa handikoak Pelloren egiak, gure irakurleak berehala ohartuko direnez. Sariaren ingurukoak aipatu ondoren, errebasu kementsu bat egin die gaur egun euskarazko itzulpengintza gehien erabiltzen duten hiru alorrei: administrazioari, komunikabideei eta literaturari, denak Pellok bere itzultzaile bizitzan jorratuak, hain zuzen ere. Eta ideia interesgarriak eta zer pentsa ugari eman beharko luketenak bota ditu hor: administrazioaren euskara (itzuli)aren lotsa eta narzisismoa, benetako komunikabide izan barik bere baitan agortzen dena, inolako ondorio pedagogikorik lortu gabe; komunikabideetako euskararen aje den erdararekiko morrontza eta imitazioa; euskal irakurlearen «bi begiak», irakurketaz borondatez gozatzera eraman ezik, penitentzia moduan irakurtzera eta idazle/itzultzailea non dagoen herren harra-

patu nahi izatera eramaten dutenak; berea itzulpenak normaltasunez irakurri ahal izateko belaunaldi galdua izatea –beharbada galdurik ez dagoen edo galduko ez den belaunaldirik ez dagoela erantsi beharko genuke guk, gure historiatxoan behintzat–, eta datozen belaunaldientzako ahalegina egin beharra; itzulpengintzak euskal munduan izandako eragin eskasa, beste herrialde askotan ez bezala; gaur egun egiten den itzulpengintza batez ere literarioaren kalitatea kontrolatzeko eta ziurtatzeko epaimahai kritikoren bat eta zuzentzaileak ere egon beharra, eta horretarako borondaterik eza...

Bigarren lekuan aipatu beharko dugu Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearentzat biziki garrantzitsua den gertakari bat: FIT edo Itzultzaileen Nazioarteko Federakundean kide gisa onartu eta Hedadura Txiki eta Ertaineko Hizkuntzetako Itzultzaileen Batzordearen lehendakaritza gureganatu izana joan den urteko abuztuan Belgradon egindako biltzar nagusian. Josu Zabaletak egin duen artikuluan irakur daiteke nolako pausuak eman diren horretara iristeko, Belgradoko biltzar eta kongresuaren kronikarekin batera. Artikuluan esaten denez, gertakari horrek EIZIE Elkarteak gure mugetatik kanpo inguratu duen onespen eta entzutea isladatzen digu, eta haren bitartez, bidenabar bezala, gure mugen barruan ere bestelako izatea hartzen hasi gara euskal kulturaren munduan eta euskal instituzioen aurrean. Proiektu oparo bezain ugari etor daitezke guzti horretatik, denetan lehena 1991eko uda garaian Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian antolatzen dituen udako ikastaroetan itzulpenari buruzko ikastaro berezi bat egitea, mundu osoko adituak etorri erazirik. Eta munduko beste itzultzaile elkarteekin harremanetan egoteak ere bide asko zabalduko ditu euskal itzulpengintza eta itzultzaileentzat. Bidea hasita dago, behintzat.

Honetaz gainera, euskarak publizitatean –zentzu zabalean hariturik– duen erabilerari buruzko azterketa bat aurkezten dugu, Jesus Eguzkizak egina, non azaltzen bait zaizkigu publizitatean erabiltzen den euskara gaizki ulertutako itzulpenaren galbahetik pasatzeak dakartzakeen ondorio okerrak. Publizitate horren alorra erakunde publikoen iragarkietara mugaturik badago ere, oso interesgarriak

dira artikulua honetan egileak eskeintzen dizkigun gogoetak, euskara eta publizitateari buruzko jardunaldi baten ondorio direnak.

Sarka Grauová-ren artikuluan literatur eta olerki itzulpenak hizkuntza txikietako literaturan duen eraginaz eta garrantziaz gogoeta sakona proposatzen da, euskal literaturarako apropos idatzia dirudiena.

J.C. Sager-en artikuluan itzultzaile elkarteei buruzko gogoeta bat proposatzen da, eta itzultzaileek eta elkarte horiek gizartean duten eginkizuna zein den ikusirik, elkarte horietan sartzeko azterketak egitea proposatzen da, azterketa horiek egiteko, hala ere, kolpetik ez baino poliki-poliki hasteko proposatuz.

Beste alde batetik, aldizkari honetan bertan, aurreko zenbakian, A. Sarriegik egindako proposamenari helduz, Anjel Loberak erantzuten dio.

Atal horiez gainera, aldizkari honek ohi dituen atalak ditu ale honek: gai laburrak, iruzkinak eta berriak.



**GAI AK**



## Pello Zabaletarekin solasean

Pello Zabaletak Eusko Jaurlaritzak emandako itzulpen saria jaso du iaz, Heinrich Böllen *Katarina Blumen ohore galdua* elaberria euskaratu zuelako. Hori dela eta, interesgarri iruditu zaigu haren itzultzaile lanari buruzko, eta orohar, itzulpenari buruzko solasaldi bat egitea, eta gure aldizkariko irakurleei eskaintzea.

\*\*\*

— *Kontatu Heinrich Böllen itzulpen horren historia piska bat: nondik etorri zen, nola gertatu den, eta nola iritsi den argitaratzera, eta nola izan den sariarena.*

Hara nola gertatu den historia: Böllen elaberriaren itzulpena anaiak eskatu zidan, Hordago argitaletxean ari zelarik lanean. Gipuzkoako Diputazioari, duela hamar urte edo, literatur lanak euskaratzeko aurkeztu zion programa bat. Horien artean, Heinrich Böllen *Katarina Blumen ohore galdua* eskaini zidaten, alemanez ere banekiela eta. Lehendabiziko itzulpen bat egin eta Diputaziora entregatu ere egin nuen, eta hark ordaindu ere egin zidan, erakunde ofizialetan ohi ez bezala, garaiz. Diputazioa bera zen, dirudienez, argitaratzeko asmotan zebilena, edo ez dakit zer. Baina gero, aldaketa politiko batzuk gertatu ziren, hori ere ohi bezala, eta nik entregatu nuen orijinala han zegoen, nire ustez, prest argitaratzeko. Baina, kasik galdu ere egin

zen, urteak igaro bait zituen Diputazioko mila kajoietako batetan —eta mila kajoï daudenean, zail izaten da gero asmatzen zein kajoitan geratu den—. Urteak pasatzen joan ziren, eta une bat iritsi zen, non zenbait itzultzailek galdetu genuen ea lan horiek non zeuden, zer egiten zuten, galduko ez ote ziren beldur bait ginen. Guk kobratua genuen gure lana, baina ez ziren argitara ematen lan horiek eta azkenean esan ziguten bakoitzak bere aldetik argitaratu beharko zituela, eta hala ekarri zidaten berriro Heinrich Böllen orijinal hori.

Bazeuden, ordea, akats batzuk nik egindako itzulpen horretan, eta errepasso on bat eman nion goitik beheraino, zenbait zalantzazko pasarteri buruz han eta hemen galdeginez. Ondoren, ELKAR argitaletxera eramán nuen, berak argitaratu bait dizkit lanik gehienak, eta iaz eman zuen argitara. Beraz, itzuli eta zortzi bat urtetara eman zen argitara. Eta ondoren, ELKAR-ek neri ezer esan gabe gobernuko sari horretara aurkeztu zuen, eta ustekabeán, ba, 800.000 pezetako saria jaso nuen, eta horrekin behintzat konforme. Behingoz esan dezaket, liburu bat ondo ordaindu didatela, ze, itzulpena herri santu honetan, santuen lana bait da, hau da, lan asko egin eta gutxi kobratu.

— *Itzulpena euskarara gehienetan hizkuntza latinoetatik egiten da; alemanieratik eginda, aldeá ikusten al da? Bestetik, zein hizkuntzatatik duzu nahiago itzultzea, frantsesetik, italianotik, gaztelaniatik...?*

Hizkuntzak, nik bost hitzegiten ditut, eta beste pare bat hiru bat irakurtzen ditut, inondiko zailtasun handiegirik gabe. Zailtasunak edo erraztasunak? Nik egin dudán lehen itzulpena, bizitzán, latinetik egin nuen —euskarara, noski, lehenago gaztelera ikasi bait nuen—. Nik gazteleratik asko itzuli dut, frantsesetik ere dexente; italianotik ere hiruzpalau obra itzuli ditut. Baina gehienbat alemanetik itzuli dut: haur literatura eta baita helduen literatura ere, eta orain ere esku arteán alemanetik dauzkat gehienbat itzultzekoak.

Beno, ezer baino lehen, gauza bat esan behar dut: alemana dakien jende gutxi dago. Inglesa, gaztelera edo frantsesa dakienaren pareán, are gutxiago gara alemana dakigunok. Alde horretatik badu



abantailarik. Baina gero gainera, beste gauza bat gertatzen da, bromatan esan ohi dena, baina arrazoizkoa ere badena: esan ohi da, frantsesarena pentsamendu garbia, klaroa dela; alemananera, berriz, iluna. Horri norbaitek erantzun zion frantsesa argia dela zailtasunak baztertu egiten dituelako eta alemanak ez. Eta hori igerri egiten zaio hizkuntzan bertan ere: alemanak hitzak sortzeko posibilitate handia dauka —eta Heideggerek esango zuen, grekoaren ondoren alemana dela filosofia egiteko gauza den hizkuntza bakarra... ez zuen euskara ezagutzen, gizonak, ezta euskal filosofoak ere, baldin ezagutzeko inor bazegoen...—.

Adibiderik xinpleena jarriko dut, *Katarina Blumen ohore galdua* elaberriaz zerikusia duena: gazteleraz ez dago aldizkari seriorik kazetaritza mailan, eta egunkariak ere hainbestean dabilta, alemanekin gonbaratuz, diot. Alemaniako jendeak, beharbada giroagatik edo ohituragatik izango da, edo eguraldiagatik, nik ez dakit zergatik den, baina astia hartzen du irakurtzeko, eta orduan pentsamendua tajutzeko orduan ere astia hartzen du, eta kazetaritza bera, hizkuntza bera ere, hemengoaren aldean, guztiz bestelakoa da, alde batera utzita, noski, eskandalozko kazetaritza: hori alde guztietan berdintsua izaten da. Hor esaldi apokaliptikoak hartzen du goia, behea eta erdia, ez da? Baina, bestelako kazetaritza normalean, han askoz ere ñabardura gehiago, informazio gehiago eta trinkoagoa ematen dizute.

Orduan, horrek esan nahi du, bestelako burubide bat dela, beste mundu bat dela. Orduan hori dena hona ekartzeko zailtasunak, ba, handiak izan ohi dira eta era guztietakoak: batetik, zure burua pentsamolde hartara ohitu behar duzulako, pentsatzen jarri behar duzulako. Adibide gisa jarriko nuke alemanez pentsatzen dagoen edo pentsatzera ohitua dagoen idazle bat: Jose Azurmendi. Konparatu Jose Azurmendiren artikuluak Alemaniara joan aurretik eta Alemanian bizi ondoren: estilo eta guzti aldatzen da; eta pentsakera, dudarik gabe, aldatzen da. Beraz, horrek zerbait esan nahi du pentsakera horren alde edo haren kontra, ez dakit: bakoitzak ikusiko du gustoko duen ala ez.

Haur literaturan, adibidez, ez dago itzultzeko hainbeste zailtasunik; baina, edozein modutan, beste mundu bat da, beste zibilizazio bat, beste ohitura batzuk dituzte, beste gauza batzuekin dibertitzen dira, etabar, etabar. Orduan, itzultzaileak bi aukera ditu: edo hori hona egokitu, edota hemengo irakurlea hartara ohitu, Alemaniako bizitzara ohitu. Nik, adibidez, nahiago dut hemengoa hartara ohitu dadin, ez eta nik liburu berri bat egin haren aitzakian, edo itzulpen egokitu bat egin. Gainera itzultzailea, nire ustez, lekuko bat da, beste ezer baino gehiago.

Nere gustoko zer itzuli? Nik ez dut begiratzen zein hizkuntzatatik itzuli behar dudan, gehiago begiratzen diot nire interesari edo eskakizunari: hau da: kanpotik etortzen zaizun eskabideari. Eta klaro, diruari, hor ez dago dudarik. Baina esan nahi dut nik gustora itzuliko nituzkeela italianotik zenbait liburu, adibidez: *L'avventura d'un povero cristiano*, Inazio Sillonerena. Oso liburu sinplea da, xumea, erdaraz ez dut nik ezagutzen, besterik itzulita badago ere. Gustora itzuliko nuke. Frantsesetik ere itzuliko nituzke beste batzuk, eta gustora literatura erdi klasikotik, etabar. Eta alemanetik ere bai. Batez ere orain arte Ekialdeko Alemania izan denetik; poesia, adibidez, oso interesgarria da, eta oso gutxi ezagutzen da.

Guzti hori, ordea, nori interesatzen zaio? Hor dago kokka. Nik sarri esan dut euskal itzultzailea nahiko umila dela, edo kontzientzia txarra daukan tipo bat dela. Baldin programa bat begien aurrean jartzen badiote, esan ohi dio bere buru umilari: «Beno, egin egin beharko da»... eta egin egiten du; eta sarri, bere gustoa alde batera utzita, ustez beharrezko omen dena eginez. Guzti horiek sartzen dira hor. Nere gustoagatik, nondik itzuli? Ba, edozein hizkuntzatatik; baina gustora, alemanarekin sentitzen naiz, hori egia da.

— *Alemanieratik autore desberdinen itzulpenak eginik, ba Böll, Pieter Bichsel, Hermann Hesse... Böllen liburua aitzakia dugunez, ze estilo ezaugarri ditu Böllen prosak, edo Hesserena edo beste batzurenak? Eta nola antzematen dira ezaugarri horiek itzultzaile berberak euskarara itzulirik? Alegia, itzultzaile berberak bateratu egiten ditu testu desberdinak? Nola jokutzen du prosa estilo desberdinen aurrean?*

Begira: dantzariak bezala izan beharko luke itzultzaileak. Eztei batetan musika taldeak joko dizu baltsa eta hurrengoan rocka, etabar, eta orduan, han jotzen denaren arabera dantzan egin beharko litzateke. Batzuk hobeto egingo dute dantzan, besteak okerrago.

Honekin esan nahi dut itzultzaileak bere lana oso seriotan hartzen badu, zeregin nagusiena jatorrizko estiloa imitatzea duela, ez kopiatzea —kopiatzea oso zaila da—, jatorrizko estiloari eustea. Adibide bat, alemanetik irten gabe: E.T.A. Hoffmannen ipuinetan esaldiak oso luzeak dira, borobilduak, erromantizismoan ohizko diren esaldi oso luzeak, etabar. Jakina: holako liburuak euskaratu nahi dituenak gutxienez irakurri behar du, ba, Agirre Asteasukoa edo Tartas... nolabait lehenagoko estilo horretara jartzeko. Gero saiatuko da hari imitatzen, hura jarraitzen, etabar. Gero, adibidez, Heinrich Böllen bi liburu daude euskaratuak: *Pailazo baten aburuak*, eta nik euskaratu nuen *Katarina Blumen ohore galdua*. Bi pertsona diferentek euskaratu ditugu liburu horiek eta guztiz diferenteak dira euskaraz, alemanez hain diferenteak ez izan arren. Nork duen arrazoi, beste kontu bat da, ze Heinrich Böllen estiloa oso direktoa da, Alemaniako kazetaritza hurbil dagoena; beharbada, erreflexiboa ere bada: badu halako sententzialismo moduko bat. Baina historiak kontatu egiten ditu. Buruan daukat beste liburu bat, *Fürsorgliche Belagerung* ('Asedio preventivo'), euskaratu gabea. Alemanez hori ikusi eta kontakizun kasik periodistikoa da berriro estiloz; estilo oso modernoa da. Orduan, hori jasotzea oso zaila da alde batetik, baina ez bestetik: esaldiak izan ere, ez dira hain luzeak. Edozein modutan, bere arazoak ditu, bai.

Holako gauzak badira, eta nola aldatzen den, hori zen galdera nagusia, nik idazle beraren bi liburu itzultzen baditut. Beno, bi egile desberdinena oso erraza da nola aldatzen den ikustea. Nik hortaz, esperientzia, helduen literaturan bi obra inportante itzuli ditut: Hermann Hesse eta Heinrich Böll.

Hermann Hesserekin gertatua: ni itzultzen hasi nintzenean, lehendik irakurria neukan *Estepako otsoa* famatua, eta lehen aldiz irakurri nuenean, uste nuen irakurri eta ulertu ere egin nuela. Gero hasi nintzen itzultzen, eta gaur galdetuko balidate Hermann Hesserren

liburu horrek zer esan nahi duen, ba, esango nuke ez dakidala, ze Hermann Hessren liburu horren estruktura guztiz filosofikoa da eta, orduan, ba, estilo filosofikoa hartu behar duzu; baina heltzen da momentu bat, Hermann Hesse bera nahastu egiten dela, eta orduan oso zaila da, berak mantentzen ez duen estilo bat mantentzea. Orain, nola jasotzen diren estiloak? Ba, ahal den bezala: lehen esan dut, imitatuz, jatorrizkoaren moldaketa jarraituz. Nire ustez, hori da bidea. Eta horrela, itzulpenean ere igerriko dira jatorrizko estilo desberdinak, are idazle bakoitzaren estiloa.

—*Beste hizkuntzatan oso normala da itzultzaile bat nolabait autore baten espezialista bihurtzea: Euskal Herrian, ordea, ez dago horrelakorik. Horren aldekoa zara, aurkakoa, ze autore kasu horretan?*

Ba, begira: nik gustora itzuliko nuke, jo dezagun, Zola. Zergatik? Ba, ez niokeelako ezer galdetuko, gizona hilda dagoelako. Honekin esan nahi dut, beste hizkuntzen zabalkundea ez dagoela gurearekin konparatzerik. Guk ez daukagu, beharbada, ez beharrik ez posibilitaterik ere, gaur gaurkoz, idazle baten obra guztiak euskaratzeko. Eta orduan, deskuidoan, ez daukagu horrenbestearainoko beharrik itzultzailea idazle batengan espezializatzeko. Hori nik unibertsiteateko irakasleei utziko nieke, ez itzultzaileari, ze gure premiak beharbada larriagoak dira, beste era batekoak dira, eta beste merkatu bat daukagu, beste zabalkunde bat. Horregatik, agian, nahiko eta gehiegi dugu, baldin idazle inportante bakoitzaren obraren bat euskaratzen badugu, haren obra guztia guregana ekartzen ibili gabe. Gaur gaurkoz, diot. Bihar biharkoz, biharkoek erabakiko dute. Halere, biderik egingo balitz eta idazleekin beraiekin hitz egiteko modurik balego, gustora egingo nuke nik, gustora edozeinekin gainera.

—*Horren inguruan, beste galdera bat egin liteke: euskal itzultzaileak, gaztelera ere badakitelarik, zergatik ez dira gaztelaniara ere itzultzaile, eta horrela autore batekin espezializatu?*

Egia osoa esan behar bada, itzultzaile dexente dago euskara «nola hala» eta gaztelera «hala nola» dakienean. Gainera, gaztelera arazoak

Gaztelan konpondu beharko lituzkete. Eta, oraindik gehiago: euskaraz oso ondo moldatzen den bat, ez da hain ondo moldatuko, beharbada gazteleraz. Eta bukatzeko: euskal literaturak eta euskal itzulpenak gaur bizi duen egoerak ez dut uste autore batengan espezialista izango den jende beharrik duenik. Bizitzeko ateratzeko, baldin bada... orduan, ahalik eta hizkuntzarik gehienetara itzultzeko gauza den itzultzaileak, bizitza ateratzeko modua luke. Baina, nik ezagutzen dudala, itzultzaileak beste zenbait hizkuntzatatik, norberaren jatorrizkora itzultzen saiatzen dira, salbuespenak salbuespen.

— *Zuk esperiantziarik baduzu idazle bezala, kazetari bezala, administrazioko eta komunikabideetako itzulpengintzan, bai eta literatur itzulpengintzan ere: zer diferentzia somatu duzu esperientzia horien artean? Eta bestetik, alor guzti horietako euskarazko hizkuntz eredua finkatu gabe egonda, itzultzaileak asmatu egin behar du. Hori baloratzen da?*

Hasi gaitezen azken puntutik. Itzultzailearen lana, gure herri honetan, ez da baloratzen. Itzultzailea, badirudi, askorentzat azken pijoa dela, sorkuntza lanik batere ez duela egiten. Gainera, eskuak potortzen ez zaizkionez gero, mekanografo baten pareko erizten dute. Ikus, bestela, administraritzan lanegiten duten itzultzaileen kasua... eta batez ere, administraritzako sailkapenean duten maila, eta soldata. Beraz: itzultzailearen lana, askoren ustetan, alferren, ezgauzen lana da. Alferrik esan zuen Milan Kunderak Europaren batasuna itzultzaileek egin dutela, haiei esker sortu bait da European kultura amankomun bat... Ez dira enteratu, hara, gure administraritzazuzentzen dutenak.

Zeure galderan bertan dator itzultzailearen lana: «itzultzaileak asmatu egin behar du». Hizkuntzaren alor guztietan. Eta hori bilaka daiteke aurki euskararen beraren legami, baldin asmatzeko orduan euskararen jatorrizko indarrari eusten bazaio. Bestela, berriz, kutsaduraren ate bihur daiteke, zenbait kasutan ikus daitekeen bezala.

Administrazioa aipatzen duzu. Egia esan, administraritzako itzulpenak gehienetan ez du bost xentimo balio, printzipioz ez duelako

inork irakurtzen, eta oso sektoriala delako. Nik irakurri dudan itzulpenik politena karlistek egindako proklama bat izan da. Badira bost edo gehiago urte dei hori egunkarietan argitara eman zutela. Ez dut hura bezain adierazpen garbirik irakurri: lotsarik gabeko euskara zen, eta hori oso inportantea da.

Beste puntu bat ere kontutan hartu behar da administraritzaren alorrean: nere ustez, jende aurrera zuzenean doanari eman behar dio lehenasuna administraritzak, eta orduan hizkuntzak argia eta pedagogikoa izan behar du, lotsarik ez du izan behar euskara horrek, herriko jende xeheak erabiltzen duen hizkerari beldurrik gabea.

Euskarak ez du tradiziorik administraritzan; beraz tradizio hori egiten joan behar da, eta orduan horrek dakar pedagogia. Eta horrek beste puntu bat eskatzen du, oso inportantea: fitxategi on bat eta datu zentru on bat, alde guztietan beti gauzak berdin esan daitezen, ahal denean behintzat, lokalismoak eta zainduz. Adibide bat jarriko dizuet administraritzako euskara honi dagokionez: «Agua potable». Beno, itzulpen bat baino gehiago ikusiak dauzkatz: «Ur edangarria», «edan lasai» (oso ona, baina tabernan esateko, administraritzan beharbada ez). Baina badago beste itzulpen bide bat: «edateko ura», eta gero erantsi dakioke «ona» edo «txarra». Beraz, nere ustez, euskarak izan behar du garbia eta lotsarik gabea, itzulpena potable xamarra izango bada, esan nahi dut, norbaitek irakurriko badu.

Gero hemen kontutan hartu behar da euskaldunok daukagun narzismoa, hau da: guk euskara maite egin behar omen dugu, eta ni ez naiz euskara maitatzearen aldekoa, euskaraz maitatzearen aldekoa baizik. Askok ulertzen du euskara garbia, lexikoaren aldetik garbia, eh? Beno, eta orduan problema da narzismo horrek nolabait behartzen duela administraritzako jendea halako hitz ez dakit zein erabiltzera. Adibidez, gaur apenas inork erabiltzen duen euskaraz «denuntzia sartu», garai batetan denek erabiltzen zutena. Administraritzako euskararen ez duzue sekula aurkituko. Zergatik? Ba, «denuntzia» ordez «salaketa» jarriko dute (salaketak bazuen euskaraz bestelako zentzu erdi peioratibo bat). Askozaz ere konnotazio gutxiago zeukan «denuntzia» horrek «salaketak» baino. Ba, ez: administraritzak

salaketa hartuko du, garbiagoa omen delako. «Akusazioa» hortxe dago: akusazioa nola esan behar da, berriro salaketa? Nere ustez, administraritzako euskarak lotsarik gabea izan behar du, beldurrik gabea.

Pasadizo txiki bat kontatuko dizuet. Diputazioan itzultzaile nintzela, Diputazioaren aurrekaldea garbitzen ari ziren, eta kartel bat jarri zuten gazteleraz: «Limpieza de fachada, perdonen las molestias». Eta neri ekarri zidaten euskaratzeko. Jarri nuen: «Aurrekaldea garbitzen ari gara, barka enbarazoa». Eta etorri zitzaidan bat segituan, euskaldun ustez peto-pettoa: «Baina nola jarriko dugu ba 'BARKA ENBARAZOA'? Pentsatuko dute diputatu guztiak hemen larrua jotzen ari garela». Eta erantzun nion: «Aizu, horrek esan nahi du gazteleraz pentsatzen duzula, ze 'enbarazoa' euskaldun peto batentzat da traba. Ezin jarriko dugu «asketsi ez dakit zer». Klaro, hark hizkuntzaren lotsa zeukan, hain zuzen ere narzismo horrengatik. Esan nahi dut, lotsa hori, eta beldur hori eta narzismo hori galdu egin beharko lirateke administraritzan hizkuntza bera ulertzeko modukoa izan dadin, ze baserritar bati zenbait liburutan esplikatzen diote behiak nola jeitzi behar diren, eta berak azkeneak ez daki behiak erroak dituen ere, erraperik duen behiak, enteratu gabe gelditzen da. Esan nahi dut: ez du ulertuko gauzarik arruntena, zergatik? Ba, purismo eta narzismo horrengatik.

Gero, komunikabideak aipatzen dituzu. Komunikabide mota asko dago, denak zaku berean sartzeko: irakurtzekoak, entzutekoak edo esatekoak, etabar... Edozein modutan, komunikabideetan ere gauza beretsua: ez dago fitxategirik, ez dago datu zentrurik, ez dago estilo libururik (ari omen dira bat egiten). Batzuentzat estilo liburua da bakarrik, ba, «terrorista» ez dela esan behar, esan behar dela «gure mutilak»... Estiloa ez da hori bakarrik: esaldiak nola tajutu, lehenasunak nola jarri, sintasiak ze bide ematen dizkizun, etabar.

Kazetaritzako hizkuntzan ere ikusten ditut erdararen imitazio handiak: sustantibaziorako joera aditzean adibidez, perpausak ez bukatzea, eta guzti hori, hain zuzen da erdararen eragina. Areago, albisterik gehienak gazteleraz sortzen bait dira, haren jarraipen

zehatzegia egiten da, esamoldeak ere hari kopiatuz. Kazetaritzak, gainera, bizitzako alor guztiak hartzen ditu, eta orduan bizitzako alor guztietako datuak jaso behar dira. Baina komunikabidearen lehen eginkizuna komunikatzea da, berria esatea. Orduan horri eman behar zaio garrantzia, eta horri ematen ez bazaio, edo hori nahiko aldrebes egiten bada, ba... esan nahi dut, albiste bat, adibidez, esaldi bakar batean eman daiteke: «*200 kilo hatxis zeramatzan bikote ezkongabe eta haur bat zuena, haurraren zapietan bere droga ezkutatzen zuena, atxilotu dute, 1.000 kilometroko karrera baten ondoren, bi polizia mainguk*». Eman liteke esaldi oso batean, baina orduan galdu egiten zara guztiz, ezta? Orduan, hor ere bilatu behar da eredu bat nahiko garbia, enuntziazioa garbi emango duena, labur emango duena eta datu asko galduko dituen, ze gero etorriko bait da datuen esplikazioa, datu horiek zehaztuz. Oraindik, batez ere hitzegin behar den komunikabideetan, arazo larri bat dago konpontzeko: zein da euskara hitzeginaren eredu? Edo hobeto esan: zein da jendaurrean irakurtzeko euskara eredu? Gogora, adibidez, jendaurrean irakurriak zitezen idatzi zituela Agirre Asteasuokoak bere lanak. Sermolari batek, jendaurrean hitzegiten duela... eta bertso aurkezle batek jendaurrean hitzegiten duela...

Alor pribatua, guztiz bestelako alor bat da. Horretan, idazlea eta itzultzailea berdin jarriko nituzke. Gauzak aldatzen doaz eta galtzen doaz gauza eta ohitura asko. Gogoan daukat nola behin batek kontatzen zidan *Garoa* irakurtzen ari zela, lehen esaldietako batean aurkitu zuela «azpantarrak». Nork daki gaur hori zer den? Nik bai, baserrian jaioa naizelako. Deskuidoan, mendizale batek ere jakin lezake, baina noski, nik XIX mendeko literatura euskaratu behar baldin badut, jakin egin behar dut. Ezin hasiko naiz esanez «*izara batekin azpantarrak egin zituen*», edota esanez «*egin zituen oihalezko tira luzeak, zeintzuk lotzen diren bernean goitik behera edo behetik gora bernea babesteko*» etabar. «Azpantarrak» jarri eta irakurleak ulertuko beharko luke zertzu diren, edo hiztegian begiratu beharko luke. Baina nik holako hamar hitz segidan jartzen baditut, denak ulergaitzak, jai daukat. Horaziok aspaldi esan zuen, hitz zaharrak ere sartu behar direla, baina leku jakinetan, testuinguruak haiek argitzeko moduan.



Horrek, halere, beste auzi bat dakar berarekin, hau da: hiztegia galdu egiten ari gara edo galtzen dugu mila arrazoirengatik. Hau da, kultura bat uzten ari garela, eta kultura hori galtzen ari garela, kultura baten historia galtzen ari garelako. Euskaraz, tradizio hori jasotzen eta gure testu liburuetan ematen ez dugu asmatu. Hau dena, atzera begira. Aurrera begira, ordea, premia berriak datoz: txip bat edo kilobit bat datozkigu, eta horiekin zer egin... Beste adibide txoro bat jarriko dut: Euskalerrian oraintsu arte jendea «markak hausten» saiatu izan da, orain aldiz «errekorrak jartzen» ari da, edo «batitzen». Klaro, hori alferkeria pixkat ere bada. Baina biak, lehena eta gaurko eguna, kontutan hartu behar dira, eta idazle batek jakin behar du non, noiz, nola sartu.

—*Hiru galderako andanatzko bat, pixkat itzulpenak duen eraginari buruz. Batetik, itzulpena jatorrizko testutik egin behar omen da: zenbateraino da hala? Bestetik, zergatik perzibitzen den euskal itzulpena, itzulpena on zein txar, arrotzasunez, eta zergatik ez den gauza bera gertatzen gaztelaniazkoarekin, itzulpena txarra izanda ere? Bestela esanda, zer gertatzen zaio itzulpen irakurleari bi hizkuntza horien aurrean? Eta gero, hirugarrena: jakinik literatur berpizkunde baten oinarrian itzulpen ahalegin handi bat badagoela, zenbaterainoko eragina izan du orain arteko itzulpenak euskal literaturan, azken bolada honetan batez ere, eta itzulpenak zein ikuspegitatik izan du eragina? Eta gero, zeure esperientziagatik, nolako eragina izan du zeure prosan edo zeure poesian zeure itzulpengintzak, alegia, aldi berean autore eta itultzaille izateak?*

Lehenegoari buruz, zera esango nuke: nik bost edo sei hizkuntza dakizkit, eta horietaz aparte beste hogei hizkuntzatako gauzak irakurri ditut. Orduan, azken batean informazio hori ekartzen dizuna itultzaillea da. Beraz, jatorrizkoaren hori aitzakia izan liteke euskara baino hobeto gaztelera dakienarentzat. Baina, zer egin behar du halakoak, txinoaren aurrean? Bat jatorrizko testuetara mugatzen bada, ba, gizarajoa bera: mugatuko da oso lurralde txiki batera. Hori alde batetik. Bestetik, irakaskuntza guztia itzulpenean oinarritua dago: hori jakin egin behar da. Nik, adibidez, filosofia ikasten badut,

Alemaniakoa, Errusiakoa edo Txinakoa edo Greziakoa edo Mesopotamiakoa, guzti horien berri ingelesez edo euskaraz emango didate, filosofia euskaraz egiten badut, baina irakasleak itzulita era batera edo bestera.

Bigarren kontua da Ortega y Gasseten teoria: itzulpenak beti itsusia izan behar du, eta itzulpenik onena da itsusia. Jakina, nik testu bat bere sakontasun osoan ulertu nahi badut, haren konnotazio guztiak jaso nahi baditut, lehenik irakurleari eman beharko dizkiot hitz bakoitzaren konnotazio guztiak hiztegi moduko batean. Dударик ez dago itzultzaileak hainbat hitzen artean, hautaketa egin behar duela. Baina hautaketa hori egiten du batean galduz eta bestean irabaziz, eta kultura normal batez ari naiz, eh? Ezin hasiko naiz esanez, adibidez, nola itzuliko nieke nik eskimalei «etxea», Ebanjelioan esaten den bezala: «harrizko oinarrien gainean eraiki behar da etxea, haizeak eraman ez dezan», eskimalek harria etxea egiteko erabiltzen ez badute?

Kasu bat aipatzearren: Bashevis Singer, Nobel saritua, nik gustoko dut oso tipoa. Jidixez idazten du, gaur apenas hitzegiten den hizkuntza batean. Baina, berak idatzi ahala, ingelezera itzultzen diote eta guk dauzkagun itzulpen guztiak ingelesetik eginak dira. Horrek esan nahi al du Bashevis Singer ez dudala nik ezagutzen? Lupa batekin joango banintz, deskuidoan akats pila bat aurkituko nizkioke itzulpen horiei, baina ez neukan beste biderik. Beraz, alde horretatik, jatorrizko hizkuntzaren hori, nolabait, ahal bada bai; ezin bada, ezin da.

—*Hor euskara nola tartekatuko zenuke?*

Esate baterako, orain *Obabakoak* eta hainbat ari dira euskaratik gazteleratzen, eta gero gazteleratik beste hizkuntzara egingo dituzte, beste erremediorik ez dagoelako. Adibidez, begira gaztelera zein hizkuntza indartsua den. Ba, Dostoiewski guztia frantsesetik dago itzulia; orain ari dira errusieratik zuzenean itzultzen, baina orain arteko itzulpen guztiak frantsesetik eginak dira, eta haiek irakurri nituen nik. Horrek esan nahi al du, nik ez dudala ezagutzen Dostoiewski? Eta orain, buelta emanez: euskaratik erderara egiten

dena ez da euskarazkoaren pareko euskaldunontzat. Klaro, norbait interesatuko balitz Unamuno Kierkergaardekin interesatu zen bezala, ba norbait hori saiatuko da euskara ikasten, Unamuno daniera ikasten saiatu zen bezala, jatorrizko testua irakurtzeko. Gainerakoak, pertsona normalak gara gutxi gorabehera, eta orduan gutxi gorabeherako itzulpen horiekin konformatu behar dugu jakinaren gainean, batez ere itzultzaileok dakigulako akats eta bestelakoak badaudela, baina komunikazioa ez da bakarrik zuzenean entzuten dena, baizik eta mezulariaren bidez jakiten dena.

*—Baina hor badago beste gai bat nik galderan planteatu dudana: hain zuzen ere, zergatik kanpoko autore baten aurrean euskal irakurleak sentitzen duen euskal itzulpena arrotz eta gaztelaniazkoa natural.*

Beno, hor arazo bat ere badago. Hau da, sarri euskarazko itzulpena irakurtzen duena kritikoagoa da. Batetik, nik itzulpen bat irakurtzen baldin badut, ba, bi begirekin irakurtzen dut: begi bat normala, enteratzeko, eta bigarren begia daukat, ba, «koño, honek ere hau bota dik ba, berriro joan zaiok ba hori» esateko. Hau da, hizkuntzari berari eta mezuari begiratzen diegu. Erdaraz ez daukagu horrenbesterainoko problemarik. Ez gara hain kritiko, ohitura handia ere badugulako. Euskaraz, beste bigarren begi hori daukagu: ondo esana dago, gaizki esana dago. Izan ere, gu bezalako jendearentzat, syntaxiari edo euskararen txukuntasunari, ez dut esango edertasunari, txukuntasunari begiratzen diogun jendea baldin bagara, holako gauzek begietan kolpea ematen digute, harrikada bat bezala da guretzat, eta orduan ia liburuak eskutik erori egiten zaizkigu, eta erabakitzen dugu: «nahiago dut erderazkoa irakurri».

Eta gero badago bigarren puntu bat, nahiko kontutan hartu beharrekoa: deskuidoan itzultzen diren liburu asko eta asko dagoeneko irakurriak ditugula beste hizkuntzaren batean, eta orduan bigarren buelta egitea ez ote den guretzat penitentzi moduko bat, boluntarismo esaten zitzaion lehen, garai batean: egin egin behar da eta egin egiten duzu, eta izugarrizko pazientziarekin hartzen duzu, eta orduan ez zara ari irakurtzen gozamenerako, bigarren begiaz ari zara irakurtzen, boluntarismo horretan. Horrek asko eragozten du.

Beste kontu bat, guztiz bestelakoa gainera, izango da liburu horiek lehendabizikoz euskaraz topatuko dituztenentzat, eta horrek izugarrizko erantzukizuna sortzen dio itultzaileari, hori bai. Eta hortan, nik aipatuko nuke zuzentzaileen problema ezinbestekoa dela, derri-gorrezkoa dela: orain ikastoletatik gora datozen hauek, edo institutuetan dabilten hauek, atzerriko literatura euskaraz irakurtzeko posibilitatea izango dute, eta deskuidoan irakurriko dute itzulpen txar batean, eta horretarako eskubiderik ez dago. Hor bai egin behar dela edo dugula ahalegina, galdutako belaunaldiok, hau da, formazio guztia gaztelaraz, edo frantsesez edo beste hizkuntzaren batetan jaso dugu guk, formazio guztia eta informazio guztia, eta beraz euskararako, euskaraz informazioa jasotzeko kasik galduta gaude gu. Artea, poesia eta holako gauzak, ipuinak eta sorkuntzazkoak gehiago, gustorago bezala hartzen ditugu, baina ez itzulpenak. Eta ahalegin guztiak egin behar ditugu hurrengoei obra horiek ondo ematen: hori nere ustez, inportantea da, nik behintzat hala ikusiko nuke. Eta hirugarren galdera?

*—Jakinik literatur berpizkunde baten oinarrian itzulpen ahalegin handi bat dagoela, zenbaterainoko eragina izan duen orain arteko itzulpenak euskal literaturan, zein ikuspegitatik izan duen eragina, eta, gero, esperientzia pertsonal bezala, itultzaile izateak zenbaterainoko eragina izan duen zeure prosan eta literaturgintzan, zeren bidez.*

Beno, hasiko naiz azkenetik. Neretzat itzulpenak garrantzia handia izan du espontaneitateetik ihes egiteko. Bueno, esan nahi da: jatorrizko testu bat datorren bezala egiten duzu, eta euskaraz ere igual egiten duzu eta zailtasunak saihestu egiten dituzu, ihes egiten duzu, eta itzulpenak orrialde bakoitzeko berrehun bider sartzen zaitu zailtasunetan, eta horiei aurre egin behar zaie. Orduan itzulpenak neri, itultzaile izateak eta lanegiteak ez bakarrik eman dit hiztegiaren aldetik aberastasun bat, sintaxiaren aldetik, euskararen beraren posibilitateen aldetik edo euskara hautsi beharraren posibilitateen aldetik, bide eman dit ba pentsatzeko euskal gramatikak dituen salbuespenak, salbuespen direla erabiltzen direlako, eta beraz, erabiltzen badira, hain zuzen garrantzizko direla. Neretzat guzti hori oso positiboa da.

Orain, itzulpenak euskaran eta euskarazko sormenean zenbateko eragina izan duen, nik ez dut ikusi eta uste dut izango duela nolabait itzulpenen altxorra normalduko denean, eta hor formatzen eta formatzen ari den jende hori, nolabait eta seguruenera, euskarazko testuak irakurtzen eta irakurriz heziko denean. Orduan posibilitate gehiago izango ditu. Egia da itzulpena legamia bezala izan dela sorkuntza batean, gazteleraren historia ikusi besterik ez dago hortaz jabetzeko. Nik euskarazkoari ez diot ikusten oraingoz. Adibidez, Eneida euskaratua dago, baina zenbatek irakurri du? Utzi dezagun itzulpen hori ona den, txarra den. *Odisea* ere euskaratua dago, eta beste mila gauza. Zenbatek irakurri du hori?; are, zenbatek daki itzulita dagoenik ere? Zenbatek kritikatu du itzulpen hori? Nik horren eragina ez dut ikusi. Esango nuke euskaran itzulpen batek izan duela eragina, hizkuntza guztietan bezala: Bibliak. Kenpisak aparte. Kenpisaren 32 itzulpen bada guxtienez. Eta Astete; horren erreakzio bezala etorri zen Manuel Lekuonak eta egin zuten Kristau Ikasbidea. Baina horrek beste esplikazio bat badauka. Dotrina, adibidez, nere ustez, guztiz euskara puristan egin liteke. Zergatik? Dotrina ez bakarrik buruz ikasten delako, baizik eta maisu batekin ikasten delako, eta hark argibide onak ematen baldin baditu, ba, bale: edozer gauza ikasi liteke. Orduan, aipatzen diozu haur bati Jesukristoren batasun «hipostatikoa». Zer da hori? Hitz greko bat da, eta hau eta bestea esan nahi du. Klaro, esplikatzen duzu hitza eta edukia eta ulertu egingo dizu, «perimetroa» ulertzen duen bezala. Esan nahi dut, halako mila kontzeptu esplikatu egin daitezkeela. Baina, bestela nik ez dut eraginik somatu. Edota beste zerbait gerta liteke, lehen ere aipatu dudana: itzultzen diren libururik gehientsuenak guk jatorrizko edo gaztelerazko edo frantzesezko itzulpenen bidez irakurriak ditugu, eta orduan, esaten nuen bi begi ditugula liburuak irakurtzeko, bata enteratzeko eta bigarrena daukagu guk, ba, «hau gaizki dago, haun ondo dago» esateko. Eta adibidez, nik Hölderlin alemanez irakurria badaukat, zertarako irakurri behar dut berriro euskaraz, ez bada kuriositatez?

Galdera bat egingo nizueke nik: «*ser o no ser, ésta es la cuestión*». Esan nahi dut, testu hori guztiok erderaz jaso dugu; gero

kultismo piska batekin jaso dugu «*To be or not to be*». Bueno, hori guretzako ez da ezer, baina «*Ser o no ser*» bada zerbait. Nik horregatik esaten nuen lehenago, ondoren datorren jendeak memoria egingo duela, eta «*Ser o ser*» ez dutela esango, baizik eta «*Izan ala ez izán*», edo ez dakit zein itzulpen emango dioten. Hori jasoko dute beren ikasketak normaltasunez egiten badituzte. Hori bat. Gu horregatik, nere ustetarako, itzulpena irakurtzeko belaunaldi galdua gara, guk geure erreferentzi mundua literaturan gazteleraz egin dugu gehiena. Eta orduan, neretzat garrantzi izugarria du egingo diren itzulpen horiek izan daitezen oso ondo tratatuak, zehaztasunez tratatuak, zuzentzaileak behar ditugula edo irakurle mahai bat behar dugula, esango dizuna: «hau ez dago ondo; nik ez dizut esango nola esan, baina hau ez dago ondo, eta hau landu egin behar da, hau argitaratzeko eskubiderik ez dago, hau nik ez dut irakurriko». Hortik zerbait gehiago atera behar da, begiratu batez ere gerokoen, gure ondorengoen memoria hori benetan ona izan dadin, ze, bueno, nik ez dut adibiderik jarriko, baina badaude itzulpen batzuk guztiz kriminalak eta literatur itzulpen bezala ematen direnak. Ez euskara dira eta, beraz, ez literatura dira. Jatorrizkoak literatura dira, baina euskaraz ez dira literatura. Hau da, oker pila bat, bata bestearen atzetik aguanta ezinezkoa. Literatur itzulpenak literatura izan behar du ezer baino lehen. Badago jende bat aditz bat zuzen botako ez dizuna eta ez sartu potentzialetan, eh? Eta asko ez dira literatura eta ez dago eskubiderik.

Lehen esaten genuen bezala, literatur memoria bat egin behar dutenen artera pasatzeko, ez dago eskubiderik. Eta, klaro, guri, eta orain nire arlora sartzera noa, neri etxera deitu didate batek baino gehiagok galdezka: zergatik ez diguzue eman munduko literatur itzulpen honetan, edo zergatik utzi duzue obra hau eman gabe? Eta erantzuna, esan diet: begira, gure ustez neurria ematen ez zenutelako. Eta nik aitortu behar dut ez zutela neurria, gutxienezko neurria ematen. Bazirudien batzutan ez zutela testua bera ulertu ere ulertzen, eta beste batzutan ulertu bazuten, euskararik ez zekitelako, eta horrek ezezkoa beste tratamenturik ez dauka. Lehen esan dudana bezala, memoria osatu behar duten horiengana edo beren kultura egin behar duten horiengana halako testu bat nik ezin dut pasatu. Horregatik,

bati baino gehiagori esan zaio: «Bai, itzuliko duzu, baina orraztu on bat behar du honek». Oharra jarria dago azpian. Horrekin zer esan nahi genuen? Beno, ba, hau itxura batean dago, baina oraindik beste pausu bat emango balu, honek asko irabaziko luke, asko hobetuko litzateke testua. Ez genuen horrela jarri, esanez bezala, «mutilak, hemen munduko literatura euskaratu, eta literatura bezala euskaratu behar baldin bada, jar ezazue mahai bat esango duena 'bale, hau bai, pase' edota esango duena 'hau ez dago ondo'». Nik nere liburuak beti pasatzen ditut beste norbaiten eskutatik eta ez diot galdetzen nola jarriko zukeen, ez, ez diot eskatzen hori; eskatzen diot zalantzarik baldin badu, jartzeko azpian, alboan, gainean edo nahi duen lekuan seinale bat, adieraziz hura, bere eritzian, ez dagoela ondo, eta gero ni saiatuko naiz hura lantzen. Baina berak emango dit pista, nik izan ere nere modura irakurtzen bait dut nire itzulpena, baina ez dakit besteak nola irakurriko duen. Orduan, beste norbaiti pasatzen diot. Edo ezagutzen ditut gaur sustantibazioarekin egiten diren tranpak. Nik badakit tranpa horiek egin daitezkeela eta pase emango lidaketela. Baina nere buruari ez diot barkatzen halakorik.

—*Esan dudanean, literatura berpizkunde askoren oinarrian itzulpen saio bat badela, adibideak multiplika daitezke, Tibeteko Rampo erregearengandik hasita...*

Bai, baina nik uste hori bi aldetatik gertatzen dela: batetik, esan duguna: memoria, memoria literarioa handitzen eta zabaltzen dela, eta horrek bi ondorio ditu: alde batetik teknikak ugaltzen direla eta eredu literarioak zabaltzen direla, eta gero ondorioz bien konbinazioa. Ikusi besterik ez dago: literatur berpizkunde askoren oinean dauden autoreak itzultzaileak dira: Goethe itzultzailea zen, Diderot itzultzailea zen, Pavese itzultzailea zen, Fray Luis de León ere bai. Hegoamerikan ere, idazle asko itzultzaileak dira. Orduan pentsatu behar da ea zer gertatzen zaien itzultzaile horiei literaturan halako berpizkunde eragileak izateko. Eta nik uste dut, horiek behartuta daudela ia kontzeptualizazio literario bat itzultzera, eta, beraz, beren pentsamendu hori, beren memoria hori eta beren teknika horiek denak zabaltzera, eta gainditzera. Eta horrela pertsona entrenatuak sortzen dira

itzulpenari esker, pentsamendu oso fin eta xehetu bat ematera behartuta daudelako, literatur itzultzaile kurioso xamarrek baldin badira behintzat. Eta beste aldetik, ereduak zabaltzen dira.

Nik uste dut, horrek dobleko eragina izan dezakeela gure artean. Nik ez dut dudarik egiten euskal literaturaren berpizkundearen oinarrian, berpizkunderik gertatzen bada, itzultzaileek beharko dutela izan, baina itzultzaileak gainera bi zentzutan: itzultzaile eta literato. Orduan, tipo horretako pertsonajeak beharko ditugu dexente, eta gainera euskal literatura autonomoa izango bada, iturburu askotako itzulpenak beharko ditu, ze guk ez dugu ahaztu behar gure memoria literarioa gaztelaniaz daukagula oraindik, eta gure itzulpenak beste hizkuntza batzutatik egiten baditugu, gutxienez obra horiek itzultzen ditugunean, obra horietan dagoen memoria literarioa guk landu egin behar izaten dugu eta lantzen dugunean obra hori, memoria hori behintzat zabaldu egiten zaigu. Orduan, euskal berpizkunde literario autonomo bat izango bada, iturburu askotatik hartutako memoria literarioak behar ditugu. Nik uste dut kontzeptu hori oso inportantea dela gaur egun berpizkunde baterako, itzulpen ahaleginak egingo baditugu. Eta horren lekuko Errusia daukagu. Han bi korronte jarri ziren aurrez-aurre: mendebalzalea eta autonomoa: Afanasiev eta Dostoiewski. Bata Frantziaren eraginpean, eta horrek esan nahi du frantsesez irakurtzen zuela; baina frantsesa Errusiako gorte guztian hitzegiten zen eta intelektual eta intelektualtxo guztiak zekiten. Beraz, hor bazegoen ernalketa bat, kanpotik etorria, eta horrek izugarritzko eragina izan zuen. Noski, Errusiako literatura esan ohi da Gogolen *Kapotetik* sortu zela, eta egia da. Beste batek ordea aitortzen du Errusiako literatura XVI mendean monje batek egin zuen ipuin eta kanta bildumatik sortu zela. Eta biek dute arrazoi. Baina, Gogolen *Kapotea* irakurri eta Frantziako zenbat aztarna ikusten dira? Ba, pila bat.

Euskaraz ere nere ustez, gauza beretsua. Beste adibide bat, Errusiako hau ere. Boris Pasternak oso gustora irakurri dut, baina haren poesia irakurtzeko zoria izan dut, askok irakurri ez duena. Ba, Errusiak izan duen itzultzailerik onentsuena izana da Boris Pasternak: Goethe, Calderón de la Barca eta beste hainbat itzuli zituen. Orduan,



horrek zer esan nahi du? Ni seguru nago, euskaraz ere itzultzaileak berak izan beharko duela nolabait ernalketa emango diona. Horregatik azpimarratzen nuen nik itzulpen ona, zer nola-halakoa egiten badugu itzulpena, batetik galduko dugu XVI mendeko monjearena Errusian, hau da: galduko dugu euskara, eta galduko dugu bigarrena, hau da, kanpotik datorkigun ernalketa.

Norbaitek esan du «argot berri bat sortu behar da». Non puñetatik sortuko dugu guk argota, inon ez bada hitzegiten euskara? Hiriko euskara: hiriko euskararik ez dago, euskara dago. Eta gero ikusiko dugu hiriko gauzak eta bizikizunak nola egiten eta nola adierazten ditugun. Horregatik, itzulpengintzak ernalketa izango du ona baldin bada. Eta horretarako taldeak behar dira, «Toledoko eskola» behar dugu, talde bat, eta talde bat konjuntatua, eta, bide batez, ondo ordaindua.

Lehen ere, hemen norbaitek aipatu du itzultzaile asko gazteak direla, eta nik zera esan behar dut: gazte izatea ez dela akats, kultura falta bai ordea. Eta kultura falta izugarria dago itzultzaileen artean, baina izugarria, izugarria. Beno, kultura falta, esan nahi dut, orohar, eh? Igerri egiten da badagoela jende bat itzultzen jarri dena eta hizkuntzari berari proportziorik hartzen ez diona. Astakeria bat esatera noa, baina esan egingo dut: jende bat badago euskal filologia egin eta bost urte alferrik galdu duena. Ikasi duen gauza bakarra da «eiki», eta hori jarriko dizue goian, behean eta erdian, eta esaten duzu: «Oh, hitz polita!» Filologian ikasi dute eta hala jarri dizue «eiki». Eta zeure buruari esaten diozu, disimuloan badaezpada ere: hau filologiatik pasatua da, baina ez daki besterik, ez dio testuari tonua ematen, eta gero gainera ez dute ulertu ere egiten. Beno, eta hala mila. Eta gero, bestelako mundu batzuk, bestelako erreferentziak, historia aldetik edo herri baten kulturatik, etabar, ez dituzte ezagutzen. Hizkuntza batzuk jakiteak laguntza handia eskaintzen du itzultzen hastean: erreferentzia puntu asko dituzulako. Eta horrela, hizkuntza bat bakarrik, euskara eta beste hizkuntza bat bakarrik dakien jendearen artean igertzen da batez ere: peligrasoak izan daitezke horiek, konparazio bide asko falta zaizkielako.

—*Zehaztasun gehiagoko gauzatan sartuz, aipatzen zenuen zuzentzaileen edo irakurketa mahaiaren figura. Nik uste dut, denok ados gaudela Euskalerrian...*

Ez, ez... Nik ez dut esaten zuzentzaileak gaizki itzultzen duenari zuzendu behar dionik, baizik ondo itzultzen duenari hobeto itzultzen lagunduko dion zuzentzailea, Homero siestatik esnatzen duena. Baina, Euskalerrian itzultzailearik gehientsuenak, nik dakidala behintzat, horren aurka daude, batez ere zuzentzaile edo irakurle hauek nola ordaindu erabaki gabe dagoelako. Orduan, nolabait erabakiko balitz, erakunderen baten aldetik edo, momenturen batean horrelako zerbait martxan jarri behar dela, eta lehen maila Itzultzaileen Elkarteari gerta dakioke hori, posibilitaterik ba ote legoke irakurketa mahai hori sortzeko? Nik ez dut ikusten, gaur gaurkoz, biderik. Borondate politikorik ez dagoelako. Borondate politikoa behar da, eta borondate politikorik ez dago gauza onak egiteko baliapideak jartzeko. Badago gauzak egiteko, hau da, eskaparatea prestatzeko, baina eskaparatean erakusten den horren kalitatea ziurtatzeko ez, euskarari dagokionez. Ez diote garrantziarik ematen zuzenketari, eta ez dakite gainera zuzenketa hori nola antolatu behar den, nola ordaindu behar den, norik ordaindu behar duen eta nori kendu behar zaion zuzenketak egiteagatik. Dirudienez, itzultzaileari kendu behar zaio proportzio batean, zenbait editorialen kontratuetan azaltzen denez.

—*Bueno, baina kasu honetan borondatea ez legoke administratzaileen esku.*

Begira, borondatea, borondate ona gauza bat da, eta inoren kontuak irakurtzeko penitentzia hartzea beste bat. Ordainketa da problemetako bat. Mahai bat jarri behar baldin bada, jarri beharko da, urte baterako adibidez. Hauek izango dira urte honetan mahaiko eta horiek pasatuko dituzte liburu guztiak eta horiei pagatu egingo zaie. «Nihil obstat» berri bat, esango du norbaitek... Nik ez dut ezetzik esango, baina itzulpegintzari bestelako kategoria bat emango liokeela, ez dut zalantzarik egiten. Klaro, baina horretarako borondaterik, ez dut nik inondik ikusi.

—Halere, nik uste dut hor beste zerbait sartzen dela jokoan, eta da: nor ausartzen da itzultzaile bati esaten «hori ez dago ondo»?

Begira, neri behintzat ausartu zaizkit. Eta nik ez dut txarrez hartu. Eta ez pentsa: dagoeneko ez naiz oso gaztea ere. Klaro, zuk esaten baldin badiozu: «Hi, orrialde hau, zero; orrialde hau, zero», eta, klaro, lehenengotik hasi eta azkeneraino dena zero jartzen badiozu, zero izango da, eta hori ez zaizu berriz etorriko. Baina, itxurazko itzultzaile batek, esaten baldin badiozu: «Hau hik ulertuko duk, nik ez...», zure irakurtzeko modua eta itzultzailearena bat ez datozelako —eta inor irakurle ona mundu honetan baldin bada, itzultzailea da—, orduan itzultzaile txukun horrek kaso egin eta behar diren zuzenketak egingo ditu. Zuzentzaileak ez du zergatik esan behar: «Hau hola jarri behar da», ez: arrasto bat, seinale bat jartzea aski du, galde ikur bat: hau eta bestea zuzendu ditzala.

—Pasa gaitezen hiztegiatara. Ibon Sarasolak esaten du behin galdetu ziotela ea ze hiztegi erabiltzen zuen itzultzeko, eta esan zuen Plazido Mujikarena. Eta ez nago seguru, baina uste dut esan zuela bakarra zelako. Zer esan dezakezu honetaz?

Bueno, hiztegiaren arazoa. Gazteleratik euskaratzen ez duenak ez du hiztegirik. Alemanetik euskarara ez dago. Euskaratik euskarara ere apenas. Gazteleratik euskarara bakarra dago: horretan arrazoi osoa du Ibon Sarasolak: Plazido Mujika. Baina ez frantsesetik, ez besteetatik dago: inglesetik egiten ari direla uste dut... eta oker ez banago, Tagalo euskara ere izan behar du, baina Filipinetan.

Hiztegiaren erabilera da, ordea, kontua. Hara nire jokabidea. Hiztegiak ematen dituen hitzak ez dira sarri ordezeko edo itzulpen zuzenak eta beteak. Aproximatiboak dira, gutxi gorabeherakoak sarri, eta hiztegian hitz bakoitza azkeneraino irakurri behar da: oso osorik guztia. Eta hiztegi horrekin ez dago konformatzerik; gero buelta eman behar diozu, alderantziz begiratu behar duzu, euskaratik erdararakoa, ea ordezekoak balio duen edo ez. Eta gero gainera jakin behar da zein testuingurutan erabiltzen den. Adibide txiki bat: zapia edo oihala. Denok ezagutzen ditugu bi hitzak. Ba, begira, oihala, adibidez, mukiak kentzeko ez da erabiltzen, eta zapia bai.

—*Katarroaren tamaina...*

Bai, baina bi hitz dira, batzutan nahastu litezkeenak, oihala eta zapia. Mahaia garbitzeko, zer erabiltzen da, oihala ala zapia? Jeneralean zapia erabiltzen da, baina mahaia estaltzeko ez da zapia erabiltzen, oihala baizik. Beno, ba, badira halako hitzak batek ondo ezagutzen dituenak, baina, halere, batzutan, erabilera aztertu egin behar da hiztegitan.

Alemanetik eta itzultzen dugunok, lehendabizi alemanetik gaztelerarakoa ikusi behar dugu, eta ondoren gazteleratik euskararakoa, eta ondoren euskaraz begiratu behar dugu ea konforme dagoen. Eta jakinaren gainean egonda ere, komeni izaten da begiratzea, ez ziurtatzeko bakarrik, norberaren buruari argumentuak emateko ere bai. Eta gero testuaren tonuan nola datorren ikusteko. Ba, adibidez, jarriko dut modan dagoena «*indartsuki eraso zion*»; badakigu —**ki** hori ondo dagoela. Baina «*indartsuki*» ordez, «*indarrez*» esan zitezkeen, edo «*indartsukiro*». Hori guztia begiratu egin behar da, eta hiztegia ez bakarrik ematen dizu hitzaren esparrua, baizik hitzen posibilitateak eta trukeak, sinonimoak, erdi sinonimoak edo antonimoak ematen dizkizu, etabar. Guzti hori jaso behar da, eta jasotzen ez bada, jakin egin behar da zergatik ez den jaso behar. Adibidez, jende asko dago begiratu ez duena «*bera*» eta «*berdin*». Neri galdetzen didatenean «*bera*» eta «*berdin*» artean, zein alde dagoen, esango dut: «*Ba, begira, ipurdia paper berdinarekin garbitu liteke, baina paper berarekin peligrrosoa da*». Adibideak milaka dira.

## SINTESIS

### Entrevista con Pello Zabaleta

En este artículo se entrevista a Pello Zabaleta, galardonado este año pasado con el premio de traducción del País Vasco por su versión de *El honor perdido de Katharina Blum*, de Heinrich Böll. Al inicio de la entrevista comenta cómo surgió la idea de traducir esta obra, y pasa más adelante a tratar las particularidades de la traducción del alemán al euskara en comparación con la traducción de otras lenguas, así como la forma en que son tratados en la traducción los estilos particulares los diferentes autores que ha traducido.

Seguidamente, la entrevista pasa a analizar de modo general la situación actual de la traducción en euskara, tanto en la Administración, como en los medios de comunicación y en la propia literatura. En su opinión, se hacen excesivos esfuerzos en traducir textos administrativos que no tienen ninguna incidencia en la mejora de la situación del idioma vasco, entre otras razones porque se utiliza en ellos un idioma «acomplejado» por el purismo, carente de cualquier función pedagógica.

Por otra parte, se comenta la mala acogida que en general suelen dar los lectores vasco parlantes a las traducciones en euskara, debido en parte a que la literatura extranjera siempre ha llegado a este lector por vía del castellano, hecho que ha creado un hábito muy arraigado, y debido, igualmente, a lo que él denomina el «segundo ojo», es decir, a la costumbre del lector vasco de hacer una lectura lingüística, y no puramente literaria, de la obra en cuestión. Por ello, resalta la importancia de invertir esta tendencia entre las generaciones más jóvenes, para lo cual, en su opinión, será preciso realizar traducciones sin «complejos», para que estas generaciones reciban también en euskara la producción literaria de otros idiomas. En este sentido, señala que es muy importante la existencia de algún tipo de corrector de la traducción, no para decirle al traductor cómo debe traducir, sino para aportarle una visión diferente de la propia, que le sirva para mejorar su labor.

Por último, se da un pequeño repaso a los diccionarios vascos, y a la forma en que se utilizan, desafortunadamente en muchas ocasiones, al emplearse sin el espíritu crítico que debe caracterizar al buen traductor.

## SYNTHESIS

### *Interview with Pello Zabaleta*

*This article consists of an interview with Pello Zabaleta, who last year was awarded the Basque Country's prize for translation for his version of The Lost Honour of Katharina Blum by Heinrich Böll. At the beginning of the interview he comments on how the idea of translating this novel came about, and later deals with the specific questions involved in translating from German to Basque in comparison with the translation of other languages as well as the way he has dealt with the particular styles of the different authors he has translated.*

*The interview then goes on to a general analysis of the present situation of translations into Basque, both in the Government, the mass media and in literature itself. In his opinion, excessive efforts are made to translate official documents which have no influence on improving the situation of the Basque language, due, among other reasons, to the fact that the language used is obsessed with its own purity, lacking in any pedagogical function.*

*On the other hand, he discusses the poor reception which Basque-speakers usually give to translations into Basque, due partly to the fact that foreign literature has reached these readers via Spanish, a situation that has created a very deep-rooted tradition, and equally due to what he calls the "second eye", i.e., to the custom of Basque readers of making a linguistic criticism and not a purely literary reading of the work in question. For this reason, he highlights the importance of reversing this tendency in the younger generation, and the need in the future for doing translations without feeling any kind of "complex", so that young people can also receive the literary production of other languages in Basque. In this sense, he points out that the existence of some type of corrector is important for the translation, not with the purpose of telling the translator how he has to translate, but to give him a different viewpoint on his own work, so that he can make improvements in his technique.*

*Lastly, there is a short discussion of Basque dictionaries and the way in which they are employed (incorrectly on many occasions), as they are used without the spirit of criticism which should be the mark of a good translator.*

## **FITen Munduko XII Kongresua Belgrado 1990**

J. M. Zabaleta

1990ak bi albiste nagusi ekarri ditu EIZIE elkartera. Biez hitzegin da luze gure artean, biez jaso da berria prentsan: EIZIE Itzultzaileen Nazioarteko Federakuntzan sartzea, eta Literatura Unibertsaleko ehun obra itzultzeko Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren lehenengo emaitza kaleratzea.

Hala ere, lehenengoari dagokionez, nahiz eta hainbestetan aipatu eta sobera esanda dagoela dirudien ere, aldizkari honetan ez dago jasota oraindik, eta halaxe jasota gera dadin, lehen eskuko aipamena izateko oinarri gera dadin, jasotzen dut berriro hemen, gertakariaren beraren kronika eta balorazioa eta ondorioz izan dituen etekinen balantzea.

### **Historia**

EIZIEk 1990eko otsailean ospatu zuen Biltzar Nagusian hartu zuen, bere buruz edo Katalunia eta Galiziako itzultzaile elkarteekin federakuntza bat osaturik Espainiako Estatuan FITeko bazkide izan zitekeen bigarren elkarte (estatu bakoitzetik bi bazkide besterik ezin

bait daitezke izan FITen, itzultzaile elkarte ala elkarte federakuntza ajola ez diola) izateko eskaria egiteko erabakia. Erabaki hori EIZIEren sorrerako helburuetan jasorik dago, nolabait, helburu horien artean behar diren erakunde guztien aurrean euskal itzultzaileen ordezkari izatea bait du bat, eta erakunde horien artean itzultzaile elkartearen aurrean bereziki. Horrexegatik hasieratik bertatik ekin zion gogoz EIZIEk beste itzultzaile elkarteekin harremanak bilatzeari, eta FITeko partaide izatea xede horren burutzapena besterik ez da alde horretatik.

Esan bezala, Galizia eta Kataluniako itzultzaile elkarteekin bat egitea izan zen EIZIEren lehen erabakia. Horretarakoxe Donostian bilera bat egin zen asmo horretan partaide eta interesdun izan zitezkeenekin, 1988ko maiatzean. Bertan bilduak, EIZIE, ATG (Galiziako Itzultzaile Elkarte), APTIC/LC (Kataluniako Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte) eta APETI (Espainiako Itzultzaileen Elkarte Profesionala), Espainian ginen itzultzaile elkarte guztientzat nolabaiteko koordinazio sistemaren bat antolatu nahi bait zen. Bilera hartan erabaki zen, besteren artean, galego, katalan eta euskaldunen artean federakuntza bat sortu, gure interes berezi izan zitezkeen gaietan elkartasunez jokatu ahal izateko, eta aldi berean APETIrekin batera Espainiako itzultzaileen konfederakuntza bat antolatzea ere, hainbat gai garrantzi handikotan —itzultzailearen estatusa, ikasketak, kolejio profesionala, adibidez, edo egunen batean FITerako Estatu bakoitzetik ordezkari bana besterik onartzen ez bazen, horretarako susmoak bait zeuden— elkarren akordioa eta koordinazioa behar izango zenerako egitura hori edo gisakoren bat behar izango genuelako.

Geroztik federakuntza hori antolatzeko ahalegin bat baino gehiago egin da, eta egia esan behar bada, EIZIE elkartearen izan da horretan lehia handiena jarri duena. EIZIEren ordezkariak garbi ikusi izan bait dute beti kanporako ahalegin horrek geure artean ere ondorioak izango zituela, geroak frogatu duen bezala.

Hala, FITeko partaide izateko eskaria aurkezteko epearen muga hurbiltzen ari zen ahala, federakuntza osatzeko ahaleginak ugaldtu



egin ziren. Bitartean, ordea, Kataluniako APTIC/LC-rekin genituen harremanak bakanduz eta lausotuz joan ziren; harremanetan jarri ezinak, eta sobera kezkarriak ziren albisteak iritsi zitzaizkigun haien aldetik, harik eta azkenik ongi frogatuta geratu den arte Katalunian APTIC/LC-rik ez zegoela batere, egiaz erakunde bizitzarik zuenik bederen: bi urte pasa zuzendaritza batzordea bildu gabe, beste horrenbeste edo gehiago kuotak kobratu gabe... Alde horretatik Kataluniako itzultzaile elkareren batekin federakuntza osatzeko asmoak amets geratu ziren, eta utzi beharra izan zen.

Bitartean ATGrekin izan genituen bileretan, elkarte horrek ez zuen ageri FITen partaide izan eta bertan parte hartzeko interes bizirik. Lehendik sortu nahi zen federakuntza oso hura —Estatu osoan ofizial ez ziren hizkuntzetakoena— sortu ezean, Gobernu Zentralarekiko egin zitezkeen ahaleginetarako —Kulturako Ministeritzarekiko harremanetarako batez ere— galego eta euskaldunen artean sortu zitekeenak indarririk ez zuela izango iritzirik, gauzak atzeratuz joan ziren. Halako moldez, non azkenean FITeko bazkide izateko eskaria aurkezteko ordua gainean zela, egunetako epea geratzen zela, ez bait zegoen, ez federakuntzarik, eta horrelakorik sortzeko modurik, horren epe laburrean.

Hala, EIZIEk txosten bat prestatu zuen, eta FITen aurkeztu, elkarte horren APETIren ordezkari zen Maria Jose Velasco anderearen eskutik, FITen Batzorde Nagusiak 1990eko apirilean Parisen ospatu zuen bileran. Bertan ziren ordezkari batzuren aldetik zalantza baino gehixeago izan bazen ere, nonbait, elkarte honen eskaria onartu zen, eta halaxe argitaratu zen FITen barne argitalpenetan eta urte horretan bertan ospatzeko zen Biltzar Nagusirako deietan. Osoko bazkide izateko azkeneko baldintza geratzen zen betetzeko, horrenbestez: FITen Biltzar Nagusiak onartzea.

### **Biltzarraren eta Kongresuaren kronika**

Izan, bi kongresu izan ziren Belgradon; bata, lehendabizikoa, estatutu kongresua, FITeko partaide ziren itzultzaile elkartetako

ordezkarientzako bakarrik, abuztuaren 2an, ostegunean, hasi eta 5era, igandera arte. Eta bigarrena, kongresu irekia, abuztuaren 6, 7, 8 eta 9an. Biak Belgradoko Sava Centar kongresu eta erakusketa zentruan.

EIZIEren izenean hiru pertsonaz osatzen zen ordezkari-tza bat joan zen bertara: Josu Zabaleta, ordezkari-tza-buru, Idoia Gillenea eta Alberto Amorrortu.

Abuztuaren 2an, arratsaldetik hasi zen estatutu kongresua, lehen topaketa, eta ongietorri kafe baten ondoren kongresuari hasiera eman zitzaion. Aurkezpena eta ordena kontu batzuren ondoren, FITeko bazkidetza eskari berrien aurkezpena hasi zen egiten.

Eginkizun horrek luze eraman zuen, 11 eskari bait ziren, izan ere guztira: Australiako Interpretari eta Itzultzaileen Institutua, Txinako Zientzi Akademiako Zientzia eta Teknologi Itzultzaileen Elkarte, Hong Kong-eko Itzultzaile Elkarte, Indiako Zientzi Itzultzaileen Elkarte, Irakeko Itzultzaile Elkarte, Irlandako Itzultzaile Elkarte, Kongoko Interpretari eta Literatur Itzultzaileen Elkarte, Norbegiako itzultzaile Elkarte, Siriako Idazle Arabiarren Elkarteko Itzultzaile Elkarte, Sobiet Batasuneko Zientzi eta Teknologi Itzultzaileen Elkarte, eta EIZIE.

Elkarte horietako bakoitzeko ordezkariak elkartearen aurkezpena egin zuen, eta galde-erantzunen ondoren, botoetara jarri-rik, ahobatez onartzen ziren normalean. Gorabehera batzuk izan ziren Txinako Elkartearen onarpenerako, baina lehenengo botazioan hurrengo egunerako utzirik, bigarren horretan onartu egin zen.

Hego-Afrikako Itzultzaile Elkarteari, berriz, hiru urte lehenagoko kongresuan sarrera eskatu eta hartan ukaturik, berriro ukatu zitzaion, elkarte barruan apartheid sistema erabiltzen delako, arazo hori aztertzeko izendaturik zegoen batzorde batek ziurtatu zuenez.

Elkarte bakoitza FITeko bazkide bezala onartzen zen une beretik, lehendik ziren elkarte guztien eskubide berberak zituen, eta horren seinale bi txartel ematen zitzaizkion, gorria eta berdea, BAI ala EZ botoa eman ahal izateko.

Bazkide berrien onarpenaren ondoren, bazkide elkartu kategorian beste zenbait eskari aurkeztu ziren: Mons-eko Nazioarteko Interpretari Eskola, Bruselasko Itzultzaile Eskola, Kamerungo Bueako Itzultzaile eta Interpretari Eskola, Tangerangko Fahd Erregea Itzultzaile Eskola, Japoniako Itzultzaile Federakuntza, Moskuko Maurice Thorez Atzerriko Hizkuntz Institutua, Bibli Elkarte Batuak.

FITeko zuzendaritzak, batzordeek, bazkide diren elkarteek, azkeneko hiru urtetan burututako jostioaren berri eman zuten. Hemen ez dago horren guztiaren berri ematerik, jakina. Bien bitartean FITen Kontseilurako hautagaien aurkezpena egin zen.

Bitarte horretan, FITeko zuzendaritza organoek ere beren ekimenaren berri emateko txostenak aurkeztu zituzten: BABEL aldizkaria, ekonomia, etab.

Zenbait bilera izan ziren, egun horietan, FITeko bazkide diren elkarteetako lehendakari eta idazkarien artean, elkarren berri zehatzago jakin, elkar tanteatu ere bai, eta FITen barne bizitza indartzeko asmoz.

Estatutu kongresuaren azken eguna, hauteskunde eta bilera eguna izan zen batez ere: FITen Kontseilua, hamazazpi lagunez osatua (hamalau partaide hauteskunder azkeratuak, eta beste hiru haiek aukeratuak. FITeko batzordeen bilerak, goizez eta arratsalde. FITeko bazkide diren elkarteetako aldizkari zuzendarien bilerak. FITen Kontseilu berriaren lehenengo bilera (Bilera horretan erabaki zuen Kontseiluak Hedadura Txiki eta Ertaineko Hizkuntzetako Itzultzaileen Batzordearen Zuzendaritza Elkarte honen esku uztea)

FITen zuzendaritzarako, lehendik zen lehendakariak, Anna Lilova andere bulgariarrak, bere dimisioa eman bait zuen, Kontseilurako hauteskunder boto gehien lortu zutenen artean atera ziren hautagaiak. Hauteskunde haietan boto gehien Maria José Velasco Ulacia, APETIko lehendakariak atera bazuen ere, ez zuen aurkeztu bere burua lehendakari izateko, eta François Joly kanadiarra hautatu zen kargu horretarako.

## **EIZIEren aurkezpena Estatutu Kongresuan**

FITeko bazkide izateko eskaria aurkezteko txosten bat eraman eta banatu zuen kongresukide guztien artean EIZIEk; txosten hori, 16 orrialdetakoa, frantsesez eta ingelesez zegoen argitaratuta, hizkuntza horiek bait ziren Kongresuko ofizialak.

Sarreran euskara geografian kokatu eta euskarazko itzulpenak orain duen egoera historikoa deskribatzen zen. Euskal itzulpenaren hedakuntza azkarra eta berorren arrazoiak: gerra osteko errepresioaren ondoko demokratizazio prozesua eta autonomia, euskarazko irakaskuntzaren gorakada eta hark eragin dituen itzulpen premiak, Administrazioaren euskalduntze prozesua eta horretan itzulpenak duen lekua, zinpeko itzultzaileen kasua, euskarazko komunikabideen sorrera eta hortik dagoen itzulpen eskaria, literatur eta zientziatzko testuen itzulpena, interpretaritzak.

Beste atal luze bat euskal itzultzaileen berezitasunei eta antolamenduari buruzkoa zen: Itzultzaile kopurua, itzultzaile ikasketak, Elkarteak, Elkartearen helburuak, bere estatusa, antolamendua, zerbitzuak, argitalpenak, Elkartearen historia eta lorpenak.

Azkenik, hirugarren atalean, EIZIEk beste elkarte batzurekin dituen eta izan dituen harremanak esplikatzen ziren luze-zabalean: Galizia eta Kataluniakoekin, APETIrekin eta FITekin.

Txostenaren aukezpenerako hitzaldian, hartan erabiltzen ziren argumentu berberak aurkeztu ziren berritro, FITen elkarte honek duen ezaugarri bereziena azpimarratuz: hizkuntza batez definitu izatea alegia, gaiez edo lurraldez definitu orde. FITen dauden elkarte gehienak beren itzulpen gai edo sistemaz eta lurraldez bait daude definituta: Halako edo bestelako estatuko literatur edo zientzi (schi-tech) itzultzaileak, edo interpretariak. Gurea berriz, elkarte bakarra da FITen hizkuntzaren arabera definituta dagoena.

Bataren eta bestearen azkenean —txostenaren eta hitzaldiaren azkenean— EIZIEk FITen helburuak beretzat dauzkala aitortzen zen.

## Kongresu irekia

Belgradoko Kongresuaren bigarren zatia, hasieran esan den bezala, kongresu irekia izan zen, abuztuaren 6tik 9ra. Lehenengo partean jende gutxi samar bazegoen —FITeko partaide den elkarte bakoitzeko hiru ordezkari, batzutan laguntzaile taldetxoak, ordezkarez gainera, beste batzutan berriz, ordezkaritarik ere ez, ehundaka pare bat pertsona, beraz, asko jota, ordezkaritzak bakoitzak boto bana zuela—, bigarren parte honetan berriz, mundua bildu zen Kongresura. Zazpirehundik gora pertsona, alde guztietatik etorriak.

Guztiek batera ospatzeko bilerak kongresuaren lehen egunekoak eta amaierakoak izan ziren. Kongresu hasierako ingaugurazio ekitaldian, Mladen Jovanović antolamenduaren arduradunak, Anna Lilova Kongresura arte FITeko lehendakari izanak, Unescoren ordezkari batek, Milorad Unković Belgradoko alkate jaunak, Serbiako lehendakari eta Yugoslabiako lehendakariak eman zituzten ongiatorri agurrak.

Musika ekitaldi baten ondoren, bi hitzaldi magistral izan ziren. Bata Danica Seleskovitch, Parisko interpretari eskolako zuzendaria, “*De l’interprétation à la traductologie*” eta bestea Ranko Bugarski yugoslabiarrak “*Translation as creation*”.

Abuztuaren 6an arratsaldean, Unesco-FIT ekitaldi bateratua izan zen.

- Unesco eta FIT arteko elkarlana: 1987-1990. Anna Lilova (BG).
- Unescoren ordezkari baten hitzaldia.
- Unescoren gomendioa itzultzaileen babes juridikoaz: nazio bakoitzean eta nazioartean. Hans Schwartz (DE).
- Asiako literaturen itzulpenaren arazo bereziak. Ian Chunfang (CN).
- Literatura itzuliaren arazoak Afrikako eleaniztasunaren testuinguruan. Canute W. Temu (TZ).

Abuztuaren zazpian mintegiak hasi ziren, bakoitza bere aldetik. Talde horietako bakoitzean, aurkezle bakoitzaren saioak ordu laurdenekoak izaten ziren gehienak, eta hiru aurkezpenez behin, ordu erdiko eztabaida aurkezpenei buruz. Hamaika mintegi edo talde ziren guztira:

- 1.- Itzulpenaren teoria orokorra (22 aurkezpen).
- 2.- Literatur itzulpena (22 aurkezpen).
- 3.- Hedadura laburreko hizkuntzak (12 aurkezpen).
- 4.- Zientzi eta teknika itzulpena (16 aurkezpen).
- 5.- Interpretaritza (9 aurkezpen).
- 6.- Komunikabideetarako itzulpena (10 aurkezpen).
- 7.- Irakaskuntza eta trebakuntza (32 aurkezpen).
- 8.- Terminologia (12 aurkezpen).
- 9.- Itzultzailearen tresneria (4 aurkezpen).
- 10.- Itzultzailearen estatutua (7 aurkezpen).
- 11.- Auzitegiko itzultzaile eta interpretaria (9 aurkezpen).

155 aurkezpen horien guztien laburpena Elkartearen egoitzan du, ikusi nahi duenak, Kongresua hasi aurretik halako abstract bilduma bat argitaratu eta banatu bait zen bertaratuen artean. Kongresu guztietan bezala, liburu bat argitaratzeko asmoa dago bertan izandako hitzaldi eta eztabaidekin, eta liburu hori ere eskatuta dago Elkarterako.

### **Kongresuaren balantzea**

Lehenik eta behin, zinez esan daiteke EIZIE elkarte FITen sartu izanak eta han egin zaion harrera gauza asko aldatu dituela Elkate honetan. Ez da esajeratu behar gertakari horren garrantzia, baina gure Elkarte hau, esateko, artean sortu berria zelarik, bere mugez kanpotik halako ezagumendu eta onespina hartu izanak, arras aldatu dio Euskal Herrirako bertarako ere, Elkarte honek zuen irudia, entzutea eta onespina. Elkarte hau oso berria bait da oraindik, eta

oraindik ez du erabat hartu euskal gizartean dagokion lekua. Ez bait da ahaztu behar euskal kulturari, euskal literatura, liburugintza, komunikabide, irakaskuntza, administrazioa, zerbait den ia guztia itzulpena dela, edo ia itzulpena, zuzenean edo zeharka, osorik ez dena puska batean. Euskarak bere erabileran duen diglosi egoera itzulpenez ari da gaintitzen, ia-ia definizioz: gizarte honetan bertan gaztelaniaz edo frantsesez sortzen diren testuak euskarara itzuliz, eta gizarte honek beste hizkuntza batzuetatik gaztelania-frantsesetara itzulita ezagutzen zituen testuak euskarara itzuliz. Diglosia gaintitzen ari den neurrian itzulpenaren zordun da euskal gizartea, eta zor dio ezagumendu hori itzultzaileari.

Gertatu denari begiratzen bazaio, beraz, paradoja badirudi ere, barnerako neurri hauxe du lehenik, Elkartea FITeko kide egin izanak: Elkarte honek Euskal Herrian duen presentzia indartu du. Horrexegatik, hain zuzen, Belgradoko kongresutik bueltan harreman berriak izan ditugu zenbait euskal instituzioren: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Unibertsitatea, Diputazioak... kidetza eta izendapen berriaren berri emateko.

Instituzio horiekin guztiekin harremanak erraztu egin dira, eta era horretara errazagoa da Elkarte honen helburuetako bat betetzea: euskal erakunde eta instituzioen aurrean itzultzaileen izenean solaskide izatea; eta era horretara errazagoa izango da itzultzaileen interesak zaintzea.

Harreman errazago horien fruitu izan da, adibidez, 1991ko udarako Elkarte hau Euskal Herriko Unibertsitatearekin antolatzen ari den Udako Ikastaroa, "Itzulpena: Komunikazio eta normalizazioa", leku askotako irakasleak ekarri asmo dituen.

FITeko bazkide izateak Elkartearen baitarako ekarri duen indarberritze horrez gainera, gertaera horren neurria kanporakoa da berez, kanpo harremanetarako. Alde horretatik, nazio arteko federakuntza hori plataforma bikaina da euskal itzultzaileentzat, beste herrietako itzultzaileak eta itzulpen esperientziak ezagutu eta geureak haietan ezagutzera emateko.

Euskal itzultzaileon harreman mundua nahikoa laburra eta estua izan da lanbidearen barruan, egin izan diren inkestek erakutsi izan duten bezala. Informazio eta harreman truke horrek onura besterik ezin ekar diezaioke Elkarte eta Elkarteko bazkideei.

Onura hori garbi geratuta dagoeneko, zenbait alorretan. Bat, asko ez luzatzeko, hizkuntzak ikasteko aukeratan. Euskarara nahikoa hizkuntza gutxitatik itzultzen da, inkestek erakutsi dutenez berriro. Hizkuntz aukera hori zabaldu egin behar da, eta Belgradoko kongresutik bueltan argitaratu zenez, Europako beste zenbait elkartetako ordezkariekin izandako tratutan, euskal itzultzaileak zenbait hizkuntza ikastera bidaltzeko laguntzak eskaini zitzaizkigun.

Baina onura hori euskal itzultzaileei ez ezik, euskal literaturaren zabalkunderako ere izan da, euskaratik —gaztelania edo frantsesa tarteko— beste hizkuntza batzutura zenbait obra itzultzeko proiektuak burutzen ari bait dira. Idazleentzat eta euskal kulturen ari diren beste batzurentzat ere bai, harremanak zabaltzeko balio izan bait die, hala adibidez euskal kazetariei, beste hizkuntza txiki —xamar— batzuetako kazetariekin harremanetan hasteko.

### **Hedadura txiki eta erdi mailako hizkuntzetako itzultzaileen batzordea**

FITen egituraren barruan, gainerako eginkizunez aparte, bat eman zaigu bereziki: Hedadura txiki eta erdi mailako hizkuntzetako itzultzaileen batzordearen lehendakaritza. Horrek ez du esan nahi, ordea, beste batzordeetan parte hartu ezin dugunik, oso bestela baizik, erregu egiten digute parte hartzeko.

Agiriko gauza da matematikoki ez dela posible hizkuntza handiak izatea hizkuntzetan gehienagoa. Hedadura txikiko hizkuntzak dira, bada, hizkuntza gehienak. Eta horrenbestez pentsatzekoa itzulpen esperientziarik anitzena eta aberatsena ere hizkuntza horietako itzultzaileen artean aurkitzea.

“Txikitasun” kontzeptua bera, hizkuntzei dagokienean, oso kontzeptu erlatiboa da, munduan erabilera oso zabala duten



hizkuntza banaka batzuk kenduta, gainerako guztiak batzorde honetan bait daude sartuta; era guztietako egoerak daude hizkuntza hauetan, itzulpenari dagokionez: bai itzultzaileak gizartean duen estatutuari dagokionez, bai hizkuntza bakoitzean itzultzaileak duen protagonismoari eta eginkizunari dagokionez, bai bere lanbiderako duen prestakuntza, lanabes eta laguntzei dagokienez.

Batzorde honek hartu duen lehenengo asmoa, egoera eta arazo horiek ahal den neurrian ezagutu eta deskribatu, sailkatuko dituen liburu berde bat prestatzea da, gero, horretan oin harturik, FIT iritsi daitekeen nazioarteko erakundeen bitartez, egoera horietarako aurrerabideak bilatzen saiatzeko, eta itzultzaile horien lana ezagutu, merezi zuen onespena eman eta behar dituen laguntzak bideratzen ahalegindu ahal izateko.

Itzultzaileok pertsona orori aitortzen diogun eskubidea bait da, hain zuzen, bere hizkuntzan mintzatzekoa, eta eskubide horixe betetzera ahalegintzen gara gure lanean.

## SÍNTESIS

J. M. Zabaleta, Secretario General de E.I.Z.I.E. (Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes de Lengua Vasca) y delegado de esta asociación en el XII Congreso Mundial de la FIT, celebrado durante las primeras semanas de agosto de 1990 en Belgrado, en el que esta asociación fue aceptada como miembro de pleno derecho de dicha Federación Internacional de Traductores, hace una crónica del proceso seguido para la presentación de esta candidatura, desde que en la Asamblea anual de 1989 E.I.Z.I.E. tomo el acuerdo de presentar su candidatura a la Federación Internacional, hasta el Congreso propiamente dicho:

- Presentación de la candidatura.
- Documentación presentada.
- Defensa de la candidatura.
- Votaciones.
- Crónica del Congreso Estatutario de la FIT.

- Nombramientos.
- Nombramiento para la presidencia de la Comisión de Lenguas de Mediana y Pequeña Difusión.

Presenta también una crónica del congreso abierto —académico— consiguiente al estatutario, con sus diversos seminarios, correspondientes a las diversas comisiones de la FIT, y presentación de temas.

Acaba haciendo un balance de las consecuencias que la nueva condición de miembro de la FIT, y la presidencia de la Comisión de Lenguas de Mediana y Pequeña Difusión han tenido para la asociación de la que es secretario general.

Estos hechos han sido percibidos dentro de la asociación de traductores, como un espaldarazo y una prueba de confianza por parte de la Federación internacional, a la vez que como una nueva responsabilidad contraída ante los traductores de las más diversas naciones. Ser miembro de la FIT significa ser solidario con los traductores de otras naciones. Al mismo tiempo, sin embargo, como para aliviar la carga de responsabilidad que ello supone, también se percibe la doble ventaja que supone estar, por un lado, en contacto con experiencias traductológicas más amplias y diversas, la marea de información que de ello se deriva y las nuevas perspectivas que abre este contacto —posibilidades de estudio, intercambio, etc.— no sólo para los traductores vascos, sino para la cultura vasca en general; y por otro la aceptación mayor que como consecuencia de este reconocimiento externo se origina dentro de la propia sociedad vasca y de sus instituciones políticas y culturales, hecho que se ha dejado notar inmediatamente por la diferente acogida que se le propina a esta asociación desde la vuelta misma del congreso.

El autor acaba afirmando que este aspecto de las relaciones exteriores de E.I.Z.I.E. no constituye de ninguna manera un fin secundario, una actividad externa, de la asociación, sino que está ligado al propio ser de la actividad traductológica, que es una dimensión propia y natural de la profesión, y por ello necesaria. Lejos de distraer fuerzas de las tareas asociativas, es un refuerzo, uno de los ejes principales, de dicha actividad. La asociación se siente reforzada por esta nueva dimensión, y por ello entiende que debe continuar en esta misma dirección, multiplicando los esfuerzos, en solidaridad con los demás traductores y nutriendose de esa misma solidaridad.

## SYNTHESIS

*J.M. Zabaleta, General Secretary of E.I.Z.I.E. (Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language) and delegate of this association in the XIIth World Congress of International Translators' Federation, held during the first weeks of August 1990 in Belgrade, during which this association was accepted as a full member of said Federation, criticises the process followed for presenting this candidature, from the moment in which the E.I.Z.I.E. 1989 Annual Assembly agreed to present its candidature to the International Federation, up to the time of the Congress itself.*

- *Presentation of the candidature.*
- *Documents submitted.*
- *Defence of the candidature.*
- *Voting.*
- *Criticism of the Statutory Congress of the ITF.*
- *Appointments.*
- *Appointment of the presidency of the Medium and Languages.*

*He also offers a criticism of the open –academic– congress resulting from the statutory congress, with its different seminars, corresponding to the different commissions of the ITF, and the presentation of subjects.*

*He finishes by analyzing the consequences which the new situation as member of the ITF and the presidency of the Medium and Small Language Commission have had for the association of which he is general secretary.*

*These facts have been seen within the translators' association as a demonstration of encouragement and a show of confidence on behalf of the International Federation, as well as being a new responsibility incurred with respect to the translators of a large number of countries. Being member of the ITF reflects a sense of solidarity with translators in other countries. At the same time, however, as if to alleviate the responsibility which it represents, the two-fold advantage in being, on the one hand, in contact with a great number of people with a variety of experiences in translation work, the tremendous amount of information which it generates and the new prospects which this type of contact provides - the possibility for study courses, exchanges, etc. - not only for Basque translators, but for Basque culture in general; and on the other hand, the higher level of acceptance which is created as a consequence of this recognition from abroad within Basque society itself as well as its political and cultural institutions, a fact which at once has become apparent due to the different reception which has been given to this association since its return from the congress.*

*The author concludes by stating that this aspect of the external relations of E.I.Z.I.E. does not in any way constitute a secondary aim, an external activity of the association, but that it is linked to the activity of translation, which is a natural dimension of the profession, and is, for this reason, necessary. Far from diverting effort from associated work, it strengthens and provides the backbone for this activity. The association feels stronger due to this new dimension and for this reason understands that it must continue in the same direction, by increasing its efforts cooperation with other translators and benefiting from this sense of solidarity.*

## **Euskara eta publizitatea**

Jesus Eguzkiza

Ez da nire egitekoa hemen publizitatearen ongaitzak aztertzen hastea. Denok gaude jakitun publizitatearen gorpolean dabilela gure erosi beharra. Aintzinatean jainkoen bizileku ziren goitegietan, gaurko jainko elektronikoaren begi-belarriak jarri ditugu, eta euron bitartez ikusten eta entzuten dugu, gure historia euren lantegietan egiten denera sortuz. Nekez dugu geurez ezer egiterik edo asmatzerik. Euren esanetara gaude, sal-erosietan, erizte orduan, hautatzerakoan, nahiz oheko lanak egiterakoan. Modernotasunak asfaltuzko zelaira dakarzkigun jainko berriaren ezaugarriak ditugu. Batzuen eritziz deabrukeria hutsak baino ez dira, beste batzuek, ordea, hortik zerbait onik atera litekeela uste dute. Ni ere horretan nago. Ezin albora dezakegu, nahita ere, burmuinak zulatzerainoko indarrez inguratzen gaituen iragarkien blistada koloretsua. Baina, eta zer egin guk, geure txikian eta urrian mundu eraginkor honen aurrean? Ba, euskarari lekua egin horretan ere, garbitasunik ikutuezinekoenean hil ez dakigun. Euskara bera ez ezik, euskaraz saltzeko gaitasuna ere lortu beharra daukagu. Zelan? Haor gakoa.

Orainarteko esperientzia ez hain luzean itzulpenaz baliatu izan gara gehienetan, erdaraz sortutako mezuak bideratzen. Argi dago

bide hau ezin dugula baztertu, baina bai ohi den baino egokitxoago eratu. Luzera begira, euskaraz sortu, egin eta buruturiko publizitatea litzateke eraginkorrena, biziena eta zuzenena, baina euskal kreativekoen lantegiak amatauta daude oraindik; beraz asmatzaileak sortuz doazen bitarte honetan itzulpenari heldu beharrean gaude.

Beste ezer baino lehen, esan dezadan publizitatearen helburua iragartzea dela, ezagutzera ematea, eta ondorioz saltzea, moda berriak plazaratzea, erizpideak sortzea... mila katramila erabiliz. Gure gizartean dena dago salgai, behar ez ditugun zerak ere beharrezko egiten ditugu; edozeri asmatzen diogu bere zertarakoa, baina ni ez naiz hasiko hori ona ala txarra den esaten, zertarako iragartzen den aztertzen, bai ordea noiz iragartzen den; ez naiz sartuko non, noiz eta zenbat diru eralgiz iragartzen den esaten, baina bai zelan iragartzen den, beti ere komunikabidea euskara denean.

Beraz, publizitatearen ongaitzak, konpetitibitateak eta bortxakeriak ez ditut aipagai; hori baino apalagoa eta sinpleagoa da lerro hauen ardatza: euskararen iraupenerako eta normalkuntzarako publizitatea ere beste euskarri bat dugunez gero, nola egin entzungarriago, irakurgarriago eta ikusgarriago. Euskaraz saltzeko gaitasunik ez badugu, euskarak ez du ezertarako balio, salerosketaren gurpilean dabilen gizarte honetan. Ez dezagun hiletadeietara txokoratu euskarazko publizitatea. Hala ere, dena euskaraz egin beharrenden gorriak ez gaitzala itsutu, akatsik lotsagarrienak ez salatzeraino.

Barregarritzat darabiltzagu, baina irakurriak ditut honakook: *bekoki kulturala*; *Bilboko Aulkia* jai programa batean; *arrisku gerriko bearrezkoa* bide ertzeko seinalizazio batean; *utz zaitez guztion ondasunak eroaten* autobus publikoetan... eta abar luzeegi bat. Zerk eragiten du honelako astakeriak egitea?

Faktore asko gurutzatzen dira: ezjakintasuna, eta honek dakarren lotsarik eza. Era honetako itzultzaile furtiboak salatu beharra dago. Ondo egin nahirik, sarritan horrelako kakanahasteak asmatzen dira erdarari ipurdian munda joan beharrez. Itzultzailearentzat hitzez hitz

kalkatzea da etsairik amorratuena. Sarritan hitzei iruzur egin beharra dago zentzuaren mesedetan. Leialtasunak ezin du oso-osokoa izan. Hizkuntza bateko eta besteko hitzen esanahia ez da beti parekoa, beraz kendu hiztegiak roboten eskuetatik.

Hobe da hitzei iruzur egitea mezuaren zentzuari baino, okerreko interpretaziorik sor ez dadin. Erdararik ez baneki, ezinezko litzaidake *utz zaitez guztion ondasunak eroaten* horrek ze mezu daraman asmatzea. Gramatikaz ongi dagoela jota ere, ez du inongo zentzurik, ez dauka oihartzunik, ez darama mezurik, esaldi antzua da. Lortu nahi litzatekeen eragina, gainera, itxulastu egiten du. Euskaraz baino bizi ez den gure amak hori irakurriz zera esango luke berekautan: «Nik etxakiat euskerarik». Edota gehitxoago aztertuko balu, ezer ulertzekotan ere, beste hau letorkioke burura: «Badaezpadan enajoiak hor sartzen, daukadan apurra eroan ez deiden». Argi dago era horretako itzulpen kaxkarrak baztertu eta salatu beharra dagoela.

Itzulpena, hein handi batean, sormen lana ere bada. Informazioa garbi eman behar da, leialtasuna ikuspegi funtzionalez erabiliz, eta mezua ematerakoan, testuinguru linguistikoez gain, hizkuntzaz kanpotiko beste ezaguera batzuk ere kontutan izanik: norengana zuzendutako mezua den, ze gai darabilgun mezuan, zentzu bikoitzik ezarri nahi diogun, informazio soila den, hitz jokorik ote dagoen, ze komunikabidez iragartzekoa den... Iragarkia itzultzen hasi aurretik, ezagutza horiek eskura izatea behar-beharrezkoa da. Egoeraren azterketa hau barik nekez lor daiteke komunikaziorik eta eragin jakinik. Denok dakigu iragarkiek eragin bizia dutena, sarritan erretrauen tankerako egikera laburrean mila bider entzun edo ikusi beharra eskaintzen zaigulako; eta entzunaren entzunez, errealitatea bera baino sinisgarriago egiten zaigu.

Adibide bat jarriko dut honen argigarri. Tabakoaren aurkako kanpainia puri-purian zegoen, eta nola diren gauzak: ni erretzaile amorratua izanik neuri egokitu zitzaidan tabakoaren kalteak aireratzeari. Esaldi nuklearra, noski, asmatu zegoen: *Ez baduzu erretzen, askoz hobeto*. Ni esatari soila izanik, ez nintzen nor hainbeste pen-

tsaturiko esaldiari inolako oharbiderik egiteko, baina hala ere uste nuen beste ordena batean *-erretzen ez baduzu...* - esangarriagoa eta erritmikoagoa zela, baina ez zegoen ezer aldatzerik. Burutakizun horixe nerabilen nire semearekin autoan etxerantza nindoala zigarroa ezpainetan hartuta, eta hara non entzuten den irratitik neure ahotsez: *Ez baduzu erretzen...* Eta orduan semeak keinu maltzur bat eginez, «Aita, inori esan ez erretzeko, eta zeu kea darizula?» esan guran; baina nik, neuk irratiz nioena zuzendu nahi izan nion ordenaren kezkaz; «*Ez baduzu erretzen ez da esaten, Erretzen ez baduzu baino*». Baina ezin izan nion buruan sartu bestela izan zitekeenik. Benetako aita baino sinisgarriagoa zen elektronikazkoa.

Erritmoaren eta esangarritasunaren arazoa aipatu dut adibide horretan, eta iragarkigintzan horrek berebiziko garrantzia dauka. Denbora kronologikoa laburra eta zehatza denez gero, testuak oso neurtua izan behar du, bere erran-tenpusa galdu ez dezan; hau da, esatariak, komunikatu nahi duen mezuaren zentzuan konzentratu behar du, hitzak egoki esan, inflexioak egin eta ahotsa bere gogora erabiltzeko, berba zurrunbiloetan galdu gabe, tonua egoki zainduz eta entzulearengan irudi positiboa sortuz. Honetarako ez du testuan oztoporik aurkitu behar. Euskal publizitategintzaren arazorik larriena kreatiborik ezarena da, eta ondorioz, itzulpenez baliatu behar izatea, ia inongo kontrolik gabe. Honek erdarazko sormen lanaren morroi egiten gaitu.

Sormen lanean, sarritan jotzen da hitz jokoetara, publizitateak berea bait du joko lizentzia hori, inoiz gramatika arauak ere bortxatuz. Gehienetan hitz joku horiek itzuli ezinak dira. Beraz, edo euskal hitzetan, erdaraz ematen dugu iragarkiaren eslogana, edo bestela beste burubideren bat asmatzea baino ez daukagu, honek dakartzan ondorio guztiekin.

Nire aburutan, ez dago zalantzarik; itzuli ezinezko hitz jokuetan euskarazko iragarkiari beste trataera bat eman beharko litzaioke, eta besterik ezinean, eslogan bikoitza asmatu: bat euskaraz eta beste bat erdaraz. Baina honela, katearen hasierara goaz, sormen lanera. Eta hementxe dago gakoa. Nire ustez, publizitate etxeek sormen lan



horretantxe jabetu behar lukete ea asmatu-riko eslogana erdaraz bezain egingarri ote den euskaraz ere; ea indar eta eragin beretsukoa izan ote litekeen erdaraz nahiz euskaraz. *Por SI DA*, SIDAren kanpainian, erdaraz baliagarri izan litekeen eslogana da, baina ez dago euskaraz jartzetik. Zer esan nahi du honek? Kanpainia osoa erdaraz pentsatua izan dela soil-soilik, eta gero euskaraz ere egin behar denez gero, itzultzaileek asma dezatela konponbiderik gabeko gakoa. Honen irtenbide bakarra itzultzaileek sormen lanean zerikusia eta zeresana izatetik asmatuko litzateke, ondorengo prozesu guztian ere eskua izanik. Gainerako itzulketa lanak ez dira horren arazotsuak, lotsa apur batez, euskararenganako begirunez eta kontrolbide batzuk ezarriz. Esatea gogortxo bada ere, kontrolbide batzuk diot, sarritan akatsak ez direlako ez sormen lanean ez itzulketan egiten, mezua burutu bitarteko beste pausu batzuetan baizik.

Denok ikusi dugu, adibidez, Begoñatiko sarreran *Bilbo agurtzen zaitu* iragarkia. Badakit itzultzaileak ez zuela horrela jarri, *Bilbok* baino. Hala ere, kartelgintzaren ardura zeraman zinegotzi erdaldunari makinatze orduko akatsa edo izango zela otu zitzaion, jakin bazekien *Bilbo* edo *Bilbao* zela Bizkaiko hiriburaren izena, baina inola ere ez *Bilbok*, eta horregatik ezabatu zuen bere ustez alferreko «k» hori. Eta zein da ezjakintasun horren ondorioa? Ba, denok irakurri dugula urteetan esaldi agurgarri hori.

Baina natorren, berriz ere, arazo berezirik ez izan arren, egin ohi diren esaldi ilunak, traketsak, luzeegiak, literarioegiak... hau da, ez-publizitarioak salatzen.

Eskerrak emateko amairik gabeko formula honi erdal kutsua dario bazter guztietatik: *Euskadiko Drogazaletasun Institutioarteko Batzordeak Tabakoaren aurkako Aurre-neurrien Ekitaldien garape-nean emandako interes eta laguntzak komunikabideei eskertzen dizkie.*

Beste esaldi ilun honetan, zer ote da «laztantisuna»: *Ume askok, euren etxera itzultzeko egunerarte hartuko dituen familia batetako laztantisunaren premia daukie?*

Bost hogereleko esaldi borobilak ere trakets dira publizitatean: *Enpresa baldin badaukazu eduki, baina baratuta eta hoberendu nahi baduzu, baina oraintxe bertan, hariak mugitzen jakin behar duzu, hari egokiak, zuzenenak.*

Inoiz, informazio zehatzegiak mezua garrantzitsua ilundu baino ez du egiten hitzen etenik gabeko katean: *Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Bidezaino Artezkaritza*. Badirudi euskara, bidelagun barik, oztopo dugula. Iragarkigintzan oso kontutan hartze-koa da hori, eta batez ere esan beharrekoetan.

Irakurtzean ez bezala, esaterakoan erritmo naturalak zaindu behar dira. Honetan, erranbidea eta idazpidea ez datoz beti bat. Entzuleak berezko denbora bat behar du, entzuten duenez bere buruan irudia sortzeko. Eta honetan, mezua belarritik berez-berez sartzen ez ba-zaio, ulerpidean oztopoak izango ditu eta ez du mezua bere osotasunean bereganatuko. Beraz, denbora kronologikoa ez ezik, erranbidearen denbora naturala ere zaindu beharra dago euskarak duen erranbide jatorraren barruan. Publizitategintzan itzulketa soilak baliagarri da idatziz ematen diren iragarki enunziatiboetan, baina irratietarako kuinetan eta telebistarako espotetan egokitu beharra ere sortzen da.

Jo dezagun, adibidez, asmatuiko mezua eraginkorra eta ondo burutua dela; baina esaterakoan korapilatsua bada entzuterakoan ere traketsa izango da. Hau irratietako kuinei dagokienez.

Esplotetan, hori eta gehiago gertatzen da. Erritmoa eta esangarritasuna zaintzeaz gain, sarritan pantailan agertzen denaren ahotik esan behar dela eta, kasu horietan itzulpen soilak ezer gutxi balio digu, hizkuntza bateko ezpain eraginak ez dira bat etorriko beste hizkuntzako testuarekin eta. Beraz, pantailan ageri denaren erritmora eta aho eraginetara egokitu beharko da euskarazko testua. Hemen ere, espotaren irudiak grabatzerakoan, bateko eta besteko testuak erabakita izanik, grabaketa bikoitza egingo balitz ez legoke egokitu ezineko arazorik. Baina ez dago horrela jokatzeko ohiturarik.

Eta ez dira hemen amaitzen euskarazko publizitategintzaren beharrak eta gabeziak. Iragarki asko eta asko, bertoko erakundeeta-

koak izan arren, kanpoan grabatzen dira, eta norbaitek neure opilari sua ezartzen nabilela uste badu ere, esan beharra eta salatu beharra daukat, ia ok eginda ditudala belarriak hainbeste erdal ahoskera eta inflexio entzuten. Euskararik jakin gabe, euskarazko publizitatea egiten ausartzen denak ez du lotsarik ez profesionaltasun handiegirik erakusten. Nahikoa adar jotze jasan du gure herri xeheak honezkero! Eta hemen ere zorioneko kontrola datorkit gogora. Inoiz kontrol ideologiko zorrotzen aurka agertu banaiz ere, oraingoan euskararen kontrol zorrotzagoen alde azaltzen naiz. Honetan erantzunkizun garbia dute gure komunikabide eta erakundeek. Eta entzule soilok ere ardura bizia hartu behar genuke horrelako astakeriarik egin ez dadin etengabe salatzen. Egoera hau honela mantentzeko ez dago inongo aitzakiarik. Dena dela, espotean arazoan gehixeago sakondu nahi nuke. Espotak dauzka, nire aburutan, eraginkortasunik biziena sortzeko eskuarterik onenak iragarkigintzan: hitza, irudia, erritmoa eta doinua batzen direlako bertan. Entzule-ikuslearen zentzumenik bizienei ikutzen die.

Izan ere, ondo esandako hitzak iraultza bat egiteko adinako indarra dauka; eta hitz hori doinuz eta irudiz jantziz gero, sumendiei ere leher eragiteko besteko eraginkortasuna. Espotetan, beraz, zuhurtasunik handienaz jokatu beharra dago. Hitzak, hemen, irudiaren osagarri izan behar du. Nahi eta ez, elkar egokiturik joan behar dute, doinuaren eta bizitasunaren erritmoan, ahots egoki baten laguntzaz. Esan beharrik ez dago egokitasun osoa eman behar dela: testuak ezin du esataria bizkorregi edo astiroegi esatera behartu; ahoskera jatorra erabili behar da, erdal inflexioek min ematen dute eta; pantailan ezer idatzi denetan, euskaraz behar luke, bestela -sarrisuegitan gertatzen denez- egokitasunaren bidetik irtetea da. Honek begietan min ematen du. Euskaraz entzun eta erdaraz irakurri, espota erdaraz egin denaren ezaugarri; irudiaren jarraipena, erdararen diskurtsora eginda dagoenean, sarritan euskara bortxatu beharra gertatzen da, berezkotasuna galdurik.

Hizkera mailak zeresan handia dauka iragarkigintzan; beti ere norengana zuzentzen garen kontuan izanik.

Zer-nori «saldu» nahi diogun helburuaren bidean, hitz eta esaldi bakoitza ondo neurturik eman behar da:

- Korrektotasun gramatikala, oinarrizkoa izanda ere, ez da dena erabakitzen duena. Ardura honek, sarritan, itzultzailea itsutu egiten du, beste ikuspegi garrantzitsu batzuk ahaztu eraziz.

- Hitz batek izan lezakeen oihartzuna eta erreferentzia berebizi-koak dira mezua desbideratu ez dadin. Adibidez, *denon ondasunak* horrek interpretazio bikoitza dauka entzulearen belarrietan, eta ziur nago gehienek mezuan adierazi nahi ez dena emango lioketela. Euskaraz ulertzeko ez daukagu erdaraz jakin beharrik.

- Hizkelki desberdinetan lekturiko hitzak ere ez lirateke nahastu behar: «eroan» aditzak Bizkaia aldean dauka oihartzuna, eta «utzi» aditzak Bizkaitik kanpo. Beraz, esaldi berean ez lirateke nahastu behar. Eta hau ez da batuaren edota ez-batuaren kontua. Ez dauka horrekin inongo zerikusirik.

- Euskararen erabilera mailak ere ez dira ahaztu behar; jatortasunik handieneko esamoldeak ulergaitz gerta litezke giro batzuetan, edota erdal kopia garbikoak, zentzubako, beste batzuetan. Adibidez, euskaldun berrientzat «baserritarkeria» izan liteke *Alde ederra dago* edo *Ez dago alde makala* esatea; ohituraz euskaraz bizi denarentzat, ordea, *Urliak diferentzia markatzen du* entzutea berrikeria antzua baino ez da. Batak eta besteak oihartzun guztiz desberdinak dituzte. Saltzailearentzat aukera egitea oso erraza da: bata erdal merkatu handira egokitzen da, euskal-gurako jantzitan; bestea, berriz, merkatu txikikoa da, jatortasuna gora-behera.

Labur bilduz esateko; iragarkigintzako katea luze honetan, kate-begi guztiak zaindu behar dira arretarik argienaz: sormen lanetik hasi eta iragartzen den tarte guztian, itzul-egokipena eta grabaketa barne direla, euskaraz saltzeko gaitasuna lortu nahi badugu.

Azken oharra: jarritako adibideetan norbaitek bere eskua eta burua ikusiko balu, jakin beza ez dudala mozteko asmoz egin.

## SINTESIS

### El euskera y la publicidad

Este artículo hace algunas reflexiones sobre la utilización cualitativa de la lengua vasca en la publicidad. El autor comienza resaltando el hecho de que actualmente el euskara que aparece en la publicidad pasa siempre por un proceso de traducción, y no de creación directa. Y como la publicidad se basa en juegos de palabras y recursos estilísticos que sólo tienen sentido en una determinada lengua, en nuestro caso el castellano, los mensajes en euskara suelen ser en muchas ocasiones inadecuados. La única solución, según el articulista, sería que hubiera técnicos publicitarios capaces de crear un mensaje diferente en cada lengua, cada uno con su propia lógica lingüística y atendiendo a sus propios recursos estilísticos. Pero, lamentablemente según el autor, a veces incluso se encargan campañas publicitarias a empresas de fuera del País Vasco, que llegan a utilizar personas no vascohablantes para poner voz a los mensajes orales, de manera que suelen darse incluso errores de pronunciación realmente evidentes.

Aparte de esta clase de publicidad, empleada generalmente en los medios de comunicación, el artículo también se extiende sobre otros tipos de mensajes bilingües que realizan las instituciones públicas, que suelen estar igualmente pensados en castellano, y que aparecen en euskara por medio de la traducción. Pero, además, en este caso suelen intervenir también más personas en el proceso, con lo cual a menudo sucede que el texto en euskara llega a aparecer incluso con errores de ortografía. Sin embargo, el autor del artículo resalta nuevamente que muchos mensajes de este tipo suelen ser incorrectos debido precisamente a ser traducciones de frases pensadas en otro idioma, las cuales, aun siendo correctas gramaticalmente, carecen de sentido en lengua vasca. La única solución posible para este caso es igualmente la creación directa en euskara de este tipo de rotulaciones o de mensajes, teniendo en cuenta los recursos de todo tipo existentes en la lengua vasca, así como la función que deben tener los mensajes que se realizan, para quién están dirigidos, etc. De esta manera, concluye el autor, no será preciso saber castellano para poder entender los textos realizados en euskara.

## SYNTHESIS

### *Basque language and advertising*

*This article contains some reflections on the qualitative use of the Basque language in advertising. The author begins by highlighting the fact that at present the texts which appear in advertising are always translated from Basque and is not prepared directly in that language. Besides, as the wording in publicity is often*

*based on plays on words and stylistic resources which only have meaning in a specific language—in our case, Spanish—the messages are not adequately expressed in Basque. The only solution, according to the writer of the article, would be to create advertising techniques capable of conceiving a different message in each language, each with their own linguistic logic and taking into account their own stylistic resources. But unfortunately, according to the author, sometimes even companies outside the Basque Country are commissioned to prepare advertising campaigns and use non Basque-speakers for the oral messages so that there are often obvious cases of incorrect pronunciation.*

*Apart from this type of publicity, used generally in the mass media, the article also covers other types of bilingual messages from public institutions which are also conceived in Spanish and which are translated into Basque. But in this case more people are involved in the process, and therefore it often happens that there are even spelling errors in the text in Basque. Nevertheless, the author of the article points out once more that many messages of this type are often incorrect due precisely to the fact that they are translations of phrases thought out in another language, which, in spite of being grammatically correct have no meaning in Basque. The only possible solution for this problem is also the direct creation of this type of caption or message in Basque, taking into account all the resources which are available in the Basque language, as well as the function which the messages created must have for those they are directed at, etc. In this way, the author concludes, it will not be necessary to speak Spanish to be able to understand texts written in Basque.*

## Poesi itzulpena kultur testuinguruaren koordinadetan

Sarka Grauová

Prahako Karlos Unibertsitatea

Guztien jakinekoa da obra baten itzulpena ez dela obra beraren baliokide, “harunzko bide” soil baizik (Ortega y Gasset), eta obra bakar batek hamaika itzultze-bariante sor ditzakeela, oso bestelakoak eta aldi berean, ordea, guztiz legezkoak. Itzultzailearen nortasunaren osaketan parte hartzen duten zenbait faktore subjektibo eta objektiboren arteko taldelanaren ondorio dira bariante-interpretapenon izaera eta kontzepzioa. Objektiboen artean itzulpenaren kultur testuingurua gailentzen da, hau da, itzulpena (linguistikoki zehaztutako artefakto gisa), batipat “literatur tradizioarekin”, “orainaldiaren hizkuntza praktikoarekin” eta “bilatzen den literatur joerarekin”<sup>1</sup> daukan harremanak zehaztua, kokaturik dagoeneko testuingurua.

Nozio hau itzulpen artistiko orori aplikatu badakioke, neurri are handiago batean aplikatu dakieke poesi obren itzulpenei. Izan ere, poesia *par excellence* literatur fenomeno da, hizkuntzaren berezko ezaugarri guztiak erabiltzen dituen hitzezko diskurtsoa, ezaugarriok,

(1) Jakobson.

besteak beste, hauexek direlarik: komunikazio soilera jotzen duten ezaugarriak, asoziazio eta konnotazioak sortzeko (eta, honela, ustegabeko izate kolektibo baten adierazpen bihurtzeko) gaitasuna, bere burua isladatzeko aukera birtuala, kualitate fonetiko eta fonologikoak, etab.

Poesi testu baten koherentzia formala, hizkuntz materialarekiko morrontza sakona eta jatorrizko hizkuntzaren herriaren kultur nortasunarekiko barneko lotura direla kausa, poesiaren itzulpenek hainbat liskar eta sesio pizten dituzte, burutuak izateko posibilitatea hala nola beren legezketasuna kolokan jarriak izan ohi dira, eta batzutan baita mespretxatuak ere. Haatik, hortixek dator, aldi berean, halako itzulpenek nazio "txikien" literaturan luzaro erdiets dezaketen leku pribilegiatua. Nazioon kultur subiranotasuna bilakaera historiko inmanentearen ondorio baino berariazko ahalegin batzuren fruitu baita.

"Itzulpena, obra gisa, erreprodukzio artistikoa da; itzulpena, prozesu gisa, sortze orijinala", idatzi zuen 1960.eko hamarkadaren hasieran Jiri Levy-k, itzulpen artistikoaren teoria txekiarraren klasiakoak, itzultze-ekintza bere alferrikotasun eta etsipen osoan aipatuz. Armaden kontra burukatuta nahirik artaldeari oldartzen zaion On Kixote entusiasta baten antzera agertzen da hor itzultzailea, Artista baten debozioaz (helburu guztiz borgestarrekin) aintzinatik existitzen den zerbaiten kopia sortzen duen gizonaren antzera. Horrexegatik al zuten hain gustukoa poesi testuaren itzulgintza "buditel" ('iratzartzaile') direlakoek<sup>2</sup>, boteretsuek aspaldidanik desagertzera kondenatutako nazioaren kultur tradizioak berpiztu nahiz?

Guzei honetaz bai itzultzaileek, bai teorikoek beren buruari egiten dioten ohizko galderetako bat haxe da, poesi itzulpena sorburu-hizkuntzaren literatur historiari dagokion (obra orijinalaren interpretapen berezi gisa) ala xede-hizkuntzarenari (poesiaren edo prosaren

---

(2) Buditel ('iratzartzailea'). Txekiar "buditel" edo iratzartzailea herriz herri ibiltzen zen, txekierazko liburuak banatzen, antzerkia eta txotxongilo-ikuskizunak taularatzen, eta herria letargiatik iratzarrit.



birmoldaketa librearekin konparagarria den bigarren mailako literatur obra gisa), ala kategoria subiranoa, apartekoa, ote den. Haatik, galdera honen erantzuna, nik uste, ez da (ezta ezin izan) unibertsala, zeren poesi itzulpenak herri eta garaiaren kultur testuinguruan betetzen duen tokiarekin estu-estu loturik egoten baita.

Gauregungo poesi itzulpen txekiarra, dudarik gabe, gertuago dago bigarren bariantearekin, horren zergatia aipaturiko "poesi tradizioa" zehazten laguntzen duen nazio historian aurki daitekeelarik. Plataforma hustarra<sup>3</sup>, hau da, mugimendu erreformistaren bariante txekiarra, defendatu zuten estamentu txekiarrek 1620an Mendi Zurian bentzutuak izatean, eta txekiar noblezia eta apezteria protestantea (hau da, txekiar hizkuntzako biztanlego alfabetizatuaren parte handia) masiboki erbesteratutakoan, alemaniera bilakatu zen txekiar lurraldearen hizkuntza ofizial: Habsburgotarren aldeko noblezia kokatu berriaren eta kontrarreformari hasiera eman zion apezteria katolikoaren hizkuntza honek berrehun urtez baino gehiagoz mantendu zuen ofizialtasun hori. Txekierak, gehienbat herriko jende heziketagearen hizkuntza mintzatua izaten segitzen zuen. Literatur hizkuntza bezala, ordea, bere iraupenari betirako kaltea egin zitzaion. Azkenik, nazio berpizkundea etorri zen, arrazionalismo ilustratuaren eta geroko nazio autodeterminazioaren desira erromantikoaren fruitu gisa, txekiarrek ondoko premiak nabaritu zituztelarik: iraganaren tradizio idatzia berrasi eta berpiztu, eta inguruko munduari eta beren buruari zera erakustea, txekiera herri auzokoen hizkuntzekin pareka zitekeela, batipat han-hemenka inposatzen zen alemanierarekin.

---

(3) Jan Hus (1369-1415) erreformatzaile txekiarren aldekoak ziren "hustarrek". Husek, 1396tik Prahako Unibertsitatearen filosofia irakaslea izan zenak, Wicief-en eskribuen eraginpean, gogor eraso zion apezteriaren eta Aita Sainduaren ustelkeriari. Unibertsitatearen zuzendaritzak, gehienbat alemandarrez osatuak, Wicief-en 75 proposapen zentsuratu zituenean, txekiar gutxiengoak Husekin bat egin zuen, gatazkak kutsu politiko eta abertzalea harturik. 1410ean eta 1412an eskumikatu izatean, Kontzilioari protesta egin zion. Bere eritziei inola ere muzinik egin ez eta Konstantzako Kontzilioak sutara kondenatu zuen. Baina bere heriotzak ez zuen hustarren gatazkaren bukaera ekarri, baizik eta, aitzitik, gerra zibila.

Nazio kontzientziaren hartze honetan eginbehar garrantzitsua bete zuen poesi itzulgintzak.

Izan ere, poesi itzulgintza, txekiar poesiaren etorkizuneko orientabidearen bilaketan parte hartzen hasi zen, "bilatzen den joera poetiko" haren ko-egile kontzientea izatera helduz; sarritan, itzulgintzaren esparruko lorpen aparteko batek txekiar neurtitzaren bilakaerari eragin zion urte luzeetan. Honela, poesi itzulpenek, nazioaren heldutasun linguistikoaren kontzientzia bultzatzeaz gain, txekiar neurtitzari buruzko teoria berrien bidez kotasuna justifikatzen zuten, bi alderditan laguntza ederra eskainiz: poesi belaunaldiak espresio berri bat aurkitzera bultzatzen, eta txekieran munduko poesia berrienaren emaitzak sartzen. Honela, hizkuntza, ordurarte ezezagunak zitzaizkion fenomenoak bereganatzen beharturik sentitzen zen. Ez da kasuañithea hainbat poeta eta nobelagile txekiar (Karel Capek, Vitezslav Nezval, Jaroslav Seifert, Vladimír Holan, eta, berriagoen artean, Jiri Kolár edo Miroslav Holub) aldi berean ospe handiko itzultzaileak ere izatea. Egoera hau gerra denboraren eta iaz arte iraundako gerraostearen ondorio dira, garai hartan idazle askori bere obra argitaratzea debekatu baitzitzaion. Halatan, itzulpenek neurri batean poeta eta irakurle goaren arteko kontaktua ordezkatzen zuten, poetak, muga politikoak kontutan hartzeke, garaiko aurpegiaren bere aztarna uzteko zuen posibilitate eskasetako bat bihurtzen zirelarik.

Kultura minoritarioetan edo literatur tradizio eteneko kulturetan, poesi itzulgintza bertako literaturaren osagai bilaka daiteke edo halakoxe mezenas aberats (eta ustelgaitz)-aren paper ordeztzina egin ere, bertako kultura ederragotuz eta aldi berean profitatuz.

Merezi du poesi itzulgintzaren testuinguruko loturak haren itxura formalean nola isladatzen diren ikusteak, eta halaber nola forma, bere aldetik, prosodiari buruzko hausnarketa teorikoekin estu-estu loturik dagoen.

Poesi tradizio indartsu eta etengabea izan duten herrietan (Inglaterra, Frantzia...) bertako sorlanak izaten dira, jakina, poesi ondarik

bortitzenak irradiatzen dituen fokoa; poesi itzulgintzak (bertako poesi sorlanei kopuru aldetik aurre egiten ote dien kontutan hartzeke), gehienez, aberastu egin ditzake onda horiek, baina inoiz ere ez zeharo itxuraldatu. Gauzen nondik-norako naturalak emandako balore-hierarkia hau helburuen ikuspegi orokorrean isladatzen da, hala nola, ararteko gisa, poesi itzulgintzaren forma eta kalitatearen itxuran.

Sorlanak, ongi zaindutako lorategiko landaretzaren antzera loratzen diren giroan, poesi itzulgintza, logikoki, halako apaingarri bat besterik ez da, helburu nagusi bat duena: ama hizkuntzaren hesiaren atzeko florari buruzko informazio mota zehatz bat arartekotzea. Berezkoa zaion “apaingarritasun” honetatik bere bi funtsezko ezau-garri ondorioztatzen dira:

1. Bertako poesi ereduekiko morrontza formala.

2. Aldez aurreko etsipena, poesi testu bat ahalik eta fidelkien itzuli nahi denean. Frantzian, esaterako, hizkuntza arrotzetako neurtitzak prosa poetikoaren bidez itzultzeko ohitura hartu zuen, eta Espainiako itzultzaileek ez dute eskema prosodikoak, errima edo asonantzia gorde beharra sentitzen. Mota horretako itzulpenen hizkuntzak, “deformatze”-ezaugarri zinbrikiak eta poesi hizkerari berezkoak zaizkion “elementu exotikoak” baino ez ditu erakusten, testuaren “poesiatasun” desiratua lexikoaren edo neurriz kanpoko irudimena-ren bidez lortu ohi delarik.

Bitxia da nola poemaren itxura formala aintzakotzat ez hartze honek (muturreko kasuetan forma prosodiko mugagabe eta, hala ere, izenburuan “sonetoak”, “rondeaux” etab. deituetara daramanak) nolabaiteko laguntza jasotzen duen poesiaren kontzepzio semantikoak direlakoetatik. Beraien arabera, poesia, batipat, edukinak zehaztutako kategoria bat da, “irekitzen den subjektoaren adierazpena” (Massaud Moisés), “egiazko bizitzan izan ohi duen formak arartekotutako edukin psikikoaren ezagutza” (Carlos Bousoño), alderdi formalak, adierazten dituzten kalitate semantikoaren aldean, zokoratuak eta bigarren mailakotzat hartuak direlarik.

Karlos Cid Abasolok itzulia

## SINTESIS

### **La traducción de la poesía en las coordenadas del contexto cultural**

El presente artículo trata sobre la traducción poética vista desde las coordenadas del contexto cultural. El autor, de la Universidad Karlos de Praga, parte del principio de que en la composición de la personalidad del traductor interviene una serie de factores objetivos y subjetivos que necesariamente influye en la traducción. Entre los factores objetivos destaca el contexto cultural de la traducción, definida en su relación con la tradición literaria, el lenguaje práctico contemporáneo y la tendencia literaria pretendida.

El autor aplica esta idea a la traducción poética, poniendo como ejemplo el caso de Checoslovaquia, aunque, a su parecer, dicha idea podría ser válida igualmente con el idioma de cualquier otra nación "pequeña". Así, en el caso checoslovaco, la traducción poética contemporánea está más condicionada por la historia literaria de dicho país que por la historia literaria del propio idioma original. Como explicación de este hecho, alude a acontecimientos históricos que en Checoslovaquia llevaron a partir de 1620 a la supremacía oficial del idioma alemán durante varios siglos. Con el resurgir nacional, los checoslovacos se vieron en la necesidad de reiniciar y resucitar su antigua tradición escrita, y en ello desempeñó un papel muy destacado la traducción poética.

Según el autor del artículo, la traducción poética no deja de ser un adorno o un complemento de la literatura de creación en los países de fuerte e ininterrumpida tradición literaria. En cambio, en culturas minoritarias o en países con tradición truncada, la traducción poética puede llegar a convertirse en un componente más de la propia literatura.

## SYNTHESIS

### ***The translation of poetry from the perspective of cultural context***

*This article deals with the translation of poetry from the perspective of the cultural context of a country. The author, from the University of Prague, bases his argument on the principle that there are a series of objective and subjective factors in the personality of a translator which have an influence on his work. Among these objective factors, the cultural context of the translation is of special importance, defined in relation to the literary tradition, practical contemporary language and tendencies in literature.*

*The author applies this idea to the translation of poetry, and as an example, cites the case of Czechoslovakia, although he believes that this idea could be valid for the*

language of any other "small" nation. Thus, in the case of Czechoslovakia, the translation of contemporary poetry is more conditioned by the literary history of that country than by the literary history of the original language itself. In order to explain this fact, he alludes to historical events which in 1620 led to German becoming the official language in Czechoslovakia for several centuries. With the resurgence of nationalism, the Czechs were obliged to revive their old written tradition and the translation of poetry played an outstanding part.

According to the author of the article, the translation of poetry is no more than an adornment or complement to the creative literature of countries with a strong and uninterrupted literary tradition. On the other hand, in minority cultures or in countries with a truncated tradition, the translation of poetry can become just one more component of literature itself.



## «Aliceren Abenturak Lurralde Miresgarrian» liburuaren itzulpena dela eta, ohar batzu

Manu López Gaseni

### 1. Sarrera

*Alice's Adventures in Wonderland* euskaratzeko ideia duela bi urte pasa sortu zen, eta urte t'erdi pasa da gauzatzen hasi zenetik. Egia esan, nire lehenengo asmoa *Through the Looking Glass* itzultzea zen, gehiago erakartzen ninduelako, baina arrazoi batzu izan zirela eta, Xabier Etxanizen aholkua tartean, hasieratik hasi behar zen, eta premiak lehenengo obra ekartzea eskatzen omen zuen. Bila aritu ondoren, azkenik lortu nuen jatorrizko edizio bat (liburu biak biltzen dituen, hain zuzen), eta bestelako lan batzuek astia utzi zidatenean itzultzeari ekin nion. Beranduago, hiru kapitulu edo euskaratuta neuzkala Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat jaso nuen eta horrek, noski, kemena eraberritu zidan lanarekin aurrera jotzeko. Esperientzia zirraragarria izan dela aitortu behar dut, eta horren berri emateko helburuz hasiko naiz historia piska bat egiten.

Orain, liburuak izen berri bat dauka euskaraz, *Aliceren Abenturak Lurralde Miresgarrian*, eta ahal dela izen hori erabiliz aipatuko dugu. Liburuaren egilea, jakina denez, Lewis Carroll

ezizenez ezagutzen dugun Ch. L. Dogson jaun apezka (1832-1892) izan zen, eta liburua 1865. urtean argitaratu zen lehen aldiz.

## 2. Zer da *Alice in Wonderland*?

Baina, zer da *Aliceren Abenturak Lurralde Miresgarrian* hau? Egia esan, era guztietako saiakerak idatzi dira liburu honen gainean, eta ez ditugu hemen deskubrituko. Laburbilduz, esan dezagun hasteko haur liburu bat dela, Alice Liddell neska idatzitakoa hain justu ere, ibaian zehar egindako txango batean kondatu zionaren bertsio idatzia eta borobildua; horregatik, ez da oso ondo ulertzen zer esan nahi duen Anjel Lertxundik jatorriz helduentzat idatzia izan zela dioenean:

«Eta sarritan baino sarriagotan nahiz egileak jende helduentzat idatzi, haurrak bere egiten du literaturaren historian zehar agertzen den zenbait obra. Carroll Lewis-ek ez zuen haurrentzat idatzi bere «Alizia»...» (*Haur literaturaz*, Iturriaga Saila. Erein)

Normalean, *Gulliverren bidaiak*, edo Lertxundik berak geroago aipatzen duen *Moby Dick* izaten dira horren eredutzat jarri ohi direnak.

Bigarrenez, tituluari bertan azaltzen denez, abentura liburua da: ametsaren baliabide ezaguna dela medio, Lurralde Miresgarrian sartzen da Alice, dena aldrebestuta dagoen eroen mundu batean, eta han gorabehera ugari gertatzen zaio.

Gainera, Lurralde horretan aurkitzen dituen pertsonaia gehienak animaliak dira, alegi egileen tradizioari jarraikiz; beste talde handi bat poker karta pakete batek osatzen du, eta gizaseme bakar bat dago: Sonbreirugilea.

Baina pertsonaia hauek antropomorfoak dira, gure mendeko marrazki bizidun ezagunenetan bezalatsu, eta hortaz kontzeptzio mota horren aintzindarizat hartua izan da Carroll, onerako zein txarrerako; eta alderdi hau aipatu dugunez gero, aitortu egin behar da bestalde zeregin horretan erantzunkizun handia izan duela



John Tenniel-ek, jatorrizko edizioari marrazkiak (grabatuak, hobe esanda) jarri zizkion gizonak. Grabatu haiek gorputz bakar bat osatzen dute testuarekin batera, eta gainontzeko edizio garrantzitsu guztien prestatzaileek hala ulertu dute.

Beste ezaugarri bat, hau beharbada gure ikuspuntutik zailen antzematen dena, idatzia izan zen garaiko zenbait elementuren parodiatzea da, hala nola garaiko nesken heziketa arrazionalista, poema batzuren aldrebesketak, bere gizarteko pertsonaia paradigmatico batzu, eta abar.

Azkenik, inportantea da azpimarratzea liburu hau ez zela idatzi, gure uste apalez, irakurtzeko, ozenki kondatua izateko baizik. Gure tesitxoak bermatzera datozen datuak oso adierazgarriak dira: sintaxi sinplea, esaldi koordinatu ugari eta inguru narratibo minimoa elkarrizketaren nagusitasunaren aurrean. Adibide bat jar dezagun:

Bihotzetako Erregea eta Erregina beren tronoan eserita zeuden haiek iritsi zirenean, inguruan jendetza handia zeukatela: era guztietako txoritxo eta piztitxoak, eta baita karta pakete osoa ere; Xota haien aurrean zegoen, kateaturik, alde bakoitzean soldadu bat begira zeukala; eta Erregearen ondoan Untxi Zuria zegoen, esku batean tronpeta bat eta pergamu erroilu bat bestean. Aretoaren erdi-erdian mahai bat zegoen, eta honen gainean tartaz betetako azpil handi bat; oso itxura ona zeukaten, eta Alicerengan gose handia eragin zuten ikusi eta berehala: «epaiketa bertan behera utzi», pentsatzen zuen, «eta hamaiketakoarekin hasi nahi nuke!». Baina horretarako aukera handirik ez zegoela zirudien, eta beraz bere inguruko guztiari begiratzen hasi zitzaion denbora pasatzeko.

### 3. Euskal bertsiok

Pasa gaitezen orain ikustera zein den Alicek euskal munduan daukan tradizioa. Alde batetik, bada komiki baterako egindako bertsiok bat, Satrustegik moldatua eta Etorkizuna/Abadía de Montserrat argitaletxeak publikatua. Baina agian ezagunena

1979an Hordagok bere «Tximista» sailean ateratako *Alizia Herrialde Harrigarrian* izenekoa da, nahiz eta zoritxarrez itzultzailearen izena ez den zehazten.

Liburuxka hau bertasio laburtu bat da, seguruena gazteleratik ekarria. Jatorrizko bertasioaren poema gehienak ezabatuak izan dira, eta hamaika kapitulutan geratu da. Hala ere, liburuak izan zuen bere funtzionaltasuna «Tximista» bildumaren barruan, eta ondo moldaturiko euskaraz itzulia dago, nahiz eta huts nabariren bat edo beste izan (esaterako, *Grifo* hitzerako, hau da, 'alegiatzko animalia, erdia arrano eta beste erdia lehoia' *iturri* aukeratzea).

#### 4. Bertasio berriaren aldaerak

Guk ekarritako bertasioa, aldiz, osoa da, lehen edizioko testua eta bigarrenean gaineraturiko zenbait gauzatxo bilduz, eta goian aipatutako tradizio urri hori zertxobaitean apurtzera dator.

Lehenengo eta behin, titulua. Kontzienteki egindako aukera batzu aldentzen dira tradizio horretatik: hasteko, protagonistaren izena bere horretan utzi da, «Alice», alde batetik jatorrizko izena errespetatu behar delakoan gaudelako, eta gainera ez dugulako uste gaurregungo haurrek aparteko problemarik izango dutenik hitz hori behar den bezala ahoskatzeko. Gero, «Abenturak» hitza ere tartekatu da, honetan ere jatorrizkoari segituz; hitz hau, gaztelaniazko itzulpenean ezik, sartu egin da Europako bertasio inportanteenetan: alemaneraz, *Alice's Abenteuer im Wunderland*; italieraz, *Le Avventure d'Alice nel Paese Meraviglie*; frantsesez, *Les Aventures d'Alice au Pays des Merveilles*. Eta azkenik, «Herrialde Harrigarria»ren ordez «Lurralde Miresgarria» proposatu dugu, izen hori egokiagoa iruditzen zaigu, eta moldatzea ohitura kontua delakoan.

Berrikuntza guzti hauen artean problematikoena, dudarik gabe, protagonistaren izenarena da, batez ere deklinabide kasuekin erabiltzen denean. Honetaz ezer erabakirik ez dagoenez, homogeneoagoa iruditu zaigu jatorriz arau fonetikoaren dena grafiari apli-

katzea; hortaz, «Alice» hitzaren azken grafema bokalikoa denez, aintzat hartu dugu deklinabidearekin jokatzean: *Alicek*, *Aliceri*, *Aliceren*, eta abar. Hau, noski, arazo ortografikoa besterik ez da, eta irakurtzean [álisi, álisen] eta horrela irakurri beharko dira.

## 5. Itzulpen arazoak

Orain saiatuko gara liburuaen zeharreko gainontzeko arazoak aztertzen.

### 5.1. Maila fonikoa

Maila honetako arazo nagusiak hitz jokuak dira. Hauetariko batzu itzuliezinak dira. Adibidez: '*Do cats eat bats? Do cats eat bats?*' and sometimes, '*Do bats eat cats?*' (1. kap.).

Beste batzutan, itzulpena nahiko errez ateratzen da:

'I had *not!*' cried the Mouse, sharply and very angrily.  
'A knot!' said Alice always ready to make herself useful,...

— *Astakiloa!* —oihu egin zuen Saguak, lazki eta oso asaldaturik.  
— *Korapiloa!* —esan zuen Alicek beti laguntzeko prest...

Eta askotan erdibide bat hartu behar izan dut: «*A Caucus-Race and a Long Tail*» (3. kapituluaren titulua), euskaraz ez da «buztana» eta «ipuina» batera adierazten duen hitzik, eta hortaz aukeratu dudana titulua «Batzorde-Lasterketa eta Buztan-Ipuin Luzea».

Beste kasu bat: seigarren kapituluaren amaieran Cheshire Katuak zera galdetzen dio Aliceri: *Did you say pig, or fig?*, eta aukeratutako itzulpena hauxe da: *Esan duzu zerria ala zorria?*, baina noski, honek hautaketa lexiko bat suposatzen du, eta testu osoan zehar «zerri» agertuko da, eta inoiz ez «txerri».

Baina, dudarik gabe, alde honetatik zailtasun gehien eskaintzen duen kapitulua bederatzigarrena da. Bertan, Dorotoka Faltsuak azaltzen die Alice eta Grifoari nolako heziketa jaso zuen itsaspean, baina hitz egiten ari dela, hitzen soinetan aldaketa txiki batzu eginez erabateko aldaketak lortzen ditu esanahi aldetik. Hona zati bat:

'What was [the regular course]?' inquired Alice.

'Reeling and Writhing, or course, to begin with', the Mock Turtle replied; 'and then the different branches of Arithmetic - Ambition, Distraction, Uglification, and Derision'.

- Zer zen hori [ohizko ikasturtea itsaspean]? —galdetu zuen Alicek.

- Irakutzen eta irazten, noski, hasteko —erantzun zuen Dortoka Faltsuak—: eta gero Aritmetikaren adar desberdinak... Behiketa, Konketa, Ederketa eta Sariketa.

Ikusten denez, zerbait galtzen da euskal bertsoan, ohitura faltagatik edo, alegia.

## 5.2. Maila morfosintaktikoa

Jadanik aipatuta dago goian testu honek daukan koordinaziorako joera; horrezaz gain ez da problema handirik izan maila honetan, ez bada euskara eta ingelesera orohar hartuta bereizten dituzten ezaugarriak. Horien artean aipatu beharko litzateke euskararen izaera aglutinantea eta horrek suposatzen duen eragozpena jatorrizko testuko kurtsibaz aldatzeko, esaterako. Jakina denez, testu horrek badu hitz ugari kurtsibaz agertzen dena, horien gainean atentzioa deitzeko edo. Adibide batzu:

What *will* become of me? / Zer *izango* da nitaz? (4. kap.)

Oh, don't bother *me* / O, ez *nazazu* nazkatu (6. kap.)

Beste alde batetik, jeneroaren arazoa daukagu. Teoriaz euskarak ez du jenero gramatikalik, baina hiztunen buruan badirudi jeneroak garrantzia baduela beste arlo batzuetan. Esaterako, animalien pertsonifikazioak egiten direnean, zein da beren jeneroa? Adibide bat:

(Alice Beld+arrarekin ari da hizketan)

I can't explain *myself*, I'm afraid, sir.

Ezin *naiz* esplikatu, sentitzen dut, **jauna**.

Beraz, jatorrian bezala itzuli dut, gaztelaniaz (gure erreferenterik hurbilenaz) **andrea** litzatekeela jakin arren.

### 5.3. Maila semantikoa

Maila honetan kokatu beharko litzateke hautaketa lexikoa; bat aipatu dugu lehenago: «zerri» jarri beharra «zorri»-rekiko hots kidetasunagatik; baina badira gehiago; «zerri» hori hasieran haur bat balitz bezala ari da kulunkatzen, baina geroago jakingo dugu «zerri» bat zela, eta beraz aipatzen den bakoitzean «haur» esan beharrean «ume» esan behar izan da.

Beste kasu bat aipatzearren, liburuko pertsonaia batzu naieko kartak dira, eta horietariko batek, «The Knave», tratamendu berezi bat jaso du. Guztien artean aukeratu dena «Xota» izan da, era horretara bigarren irakurketa bat egiteko aukera emanez: noski, hau [xóta] irakurri behar da, pokerreko kartei dagokienez, baina [sóta] irakurriko duenik ere ez da faltako, eta horrek ezagunago dugun naipera hurbilduko du irakurlea.

Aipatuko dugun azkeneko kasua 10. kapituluaren dago. Horren titulua, ingelesez «The Lobster Quadrille» izan da, hau da, «Otarrairenen kontradantza»; baina kapitulu berean agertzen den Tennielen grabatuari begiratuta konturatuko gara ez dela otarrain bat, abakando bat baizik, orriken antzeko hankek erakusten dutenez. Orduan nori kaso egin, egileari ala marrazkigileari? Nere erizpidea izan da marrazkigileari jarraitzea, testuaren ondoan grabatu hori joango den aldetik.

### 5.4. Maila pragmatikoa

Maila honetan aipatuko ditugu eskakizun komunikatiboak eta lojika nahastetik Carrollek ateratzen dituen joku ugariak; hauek ez dute zailtasun handirik eskaintzen itzultzeko orduan:

— Zer esan nahi duzu horrekin? — esan zuen Beldarrak gogorki—.  
Esplika zaituzte!

— Ezin naiz esplikatuz, sentitzen dut, jauna — esan zuen Alicek —, ni ez naizelako neu, ikusten duzunez.

— Nik ez dut ezer ikusten — esan zuen Beldarrak. (5. kapitulu)

(Alice Dukesarekin ari da)

- ...Badakizu lurak hogeita lau ordu ematen dituela bere buruaren inguruan jirutzen...
- Buruaz hitz egiten ari dela —esan zuen Dukesak—, burua moztu iezaiozue! (6. kapitulua)

Edo hainbeste eta hainbestetan aipatutako adibide famatua:

- Esango zenidake, mesedez, norantz jo beharko nukéen hemendik joateko?
- Hori, noraino iritsi nahi duzunaren arabera dago neurri handi batean —esan zuen Katuak.
- Ez du axola handirik nora... —esan zuen Alicek.
- Orduan berdin duzu zein bidetatik joan —esan zuen Katuak.
- ...*norabait* iritsiz gero —gaineratu zuen Alicek argibide modura.
- O, ziur lortuko duzula —esan zuen Katuak— nahikoa ibiltzen bazara soilik. (6. kapitulua)

Beste bat:

- Hartu te piska bat gehiago —esan zuen Martxoko Erbiak oso seriocki.
- Oraindik ez dut ezer hartu —erantzun zuen Alicek mindu doinuaz—, beraz ezin dut gehiago hartu.
- Esan nahiko duzu ezin duzula *gutxiago* hartu —esan zuen Sonbreirugileak—; oso erraza da ezer baino *gehiago* hartzea. (7. kapitulua)

Eta asko eta askoz gehiago luza zitekeen zerrenda.

## 6. Amaitzeko

Konklusio bezala, eta bukatzeko, haur literaturaren klasiko honen edizio berri hau haur ala helduentzako den galdera planteia liteke, eta erantzuna ez da argigarria izango: guztientzat. Haurrentzat, beti sentituko dutelako halako xarma berezi bat neska lojiko eta era berean inozo horren aurrean; helduentzat, ongi idatzitako haur liburu bat literaturaren historiara inolako adjektiborik gabe pasatzen delako, benetako literatura delako, alegia.

Bi mutur horien artean problematxo bat sortu zait edizioari azken ukituak egiteko orduan: merezi al du liburua itzultzailearen oharrez betetzeak? Berriz ere, bai eta ez. Ez, horrelako oharrek astunegi bihurtzen dutelako liburua; bai, euskal irakurleagoa ezin delako utzi liburu garrantzitsu hau ulertzeko beharrezko diren hainbat klaberik gabe. Beraz, erdiko bidea berriz ere: oharrak bai, baina behar-beharrezkoak bakarrik.

Eta amaitzeko, beti bezala, irakurlearena da azken hitza, nire azalpen luzeegi hau irakurtzeko pazientzia izan badu behintzat.

## SINTESIS

En este artículo, Manu López habla sobre su traducción al euskara de *Las aventuras de Alicia en el País de las Maravillas*, del autor inglés Lewis Carroll. En primer lugar hace una pequeña presentación de la obra original, ofreciendo algunos datos al respecto. Luego comenta las traducciones que de esta obra se han realizado anteriormente al euskara, señalando algunas diferencias existentes entre ellas.

Al presentar su propia traducción, Manu López comienza diciendo que su versión viene en cierta medida a romper la pequeña tradición formada por las anteriores traducciones vascas de este libro, ya que en su versión introduce una serie de variantes que afectan, incluso, al propio título.

Pero la parte más importante del artículo está dedicada a las dificultades que entraña la traducción de una obra como ésta, en la que el propio lenguaje constituye un campo de juego, tanto en su aspecto fónico, como morfosintáctico, semántico y pragmático. Ello en ocasiones obliga al traductor a echar mano de notas explicativas, que pueden llegar a hacer excesivamente fatigosa la lectura; en este caso, López dice que ha intentado conseguir un término medio, sin privar al lector de las referencias necesarias, pero tampoco sin llenar el libro de notas.

Como conclusión del artículo, el autor recalca que éste no es un libro meramente infantil, ni tampoco exclusivamente para adultos, como algunos han sostenido.

## **SYNTHESIS**

*In this article, Manu López speaks about his translation into Basque of The adventures of Alice in wonderland, by the English writer Lewis Carroll. Firstly, he gives a short presentation of the original work and provides some background information on it. Afterwards, he comments on previous translations into Basque, and points out the differences which exist between them.*

*On introducing his own translation, Manu López begins by saying that his version breaks to some degree the small tradition created by previous Basque translators of this book, as his version presents a series of variations which affect even the title itself.*

*But the most important part of the article covers the difficulties involved in the translation of a work of this type, in which the language itself represents a field of play, in its phonic, morphosyntactic, semantic and pragmatic aspects. On occasions, this forces the translator to make use of explanatory notes which can become excessively tiresome for the reader; in this case, López says that he has tried to find a happy medium, without depriving the reader of the necessary references, but on the other hand has endeavoured not to fill the book with notes.*

*The author concludes his article by emphasising that this book is not a mere children's story, nor is it exclusively for adults, as some have argued.*



## **Itzultzaile profesionalentzako azterketa profesionalak (\*)**

J.C. Sager

### **Laburpena**

Elkargo profesionalak beren izatea eta zeregin publikoa elkarte-kideen lanaren kalitatea kontrolatu eta ziurtatu ahal izateari zor diote. Ondorioz, beren lanbidearen maila altxatu nahi duten itzultzaile-interpretarien elkarte guztien kide izateko azterketak jarri beharko lirateke.

Elkargo profesional bateko kidesun osoa eskuratzeko azterketa KOALIFIKATZAILEAK maila bakarra izan beharko luke eta gaitasun profesional osoa aitortu, bizpahiru urtez itzultzaile edo interpretari «hasi-berri» gisa ihardun ondoren.

Azterketak zenbait zati izan ditzake, banaka hartzeko modukoak eta errepikatuerrazak.

---

(\*) Artikulu hau Babel aldizkarian argitaratu zen (Babel, 1990, 36.1:58-61, Fédération Internationale des Traducteurs, Amsterdam). Argitaratzailearen baimenez euskaratu eta argitaratua.

Itzultzaileentzako azterketak, jakina, ahal bezain praktikoa izan beharko luke: kontrolpeko baldintza jakinetan itzultzea; interpreta-rientzat, berriz, talde aditu batek interpretazio saio zuzen edo grabatutakoa ebaluatzea izan daiteke.

Azterketa hauek piskanaka ezarri behar dira urte anitzen buruan, lanbide horretako kide gazteenetatik hasita.

Dena dela, elkartekide izateko beste hautabide bat ere zabalik utzi beharra dago, ebaluaketa-erizpide garbiak erabiltzerik dagoen profesionalentzat: adibidez, liburuen itzultzaileak, eta batez ere esperien-zia eta lanbide luzea duten itzultzaile nahiz interpretariak.

### **Azterketak egin beharra**

#### *Arrazoi orokorrak*

Elkargo profesional ororen erantzukizuna da bere kideak onartze-ko erizpideak arautzea. Oro har, eginkizun hori izangaiaren akre-ditazioa aztertuta, jendea koalifikazio, lan eta esperientziaren arabera onartuz egin ohi da. Jokabide hau egokia izan daiteke lanbide honetan esperientzia frogatua duten kideak onartzeko, baina ezer gutxi lagun dezake itzultzaile nahiz interpretari gazteak hautatzeko.

Azterketa profesionalak lanbide jakin baten aitormenik gorena dira. Zenbait urtetako lanbide iharduera frogatuan oinarritutako sis-tema aski izan daiteke elkartearen muina osatzeko, baina ez du ez lankide gazterik elkarteratzeko eragiten ez eta koalifikazio osoa eskuratu ahal izateko laguntzarik ere eskaintzen.

Elkargo profesional ororen zereginetarik nagusienetako bat lan-bidearen standard batzuk jartzea da. Eginkizun hori askoz ere hobeto beteko du elkarte horrek ordezkatzan duen lanbidearen lan-kalitateaz eritzia osatu nahi duten itzultzaile edo bestelakoek miratzeko modu-ko azterketak baditu.

Beren azterketa propioak edo, behintzat, kanpoko azterketen emai-tzen balidazioak egiten dituzten bestelako elkargo profesionalak ez dute begiramen haundirik izango kide berrien onarpenerako halako sistema zehatzik ez duen elkartearikiko.

Elkarteko bazkideek lankideen artean lan-kalitatearen standard argi eta garbia dagoela jakin nahi izaten dute. Azterketak faboritismo edo nepotismorik ez dela frogatzeko biderik garbiena dira. Elkartekide izateko eskabidea egina dutenek sentitu nahi izango lukete azterketa gainditzeak itzulpentxotan dihardutenetatik bereizten dituela koalitatiboki nahiz publikoki.

Itzultzaile eta interpretariak beren lanbidearen aferetan aitzindari izan behar badute, eta lankideen ordezkari publiko gisa jokatu, hautapen aski zorrotza dutela erakutsi behar dute.

#### *Arrazoi bereziak*

Ez dago lehenetsunezko bide bakarra itzultzaile edo interpretari izateko; baina ez dago ezta ere elkarteak beretzat hartzeko inolako koalifikazio edo erizpide kanpotarrik.

a) Unibertsitate edo eskola politeknikoetan egun itzulpengintza edo interpretaritzan diren azterketak alde askotan ez dira egokiak:

- graduatu aurreko ikasturteetan oso maila apaleko azterketak egiten dira eta, berez, ez dira profesionalak;
- graduatu ondoko kalifikazioak (diploma nahiz masterra izan) ez du alde aurreko esperientzia praktikoa profesionalik eskatzen, ez eta ikastaldiaren zati garrantzikorik esperientzia praktikoa gisa izan denik ziurtatzen ere; ondorioz gerta daiteke azterketaren maila gorputz profesional batentzat egokia ez izatea;
- halako ikasketetan itzulpengintza nahiz interpretaritzarako trebakuntza orokorra irakatsi ohi da, bietarako batera, ez batean ez bestean standard profesionalik lortu gabe;
- batetik bestera gora-behera haundiak egon ohi dira ikastaldioak gainditzeko behar den koalifikazio mailan.

(Bestalde, elkarte batek gidatutako azterketa profesionalak etorkizuneko itzultzaile nahiz interpretarien trebakuntzaren eskakizuna zorrotzen lagun dezakete, trebakuntzaren urrats bakoitzean behar den kalitate-mailaren neurria eskainiz.)

b) Itzultzaile eta interpretari asko lanbide honetara zeharbidetik iritsi izanak erakusten du ez dagoela trebakuntza eredu bakarrik eta unibertsitate nahiz politeknikoak ezin litezkeela mota guztietako itzultzaile edo interpretarien iturri izan. Itzultzaile eta interpretari hauek elkartera jotzen dute azterketa bidez erreferentziatzako eredu gisa har litezkeen standard profesionalen bila, beren jomuga finkatu eta aldi berean nork bere lorpenak neurtzeko.

Elkarte batek nolabaiteko azterketa egin beharrak saihestu ezinezko hiru alderdi hauek ditu:

- hizkuntza askotan ez dago itzultzaile edo interpretarientzako inolako azterkuntza publikorik;
- interes nabarmena dago elkarte jakin baten xede hizkuntzazko azterketa profesionalen aitortpena eskuratu ahal izateko, eta hori elkarte horrek beste inork ezin lezake egin; adibidez, zer egin dezakete beste herrialdeetan frantseserat itzultzen diharduten itzultzaileek, beren lana Frantzia profesionalki onargarri den mailaren pareko dela frogatu nahi badute?
- badira zenbait gai edo trebetasun elkarte batek baizik arautu eta profesionalki kreditatu ezin dituenak.

Nazioarteko itzulpen merkatuan gero eta itzultzaile gehiago dira edo atzeritarrak edo atzerrian ari direnak. Hauek elkarte batetara jo ohi dute beren trebetasunak abalatzeko. Zaila da halako kideak onartzea kredentzial hutsetan oinarrituta, edota hala egin ondoren itzaropen guztiak betetzea.

Azterketarik ez izateak arazo sakon asko sortzen ditu:

a) Aurkeztutako lanaren balorazioaren araberako onarpenak ez du ziurtasun haundirik eskaintzen elkartekide izateko bide standard gisa:

- ez dago behin ere ziur jakiterik aurkeztutako lana jatorriz aurkezlearena ote den;
- ez dago zalantza gabeko ziurtasunik lan hori zein baldintzetan eginga ote den;

- alor jakin batzuetan zail gerta daiteke aurkeztutako lana baloratu ahal izateko aholkulari adituak aurkitzea;
- bada itzultzailearik arrazoi asko dela medio (isilpekotasuna, egile eskubideak besterekin erdibana izatea, argitalpen baldintzak) bere lan asko aurkeztu ere ezin duenik, nahiz gaitasun haundikoa izan. Itzultzaile hauei ez litzaieke kide izateko aterik itxi behar.

b) Aurkeztutako lanaren sendotasunean oinarriturik eskabide bat ez onartzeko erabakia ia atzeraezinezkoa da. Eskatzaileak berak hautatutako itzulpen lan profesionalen arabera inori ezezkoa eman baldin bazaio, oso zail izango du ostera ere bere lana aurkeztea bigarren aldiz. Esperientzia luzeko pertsona baldin bada, argi dago ezezko hori behin-betikoa dela, baina itzultzaile gazte batek agian bere eskabidea goizegi besterik ez du egin. Baldintza horretan, ezezkoak bere lan «profesionala» maila kaskarrekoa dela adieraziko dio. Azterketa ez gaingitzeak, berriz, ez du halako ondorioz, eta batek lasai asko egin lezake bigarren aldiz ere.

### **Nolako azterketak**

Azterketak elkarte baten kide izatera iristeko bide izango dira. Dena dela, bide honekin batera egon litezke bestelako erizpideak ere kide izatera iristeko.

Azterketok kidesun osoa eskuratzeko biderik azkarrena izan beharko lukete. Era berean, gaitasun osoko profesionalaren aitormena eskuratu izanak berez duen mesedea irabazi nahi luketen itzultzaile nahiz interpretari gazteentzat moldaerrazak izan behar lukete. Ondorioz, kidesun osoa lortzeko bestelako bideek azterketaren bide honekin oso loturik egon beharko dute.

Itzultzaileentzako azterketak ahal bezain praktikoa izan beharko luke. Gutxienez bi zati berezi izan beharko lituzke: bata orokorra, irakurgaiaren aldetik, alor zabaleko gaietarako; bestea berezia, gai jakin batzuetatik itzultzaileak bat aukeratu ahal izan dezan. Itzultzaileak nahi hainbat gai berezitara aurkezteko aukera izango luke, bere espezialitate-maila frogatu ahal izan dezan.

Azterketa-mahaiak erabaki beharko luke azterketarako zein gai berezi onartuko duen, bigarren zati berezien kopurua arrazoizko mugetan egon dadin. Hirugarren espezialitate-maila ere sar daiteke aurkeztutako lanen aitormenaren bitartez, baina ez dirudi oso aukera erabilgarria denik.

### **Mamikuntza**

Osaturik dagoen elkarte batean azterketa sistema ezarri nahi bada iraganbideren bat behar da. Aldi horretan malgutasunez jokatu behar da elkarteak bildu nahi dituen adin talde eta esperientzi maila guztiak moldatzeko.

Adin guztietako kideen ordezkaritza orekatua izateko, azterketak adin-taldeka sartu beharko liriateke. Jakina, azterketarik ez izatea adin-talde bat edo besteren kaltetan ez izateko moduan egin behar da. Era berean, jokabide honek esperientzia luzeko itzultzaile arrakastaduna aztertu beharreko zama kentzen dio elkarteari. Nolabaiteko erizpidea ondoko arau gisako honetan eman daiteke:

Azterketak itzultzaile hauentzat izango dira:

- a) – esperientzia profesional luzea (adibidez, 10 urte) eta lanak aurkeztea,
  - pareko esperientzia interpretarientzat,
  - itzulitako liburu kopuru jakin bat eta kritika onak liburu-itzultzaileentzat.
- b) – 2-3 urtetako esperientzia eta azterketa.

Hautabide hauetan itzultzaile gazteek azterketa aukeratuko dute beren gaitasun profesionala frogatzeko; itzultzaile zaharragoak, berriz, beren esperientziaren sendotasunaren oinarrituta izan daitezke onartuak. Aurkeztutako lanetan zalantzarik sortzen baldin bada, eskatzaile zaharragoei azterketaren zati bat egitea ere eska dakieke.

### **Ondorioa**

Azterketak lanbidean sartu nahi duenaren oinarrizko gaitasun beharra ezartzen du eta alde askotatik ikusita oinarrizko gaitasun

horren neurketa besterik ez da. Hau oso garrantzizkoa da itzultzaile eta interpretarientzat, jende asko bait dago itzuli edo interpretatzeko gauza dela uste duena. Azterketak uste hori ustela dela erakutsiko die, eta horrenbestez amateur eta profesionalaren arteko bereizketa ezartzen du.

Elkarte batentzat garrantzizkoa da bere babarrunak itzultzen edo interpretatzen irabazten dituen benetako profesionala, elkartean egotea komeni den amateur gaitua eta itzultzeko gai dela uste duen ausarta, hirurak, ondo bereiztea. Azterketak laguntza haundia eman-  
go luke erreferentzia onak edo, areago, itzulpen onak bereak bailiran pasatzeko gauza den inkompetentea kanpoan uzteko.

Gotzon Egiak itzulia

*Egileari buruz:*

J.C. Sager irakaslea Manchester Institute of Science and Technology-ko Unibertsitateko Hizkuntza eta Hizkuntzalaritza Departamentuko buru da. Departamentua makina bidezko itzulpenaren ikerketan nahiz terminologian dago espezializatua, eta graduatutako ikasle asko dauzka itzulpengintzaren zenbait alderditan lanean. Egilea Institute of Translation and Interpreting-eko lehendakari izan da 1985etik 1990a bitartean.

Helbidea: c.o. UMIST, P.O. Box 88, Manchester M60 1QD. United Kingdom.

## SINTESIS

### **Exámenes profesionales para traductores profesionales**

Este artículo, traducido al euskara y publicado con permiso de la dirección de la revista internacional de traducción Babel, fue publicado en dicha revista en 1990, en el número 36:1.

Según el autor, la existencia de las asociaciones profesionales se justifica en función de su labor de control y de garantía del trabajo realizado por sus miembros. Debido a ello, propugna la necesidad de que las asociaciones de traductores e intérpretes que pretendan poseer un buen nivel profesional entre sus miembros establezcan algún tipo de examen a los candidatos a formar parte de dichas asociaciones.

Un examen de cualificación de este tipo debería contar con un único nivel, y otorgar una capacitación profesional completa para todo traductor o intérprete después de un período de prueba de dos o tres años.

Dicho examen, lógicamente, debería ser práctico, y consistiría en traducir en determinadas condiciones controladas; en el caso de los intérpretes, consistiría en evaluar una grabación realizada por el candidato.

El autor aboga porque estos exámenes se introduzcan gradualmente, empezando por los miembros más jóvenes de la profesión. Ello no significa, sin embargo, que se deban dejar de lado otros criterios de cualificación para grupos específicos de traductores, tales como traductores de libros, y especialmente para traductores e intérpretes con amplia experiencia profesional.

## SYNTHESIS

### ***Professional examinations for professional translators***

*This article, translated into Basque and published by permission of the management of the Babel International Journal of Translation, was published in that magazine in 1990, issue number 36:1.*

*According to the author, the existence of professional associations is justified due to the efforts they make to control and guarantee the work of their members. Due to this, he proposes the need for associations of translators and interpreters who set*



*out to require a high professional level among their members to establish some type of examination for candidates who wish to join these associations.*

*A qualifying examination of this type should consist of a single level and give a complete professional qualification for all translators or interpreters after a trial period of from two to three years.*

*This examination, logically, should be practical, and would consist of translating under specific controlled conditions; in the case of interpreters, it would consist of assessing a recording made by the candidate.*

*The author advises that these examinations be introduced gradually, beginning with the youngest members of the profession. This does not mean, however, that other qualification criteria should be ignored in the case of specific groups of translators, such as translators of books, and especially for translators and*



**PUNTUZ PUNTU**



## **Andoni Sarriegiren eskariari erantzunez**

Anjel Lobera

Kaixo lagun:

“Aparteko zailtasunak” izenpean, SENEZ aldizkariaren 1989. urteko 1-2 ale bikoitzean argitaratu huen artikulua irakurri bezain laster, hiri erantzuteko gogo bizia biztu zitzaidaan, nik neuk ere nahi baino sarriago horrelako “bitxi bereziak” topatu ditiat eta.

Aztertu beharreko testuaren hitzaurrean, lortutako itzulpenarekin ia inoiz ere ez haizela gustora gelditzen aitortu huen. Neuk ere aitortu behar gauza bera.

Ondoren, nik uste, gaur egun Administrazioan lan egiten dugun itzultzaileon egoera orokorra azaleratu huen, itzulpena “presa eta baldintza jakin batzuetan egin behar izan” huela esaneran. Zorixarrez, inoiz gutxitan azpimarratzen dik arazo hau, jakina izan arren ardura gabe konpondu nahi ez edo ezin dena. Geure burua zuritzen dihardugula egotziko ziguk batek baino gehiagok eta arrazoia dutela aitortu beharra diaukat, bai eta, ostera, gaur egun burutzen dugun “txurrogintza” hau inork kontrolatu nahi ez duela ere (honetarako dirua jarri beharra bait diagok).

1990eko uztail beroerre honetan irakurri diat hire artikulua eta hizkuntz arazo hauei, administrazioetako itzultzaileoi sortzen zaizkigunei, alegia, guk geuk erantzun behar diegula inoiz baino argiago ikusi diat.

Hitzaspertu hau jaurti ondoren, bertan botako diadan azterketa hik nahi bezain zehatza izango delakoan, itzulpen horren azterketari helduko zioat:

*A) Testuaren kokapen eta argitarakera:*

Heure artikuluan aipatu izan ez bahuen ere, niretzat, erabat garrantzitsua da testu hori bere inguruan kokatzea, jende guztiak jakin dezan non duen sustraia eta nor duen hartzaile. Oker ez banago, neuk ere aktak itzuli behar izan ditudalako eta hik Beasaingo Udaletxean lan egiten duala badakidalako, testu hau Beasaingo Udalaren aktaren batetik atera duk. Kokapen hau funtsezkoa duk, testuaren hedapena finkatzeko. Alde batetik, testu teknikoa da, baina, bestetik, jendeari heltzen zaiona ere bada. Beraz hartzailegoa zinegotziek ezezik, beasaindarrek ere osatzen diate. Aipamen hau hik aipatu "...Herritarren ulermen-ahalmena" eta honi lotuta dagoen testuaren erabilgarritasuna kontutan hartu nahi ditudalako egin diat. Alderdi honen gainean, beranduago etorriko nauk.

Bestetik, argitarakerak ere badik bere garrantzia, ez baita berdin testu biak elkarren ondoan argitaratzea edo bata bestearen atzetik agertzea. Jakina, testu biak elkarren ondoan agertzen direnean, itxurak nolabait gorde beharra diagok, testu batak bestearekiko hankamotz eman ez dezan. Kontuz! Ondo uleriez dak! Ez diat itxurak berebiziko garrantzirik duenik adierazi nahi, bai, oster, honelakoetan, eskarmentuak hala irakatsita, kontuz ibili beharra dagoela. Testuak, berriz, bata bestearen atzetik agertuz gero, nire ustez, askatasun handiagoa diaukagu euskal testua borobiltzeko.

*B) Hiztegi arazoak:*

Alderdi honetatik, besteak beste eta eritziak eritzi, badiaudek termino batzu aztertu beharrekoak: *acordar* (eta familia honetako

*acuerdo*), *adoptar*, *interponer* (eta familia berekoa den *interposición*) eta *razón social*.

a) *Acuerdo* eta *acordar*. - Nire ustez, ez duk hitz familia hau zuzen itzuli: "*se acuerda*"-ren ordain gisa, "*akordatzen da*" jarri duk, "*contra el acuerdo adoptado por el Consejo de Diputados*"-en ordain gisa, "*Diputatu-Kontseiluak... onartutako akordioaren aurka*" eta "*contra el acuerdo adoptado por el expresado Consejo de Diputados*"-en ordain gisa, "*aipatu Diputatu-Kontseiluak... onartutako akordioaren aurka*".

*Diccionario de la lengua española*ren hogeigarren argitaraldiko 1. liburukian, 21. orrialdean, *acordar* hitzaren esanahi ezberdinak agertzen dira. Berauen artean, bi azpimarratuko ditiat, izan ere, guri dagozkigunak:

1. tr. determinar o resolver de común acuerdo, o por mayoría de votos. 4. conciliar, componer.

Hauexek dituk guri agertzen zaizkigun esanahiak neurri handi batetan eta, nire ustez, euskaraz *acordar* eta *acuerdo* hitzek bina ordain behar diate. Honelaxe uste dik UZEIk ere, Zuzenbidea/2 hiztegian, 422. orrialdean, honela bait diakarrek:

*acordar* (adostasunera iritsi): akordatu;

*acordar* (xedatu): erabaki;

bestalde, 423. orrialdean, substantiboari dagokionez, honako hau irakurtzen diagu:

*acuerdo* (adostasuna): akordio, *acuerdo* (xedapena): erabaki.

Hemen aztertzen dihardudan testuan, DRAEk aipatzen duen lehen esanahia eta, hortaz, xedapenaren kutsua ezin argiagoa duk nire ustez. Beraz, *akordatu*-ren ordez, *erabaki* eta *akordioa*-ren ordez, *erabakia* jarri beharra diagok.

b) *Adoptar*. - Lehen jarri ditudan adibideetan ikus daitekeenez, hik *onartu* erabiltzen duk haren ordain gisa. Bazirudik hobeto

legokeela UZEIk lehen ere aipatu dudan hiztegian, 425. orrialdean, proposatzen duen *hartu* hori (neurriak, erabakiak, etab.). Isladatik badatorkigu ere, *aprobar*-en ordain gisa *onartu* aditza erabiltzeak azaltzen didan arazo nagusia azalduko diat: Aurten ARCEPAFE-EFAPEBAA (Euskadiko Foru Administrazioiko Pertsonalaren Enplegu Baldintzak Arautzen dituen Akordioa) Bizkaiko Foru Aldundiak aplikatu nahi izan zuenean, honako erabaki hau hartu zian: "Aprobar la aceptación del ARCEPAFE para...". Honexegatik, beharbada, behin eta berriro aipatutako hiztegi horretan, UZEIk *aceptar*-en ordain gisa, *onartu* proposatzen dik eta *aprobar*-en ordain gisa, *onetsi* eta *baietsi*.

c) *Interponer* eta *interposición*.- Hitz hauek sorterazten didaten arazoa bestelakoa duk. Ez diat uste inolako arazorik dugunik hik erabiltzen duan ordaina ulertzeko. Nire kezka, esan bezala, bestelakoa duk, honako hau, alegia: kalkoa erabili beharra ote diagok? Zuzenbidea/2 hiztegian honelaxe proposatzen bide diate, beste bide baten ondoan:

interponer: tarteratu, tartejarri;

eta interposición: tartejartze.

agertzen zaizkiguk eta. Nik neuk ere urte askotan erabiltzen izan ditiat biak. Hala ere, ez ote duk nahikoa *jarri* eta *jartze* ordainak edo berauen baliokideak erabiltzea? Galdera hiri ezezik, honako hau irakurtzen duten guztiei egozten zieat.

Ondoren, aurrekoari lotuta, Administrazioan esapide arrunt-arrunta dena ekarriko diat gogora: "*Interponer recurso de reposición ante el Diputado de Cultura*" ospetsua. Honen ordain gisa, sarritan "*Kulturako Diputatuaren aurrean birjarpen errekurtsua tartejartzea*" ematen dik. Ez diat gomutan non topatu dudan bitxi berezi hau baina ez diat uste, zoritxarrez, gaitza denik berau topatzen edozein aldizkari ofizialetan. Erdal esapide egin honen euskal ordaina ote duk hori? Ez diat uste, euskaraz "...ren aurrean" erabiltzea egokia denik, oso irudi fisikoa ematen bait dik; datiboa erabiltzeari egokiago zeritzoat, hala nola, "Kulturako Foru



Diputatuari”. Bestalde, tartejartzea zerbait(en) tartean jartzea denez gero, gorago aipatutako “euskal ordain” horretan dagoen elipsia interpretatuz, ez ote genikek “*Kulturako Diputatuaren aurrean birjarpen errekurtsua tartean jartzea*” irakurri beharko? Ondorio gisa, honako hau atera diaitekek: ez diagok itzulpen txarragorik hitzez-hitzezkoa baino.

Arazo honen gainean, azkenik, beste arazo bat ere aipatu beharra diagok: erabilera maiztasunarena, gure esparrutik kanpo inoiz gutxitan erabilia izateaz gainera, oso eragin urria izan bait dik.

d) *Razón social*.- Hik, ordain gisa, *izen sozialdun enpresa* darabilk eta ez diat oker dagoenik uste. Hala ere, ez ote duk berdina eta, joskeraren aldetik, malguagoa *sozietate* ordaina? “*razón social Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A. (CAF)*” irakurri beharrea, “*sociedad Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A. (CAF)*” irakurtzen bada, berdin diola ematen dik. Beraz, nik *sozietate* ordaina aukeratuko nitek.

### C) Euskal ordainaren joskera.

Atal honetan, berriz, arazorik latzena euskal ordainaren joskeran datzala azaleratu nahi diat; gomutagarri gisa, nik aktetan egindako saio eta itzulpenak aldean ditudala, hik ematen diguan itzulpen horren antzekoak edo berdinak direla aitortu beharra diat, hots, joskeraren aldetik ere, hitzez-hitzezko itzulpena agertzen zaidak. Eta hemen diagok koska: euskal ordaina erdal testuaren argitan zelan edo halan uler diaitekek. Erdal testuaren argitan, alajaina! Euskaldunak ezin bait diezakek euskal ordaina bakarrik irakurriz gauza handirik uler. Gero eta behin, euskal ordainari begiratuta, nork onartzen dik zer eta nork jartzen dik errekurtsua? Ez diagok argi. Gaiztoena, nik uste, euskal itzulpena hitzez-hitzezkoa izanagatik, euskaraz erdarazko testuan agertzen den mezua ematen ez dela duk.

Beraz, teknolektoa den ginoan, euskaraz eman behar ditugun testuentzat joskeraren aldetiko autonomia eskatzen diat, euskara hutsez irakurriko badiagu. Mugak, joskerari dagozkionez, mezua zuzen emate horretan diautzak. Honelako “bitxi bereziak” euskaraz

eman behar ditugunean, itzultzailea izan beharrean, "idazle" izan behar diagu, gure lana alferrikakoa izan ez dadin.

Zeintzu dituk, beraz, nire ustez, hik emandako testuan zuzendu behar diren akatsak? Hona hemen, bada:

1) Erdal testuaren egitura orokorrari larregi lotu hatzaio. SENEZ aldizkariaren 1989ko 1-2 ale bikoitzeko 188. orrialdean, erdal testuak 24 lerro ditik punturik agertu gabe, bai eta euskal ordainak 23 ere, puntuak agertzen ez direlarik.

2) Erdal testuko esaldien arteko loturei dagokienez, berdin. Honen ondorioz, erdal testuan orpoz orpo agertzen diren segmentuak euskaraz barreiatuak gelditzen dituk, hala nola, "...*el acuerdo adoptado por el Consejo de Diputados...*" erdal testuko 4 eta 5. lerroetan agertzen diren bitartean, euskaraz "...*Diputatu-Kontseiluak... onartutako akordioaren...*" irakurtzeko 5. lerrotik 16. eraino joan behar gaituk.

3) Aipamenek euren esangura galtzen diate, ez dakigularik nor den errekurtsogilea, zer den errekurtsogaia, etab. Honela, "*Udal honek*" (2. lerroan), "*Diputatu-Kontseiluak*" (5.ean), "*Udal honek*" (7.ean) "*aipatu Diputatu-Kontseiluak*" (18 eta 19.ean).

4) Mezua barreiatu eta galdu egiten duk. Azken-azkenean agertzen duk errekurtsoa jartzen dela. Bestetik, hainbeste errekurtso eta erabaki bitarteko izan eta testuan agertzen diren lokarriak direla bide, nahasketa galanta dela aitortu beharra diagok.

Akats horiek konpondu nahian, bada, hona hemen, nire proposamena:

Hasieran, testua hiru zatitan banatuko diat, lehen zatia, "*interponer*"-etik "*7 de diciembre de 1988*"-raino, bigarrena, "*resolutorio*"-tik "*17 de diciembre de 1985*"-raino eta hirugarrena, "*sobre*"-tik amaieraraino.

Bestalde, zati bakoitzean beste banaketa bat egin beharra diagok testua oso-osorik xehekatzeko; lehenengoan zati bi diaudek:

1) *"Interponer recurso contencioso-administrativo"*.

2) *"...contra el acuerdo adoptado por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Guipúzcoa en sesión celebrada el día 7 de diciembre de 1988..."*.

Bigarreanean, berriz, beste zati bi antzematen ditiat:

1) *"...resolutorio del recurso de reposición interpuesto por este Ayuntamiento mediante escrito de 6 de mayo de 1986"*.

2) *"...contra el acuerdo adoptado por el expresado Consejo de Diputados en sesión celebrada el día 17 de diciembre de 1985..."*.

Azken zatian, berriz, arazoa korapilotsuagoa duk, erdaraz erabiltzen den joskera bihurria dela bide. Hala ere, nik honako segmentu hauek bereziko ditiat:

1) *"...sobre el derecho a participar y a la asignación de cuotas y recargos a este Ayuntamiento y a los de Lazkao y Ordizia en las cuotas tributarias..."*.

2) *"...que por el concepto de Impuesto de la Licencia Fiscal de Actividades Comerciales e Industriales abone la razón social «Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A. (CAF)»"*.

Ageri denez, azken zati honetan badiaudek bestelako zailtasunak eta horiexek izango dituk geroago sakonago aztertu nahi ditudanak. Dena dela, horri ekin aurretik, badiagu lokarrien arazoa, berauek eragozten bait diate neurri handi batetan testu osoa. Lokarri horiek, "resolutorio de" eta "sobre", hurrenez hurren, 7 eta 14. lerroetan diaudek. Beraiei esker lortu diate bitxi berezi bezain luze hau.

Ondoren, zati bakoitzaren euskal ordaina ematen ahaleginduko nauk, loturak eta berauei dagozkien deklinabideko kasu markak gerorako utziaz. Honela, bada, lehen zatian:

1) *"Administraziozko liskarrauzi-errekurtsoa jarri..."*

2) *"...Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 1988ko abenduaren 7an egindako bilkuran hartutako erabakiaren aurka..."*

Bigarren zatian:

1) "...Udal honek 1986ko maiatzaren 6ko idazki baten bidez jarritako birjarpenezko errekurtsioa **ebatzi zuena**", (beltzeko hau behin behinekoz gelditu bedi).

2) "*Diputatuen Kontseilu horrek 1985eko abenduaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiaren aurka...*"

Azken zatian, berriz, lana neketsuagoa duk, batez ere lehen segmentuari dagokionez. Lehen lana, nire ustez, erdal zati hori berriaztea litzateke. Nik honako hau proposatzen diat:

1) "*...sobre el derecho que este Ayuntamiento y los de Lazkao y Ordizia tienen a participar y a que se les asignen las cuotas y recargos en las cuotas tributarias...*". Honela, nire ustez, euskarari begira, malgutasun handiagoa lortu daigu. Euskal ordaina honako hau litzateke: "*...Udal honek eta Lazkao eta Ordiziakoak zerga kuotetan parte hartu eta berauetako kuota eta errekariguak esleitzeko duten eskubideari buruz...*"

2) "*...«Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A. (CAF)» sozietateak Merkatal eta Industri Ihardueren Lizentzia Fiskalaren Zergarengatik ordaintzen dituen...*"

Laburbilduz, hiru zati nagusi horiek euskal testua bestela albintzen errazten ziguete. Eta hauxe duk nik nahi dudana, euskal ordaina erdararen parekoa izan dadin, parekoa, jakina, ulertze eta erabilerari gagozkielarik. Aurrera baino lehen, gauza bat argi eta garbi utzi nahi diat. Lehen aipatu diadan joskeraren aldetiko autonomiari terminologiarekiko begirune osoa erantzen zioat.

Amaitzeko, gaitzerdi!, hona dioak nire proposamena. Hitzak hitz, joskerari begira eginda diagok.

... ondorengo erabaki da:

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 1985eko abenduaren 17an egindako bilkuran erabaki bat hartu zuen, «Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A. (CAF)»

sozietateak Merkatal eta Industri Ihardueren Lizentzia Fiskalaren Zergarengatik ordaintzen dituen zerga kuotetan Beasain, Lazkao eta Ordiziako Udalek parte hartu eta beraietako kuota eta errekareruak esleitzeko duten eskubideari buruz. Erabaki horren aurka, Udal honek 1986ko maiatzaren 6ko idazki baten bidez birjarpenezko errekurtsua jarri zuen eta Diputatuen Kontseilu horrek 1988ko abenduaren 7an egindako bilkuran errekurtsu hori ebazteko erabakia hartu zuen. Beraz, azken erabaki honen aurka administraziozko liskarrauzi-errekurtsua jarriko da.

Badiakiat erdal testuaren egitura alde batera utzi dudala. Badiakiat, beharbada, kondaira kutsua izan dezakeela. Dena dela, testua logikoa dela uste diat eta hasieran hartutako erabakitik azkenean jarri den errekurtsoraino doan haria barrenloturazkoa duk.

Nik ekarritakoa gure eremu latz honen osagai askotarikoa izango delakoan eta laster elkar ikusiko dugulakoan, agur beroa.

Bilbon, 1990eko abuztuaren 29an.



## **Katalanaren zinpeko interpretariak**

Josep Peñarroja Fa

Zinpeko interpretariak ez dute beren lanbidearen historiarik. Legeetan ageri den leheneño aipamena 1843koa dugu. Urte hartako erret-agindu baten arabera itzulpena, izaera ofizialez, Madrileko Hizkuntzen arteko Interpretaritzarako Idazkaritzan egin zitekeen, eta baita estatu osoan ere, zinpeko interpretariak eginez gero.

Jakin badakigu mende honetako hogeigarren urteetan katalanaren zinpeko interpretariak bazirela. Guregana iritsi den lehenengo errolda hogeitamargarren urteetakoa dugu. Garai horretan Espainian ziren 76 interpretariatatik 8 katalanetik itzultzeko gaituta zeuden. Gerrate zibilak hutsaren hurrengo bilakatu zuen katalanaren zinpeko interpretarien errolda. Gerratearen ondoren, berriz, hizkuntzak zapaltzera bideratutako politikaren gorabeherak jasan zituen. Horrela, nahiz eta formalki ez ziren azterketak debekatu, garai hartako arauak gobernadoreak interpretariaren beharrari buruzko informea ematea eska-tzen zuten. Gobernadoreek uko egiten zioten behar hori aitortzeari, beharra begibistakoa izan arren; izan ere, kontutan hartzekoa da diktadurak berak ere ez zuela deuseztatu kataluniarren zuzenbide zibila, zein guztiz egoera aktiboan mantendu bait zen, testamentuei

eta ezkontzei zegozkienetan; berariazko kontratu figurak zituen, eta agiri ugari sortzen zen, beraz, katalanez.

Berrogeitamargarren urteetan berriro onartu ziren izangaiak, baina gobernadoreek kontsentitu egingo zuten ihesbide bat erabiliz: azterketarako eskabidea zein hizkuntzatarako zen adierazi gabe egiten zen, Ministeritzarekiko harreman zuzenean zehazten zelarik hori, gerorago.

Gaurregun 178 dira Bartzelonako Gobernu Zibilean inskribatuta dauden katalanaren zinpeko interpretariak; horiei, Kataluniako gainetarako alderdietan eta Balentzian eta Balearretan dihardutenak gehitu behar zaizkie. Azken bi komunitate hauei dagokienez, aipagarri da Hizkuntzen arteko Interpretaritzarako Bulegoa, zeinen menpe bait daude interpretariak, aldendu egin dela gobernu zentralak defendatzen zuen eritzitik, hau da, balentziera eta Balearretako katalana hizkuntza desberdintzat jotzetik. Azterketa bakarra dago katalanera-ko, eta bertan Kataluniako bi dialektotako testoak ager daitezke (ekialdeko zein mendebaldeko dialektokoak).

1984ean Kataluniako parlamentuak aho batez onartu zuen legez besteko proposamen bat; katalanaren zinpeko interpretaritzaren eta itzulpengintzaren alorreko eskuduntza efektiboa izan zedin estatuko gobernuari beharrezko ziren zerbitzuak Generalitatearen esku utzitzan erreklamatzeari ekin ziezaion eskatu zitzaion Kataluniako gobernuari -bi urte lehenago zuen egina hori Eusko Jaurlaritzak-. Zinpeko itzultzailearen figura arautu nahi zuen Euskararen Erabilpena Normaltzeko Oinarrizko Legearen 12. artikulua Konstituzioaren kontraketat deklaratu zuen Epaitegi Konstituzionalaren sententziak galerazi egin zuen zinpeko interpretarien menpekotasuna aldatzea, aurrerantzean ere gobernu zentralako Hizkuntzen arteko Interpretaritzarako Bulegoari atxikirik egon beharko dutelarik.

Gaur egun zinpeko interpretariak burutzen duen lanari gagozkio-larik, esan beharra dago bere figura ezezaguna izateaz gain ez dagoela dituen konpetentziak argi eta garbi zehazten dituen araurik. Zinpeko interpretarien itzulpenek izaera ofiziala izango dutela dio legeak; ez du adierazten, ordea, noiz dagoen itzulpen ofizialen beharra.



Bere eguneroko lanean, arlo askotatik irits dakizkioke zinpeko interpretariari eskariak; arlo hauek bereiz ditzakegu:

- Agiri judizialen itzulpena, eta bereziki prozedura zibiletatik, penaletatik, eklesiastikoetatik, polizioletatik eta abarretatik sortzen diren agirien itzulpena; esate baterako, erreguzko komisioak, ezkontza-baliogabetze, dibortzio edo banaketa sententzien ejekuzioak, adinez nagusi ez direnak seme-alabatzat hartzeak eta bestelako ebazpenak.
- Jatorri ofiziala duten agiriak, baina izaera administratiboa dutenak nolabait: egoera zibilari buruzko ziurtagiriak, ikasketei buruzko ziurtagiriak, medikuen ziurtagiriak, albaiñariak eta abar.
- Notarietan burutzen diren itzulpen eta interpretaritze lanak, hala nola ondasun higikor eta higiezinen salerosketarako eskriturak, elkarteak sortzeko agiriak, ahalmenak ematea edo indarrik gabe uztea, aktak eta abar.

Merkataritzaren arloan, berriz, mota askotako agiriak iristen dira itzultzailearen eskuratara, hala nola telexak, merkataritzako eskutitzak, kontratuak, aseguru polizak, konpainien estatutuak, patente eta marken espedienteak, kontu-ikuskaritzak, zinpeko aitorpenak, balantzeak, lizentziei buruzko akordioak, mailegu kontratuak eta abar.

Hala ere, zeregin guzti hauetan beste profesional batzuen kompetentzia kezkarriari aurre egin beharrean aurkitzen gara. Horrela, justizia ministeritzak, zinpeko interpretari gutxi zeudela eta ordain handiegiak jasotzen zituztela arrazoitzat jarritz, beste figura bat sortu zuen, perito judiziala, zeinek zinpeko interpretariaren eginkizunak betetzen bait ditu auzitegietan, berariazko inolako titulaziorik ez zaiolarik eskatzen horretarako. Bestalde, autonomi elkarteek sortutako itzulpen zerbitzu ofizialak gehitu behar zaizkio horri, interpretariaren eginkizun berberak burutzen bait dituzte horiek ere. Zerrenda luzatuz doa, itzultzeko gaitasuna duten notarioak edo kontsultxeetako funtzionariak (Frantziako Rosellón-eko edo Italiako Alguer-eko katalanezko testuak) gehitzen badizkiogu; azkenaldi honetan, gaine-

ra, beste estatu batzuetako (Frantzia) zinpeko interpretariei gure artean iharduten utzi izan zaie. Hain delarik nahasia egoera, ez da harritzekoa katalanaren zinpeko interpretarien nahirik handiena beren lan esparrua mugatuko duen kompetentziei buruzko legeria lortzea izatea.

Imanol Zurutuzak itzulia

## **Procidako Literatur Itzultzaileen Etxea, Napoli (Italia).**

Koldo Biguri

SENEZ aldizkari honen orrietan beste inoiz (1986, 2-3 zkia., 241-243 orriak; eta 1988, 1-2 zkia., 263-4 orria) eman dugu Europako itzultzaile etxeen berri, baina Italian dagoena oraingo zenbaki honetan aipatzen dugu lehen aldiz. Dena dela, etxe horietaz arduratu garenetan, haien sorreraren historia alde batera utzi genuelako edo, Italiakoaz hitz egiten hasi baino lehen, zilegi bekit itzultzaile etxeen sorreraz ohartxo batzuk ematea.

Itzultzaileentzako halako topagune edo elkartoki bat sortzeko ideia Elmar Tophoven itzultzaile eta "itzulpen gardenen" deritzanaren teorilari alemanari zor zaio. Itzultzaile hau, batez ere literatura frantsesa alemaneratzen zuena, oso arduratuta zegoen itzulpenaren prozesua xeheki azaltzearekin, lehen irakurketa egiten denetik hasita, lehen zailtasuna agertu, lehen itzulpena eman, itzulpen horren lehen bariantea edo bigarren itzulpena egin, eta azken bertsiora iristen den arte. Teorikoki azaldu nahi zituen prozesu guzti horretan itzultzaileak ematen dituen pausuak, bai eta pausu horietako bakoitzaren arrazoiak ere. Horretarako, itzulpen lan batean aurkitzen zituen zailtasun guztien fitxak egiten zituen, bakoitzari emandako irtenbidea edo irtenbideak jasota. Garrantzitsua iruditzen zitzaion

fitxa kopuru zabal bat prestatu, ordenagailuan bildu, eta itzultzaile guztiek aukera izan zezaten fitxategi horretaz baliatzeko; beste hitzetan esanda, normalean itzultzaile bakoitzaren golkoan baino geratzen ez den esperientzia praktikoa, azken txikitasuneraino eramanda, itzultzaile guztien «ondare» bihurtu behar zela uste zuen, horrela itzultzaile bakoitzak izandako lorpenak eta itzulpen arazoei aurkituriko konponbideak guztientzat jakingai egon, eta horren bidez gero eta itzulpen hobeak egin ahal izateko.

Fitxa corpus hori nonbait itzultzaileen eskura egoteaz gain, itzultzailea oso langile bakartia dela iruditurik, otu zitzaion fitxak erabiltzeko lekua ez ezik, itzultzaileak itzulpenak egin, elkarrekin egon, nor bere arazoak, esperientziak, aurkitutako itzul-baliabideak eta abar elkarri jakinerazteko leku bat ere atondu behar zela. Asmo horri jarraituz, pisu bat jarri zuen Straelen-en, Alemanian, bertako zein kanpoko itzultzaileentzat. Halaxe sortu zen, 1978an, Europako lehen *Europäisches Übersetzerkollegium* edo literatur itzultzaileen etxea, itzultzaileen topagune eta elkarren lantoki izateko. Luze gabe, erakunde politiko eta finantziario batzuen laguntza ere jaso, eta oso hornikuntza bikaineko etxea osatu zuen Tophoven, haren zuzendariak.

Geroztik, beste pertsona bakan batzuk biziki interesatu ziren Tophovenen inizatibarekin, eta ahaleginak egiten hasi ziren Ingalaterran, Frantzian, Espainian eta Italian horrelako etxeak martxan jartzeko. Ildo horretatik, 1985ean liburu itzulpenari buruzko lehen biltzar gubernatibo bat egin zen Arles-en (Frantzian), eta, ondorio bezala, Straelengo etxearen ereduari jarraituz Europako estatuetan literatur itzultzaileentzako ikas, topa eta prestagune batzuk sortzea gomendatu zuen.

Europako Elkarteak nolabait «ofizializatu» eta babestu ere egin du etheen sorrera, eta haia sortu ziren Arleskoa Frantzian, Nordwichkoa Ingalaterran, Tarazonakoa Espainian, eta Procidakoa Italian.

Italiako etxeari dagokionez, esan bezala, Procidan dago, Napoliko golkoan dagoen 4 km<sup>2</sup>ko eta 13.000 biztanle inguruko

uharte eder batean, Ischia uhartetik oso hurbil, Capri-ren bistan. Bere zuzendaria Annamaria Galli andrea da, itzultzailea bera ere, nola ez. Hasiera batean, Viterbo herrian, Erromako probintzian, kokatzekoa zen, hango erakunde politikoen eta unibertsitatearen itzalpean; baina itzultzaile etxea politika kulturalaren azpian jarri eta nolabaiteko jomuga akademiko edo eskolastikoak ezarri nahi zizkiotela eta, zuzendariak nahiago izan zuen etxea erabat bere buruaren jabe izan zitekeen beste lekuren batera eramatea. Hala kokatu zen, beraz, Procidan, 1989. urtean, hango udalak utzitako Catena jauregian. Geroztik, hogeit bat gara etxe hartatik pasa garen itzultzaileak.

Esan behar da, nolana ere, Europako beste itzultzaile etxeen aldean, Procidakoa nahiko desberdina dela antolakeraren aldetik, halabeharrak edo bultzaturik. Izan ere, etxearen egoitza den Palazzo Catena ez dago erabat itzultzaile etxearen esku, eta arazoak egoten dira itzultzaileen etxeen sorrera markatu zuen helburua betetzeko, hau da, itzultzaileak elkarren ondoan lan egiteko tokia ematea. Horregatik, handik pasa garen itzultzaileok uharteko etxe partikularretan jarri gaituzte bizitzen, eta nork bere etxean lan egiten, eta beste itzultzaileekin biltzen. Nabari da itzultzailearen etxea hasiberri samarra eta oraindik sendo sustraitu edo finkatu gabe dagoela Procidan, bere zuzendariaren kemena eta ahalegin sutsua gorabehera. Etxeak baditu ordenagailu batzuk, eta liburutegi bat, ez oso oparoa oraindik, baina zuzendariaren asmoaren arabera denbora igaro ahala aberasten joango dena.

Hala eta guztiz ere, Procidako uhartea guztiz leku ederra da itzulpen bat egin edo zuzentzera joan nahi duenarentzat, hango kale nagusi baten trafikoa zoroa alde batera utzirik, gainerako bazter guztiak benetan lasaiak eta ederrak direlako, mahastiz, pikuondoz eta limoi arbola oparoz beteak. Alderdi turistikotik ikusita, esan behar da turismorik apenas dagoela batere, turistak aldameneko uharteetara, Ischia eta Capri ederretara, joaten bait dira gehienbat.

Bestalde, interesgarria da jakitea, baita ere, itzultzaile etxe honetan, besteetan bezala, Europako Kontseiluak bekak ematen dizkiela etxeetara doazen itzultzaileei, behintzat Europako Elkarteko

hizkuntza ofizialen arteko itzulpena egiten dituztenei; baina, joan den urtetik hasita, hizkuntza gutxiagotuetao itzultzaileei ere —eta hemen gu sartzen gara— ematen hasi zaie horrelako bekak, egoitzaren ordaina betetzen dutenak.

Annamaria Galli San Felicek etxea erakunde finko bihurtzeko asmoa betetzerik lortzen badu, oso aukera ederra izango da italianotik itzulpenak egitera joatera animatzen diren itzultzaileentzat. Gure aldetik, inori interesatzen bazaio Procidako etxera joatea, aski du EIZIE elkartearen bulegora deitu eta helbidea edo telefonoa eskatu.

**IRUZKINAK**





## **Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea**

Beatriz Zabalondo

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Publiée pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 35. No. 3/1989.

### **Sommaire — Contents**

#### **Articles**

**BORIS HLEBEC:** Factors and steps in translating.

**EDNA APHEK and BETHUVAL:** On the translation of «Talit Aheret», a short story by S. Y. Agnon-2.

**DI JIN:** The Great Sage in literary translation. Transformations for equivalent effect.

## **Le monde de la Traduction — The World of Translation.**

La vie de la FIT — The life of FIT.

Conseil — Council.

Commissions et comités — Commissions and committees.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative works.

Agostinho Neto: *Sacred Hope* — Gyula Krudy: *Sindbad ou la Nostalgie*.

## **Informations bibliographiques et lexicographiques**

### **Bibliographical and Lexicographical Information.**

J.C. SANTOYO: Teoría de la Traducción: Antología.

M. MOULD DE PEASE ET AL. (éds): Actas del Primer Encuentro Nacional de Traductores (Henri van Hoof)

JOACHIM BUSCHA/IRENE ZOCH: Der Infinitiv (L. de Grauwe).

B. Hlebec-en artikulua, itzulpenaren teoria batu baten 'giltzak' ematen ditu; funtsezkoena, itzulpen bikaina egitera zuzenduko gaituzten zenbait faktoreen zerrenda ematea da.

Itzulpena, erabaki prozesu gisa definitu zuen Levy-k. Definizio honi heltzen dio artikulugileak, itzulpena bera eragiten duten faktoreen zerrenda osatzeko. Itzulpen lanean ari denak — itzultzaile zein interpretariak — eman behar dituen urratsak, faktore horien mende daude eta askotan berauekin nahastuta azaltzen dira. Honako hauek dira:

1. jatorrizko testua interpretatzeko behar den ezaguera (aktibatzea).
2. itzulpenaren hartzailereko jarrera.
3. kodearen aukeraketa.
4. jatorrizkoaren interpretazioa.
5. jatorrizkoaren presentzia edo ausentziarekiko kontzientziatzea.

6. jatorrizko testuarekiko itzultzailearen jarrera.

7. itzulpen-kodearen formarekiko jarrera.

8. literaltasun maila erabakitzea.

9. intentzioak erabakitzea.

10. jatorrizko intentzioak emateko moduak erabakitzea.

11. birkodifikatzeko behar den eza-guera (aktibatzea).

'Intentzio' nozioa aplikatu da, esanahi klase guztitako termino orokor gisa; funtzio komunikatiboak, aldiz, (estiloa barne), intentziorik gabekotzat hartu dira.

Azkenik, itzulpen prozesua azaltzen da, Ivo Andric-en *The Bridge on the Drina* nobelaren pasarte baten adibidearekin; bertan erakusten da, zein urrats eman daitezkeen faktoreak aldatu ahala.

SENEZeko aurreko alean azaldu genuen, nola E. Aphek-ek lau lagun aurkeztu zituen 1986ko udaberrian, S.Y.

Agnon-en *Talet aheret* ipuin laburra itzultzeko. Artikulu honetan datoz falta ziren bi itzulpenak.

Azkenengo artikuluan, Di Jin-ek dio, itzulpen literarioetan jatorrizko formari eusteko ahaleginean, itzultzaileak kale egin dezakeela baldin eta ez badu behar bezala forma hori egokitzen. Zertarako egokitu forma? Irakurleari mezua ulergarri egiteko. Baina forma eta mamia oso uztartuak datoz literaturan, eta formaren egokitzeak mamiaren aldaketa ekarriko du itzulpen prozesuan.

Formaren egokitu premiak ez ditu erakusten halaber, hortik etorriko diren konplikazioak. Eta hain zuzen ere, honetaxe datza literatur itzulpenaren artearen zailtasuna.

Itzultzaileak egiten dituen egokitzeak, formalak ez ezik mamiarenak ere badira; nahiz eta diskusio teorikoetan sarritan esaten den, formalak baino ez direla. Azken finean oso zaila bait da, forma eta mamia banantzea; baina Di Jin-ek dioen bezala, ez dira bi entitate bezala ikusi behar, baizik eta entitate beraren bi alde bezala.

Aldaketa formalek, zein eragin duten irakurleengan ikusteko, Txinako ingelesezko irakasle honek, ikerketa bat egin du Li Bai-ren *Jing Ye Si* poemaren ingelesezko bederatz bi bertsiorekin. Mamiaren aldetik argia, eta interpretazio askotarako lekuri uzten ez duen poema laburtxo hau aukeratu du hain zuzen, elementu formaletan bereizten direlako batipat bertsiu guztiak.

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Publiée pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 35. No. 4/1989.

## Sommaire — Contents

### Articles

DIRK DELABASTITA: Translation and mass communication: film and T.V. translation as evidence of cultural dynamics.

DAN SHEN: Literalism: NON "formal-equivalence"

## **Le monde de la Traduction — The World of Translation.**

La vie de la FIT — The life of FIT.

Sociétés membres de la FIT — FIT member societies.

Sociétés membres associées — Associate member societies.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative works.

Haldun Taner: *Thickhead and other Turkish stories.* — Shiga Naoya: *A Kinoshiki: Récits.*

## **Informations bibliographiques et lexicographiques Bibliographical and Lexicographical Information.**

BRIAN T. FITCH: *Beckett and Babel: An Investigation into the Status of the Bilingual Work* (Mladen Jovanovic)

HENRI VAN HOOFF: *Précis pratique de traduction médicale (anglais-français)* (John Cairns)

BARBARA WOTJAK & MANFRED RICHTER: *Deutsche Phrasologismen. Ein Übungsbuch für Ausländer* (L. de Grauwe).

Ez da beti aukera izaten mass-medietako itzulpengintzari buruzko lanik aurkitzeko, itzulpen aldizkarietan. D. Delabastita-k ere hala dio bere artikuluan: harrigarria da, alde batetik ikusentzuteko komunikabideetan itzulpenak duen garrantzia (kantitatean, baina era berean kualitatiboki ere bai), eta bestetik, itzulpen-zientziak zeinen arreta gutxi eskaintzen dion. Disproporzioa izugarria da. Lanak argitaratu, argitaratzen dira, baina gehienek argibide teknikoak baino ez dituzte eskaintzen; eta preskriptiboak dira gehiago, deskriptiboak baino.

Artikuluan, disproporzio nabarmen honen arrazoiak aztertzen dira, batez ere, hutsunea nola bete liteken erakutsi asmoz. Hemen proposatzen den eredu, literatur itzulpengintzan ondo frogatu-

tako ikerketa bideetan du oinarria. Gideon Toury-ri jarraiki, hiru maila bereizten ditu itzulpengintzan: Egoera soziokultural jakin baten barruko filme eta telebistako itzulpengintza (*performance*-aren maila), itzulpen aukera zabal baten artean, hautaketa batzu egitea da (*competence*-aren maila); hautaketa hau *arauen* mailak aginduta dator.

Ikusentzuteko itzulpengintzaren ikertzaileek kontutan hartu beharko dute bereizketa hau. Beren lehendabiziko egitekoak izango dira, besteak beste:

- Konpetentzia eredu bat eratzea, hau da, ikusentzuteko itzulpenaren teoria, intromisio normatiborik gabekoa eta disziplina anitzetan oinarrituko dena (filmearen semiotika, itzulpen teoria, etabar.)

– Itzulpenen errealitate historikoaren azterketa sistematiko eta inpartziala, jakiteko zein mekanismo normatibok gidatu duten itzultzaileen lana. Modatik kanpo azkenaldi honetan,

baina literalismoak badu oraindik jarraitzaileak. Dan Shen-ek, bigarren artikuluan, literalismoaren izaitea eta gaurko egoera aztertzen ditu.

**TRADUIRE.** Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N° 141. Décembre 89.

### Sommaire

8ème Congrès UNAPL.

La Littérature de la Traduction. *Jean Maillot.*

Les messagers de l'esprit. *Maurice Voituriez.*

Translators! Boost your output by 25%

A propos des cartes Fax.

Des Perles. *Jean Maillot.*

Glossaire des Termes Boursiers. *Jean-Michel Cicile.*

Ouvrages Recus. *Jean Maillot.*

La revue des Revues. *Jean Maillot.*

La vie de la SFT.

“La revue des Revues” sailean (beste aldizkari batzuen berri ematen duena), *Nouvelles de la FIT* komentatzerakoan, J.M. Zabaleta eta K. Izagirreraren artiku-

luak aipatzen dira. Lehenengoaren gaia, euskal itzulpen literarioa historian zehar eta bigarrenarena, gaurko egoera eta etorkizuneko perspektibak.

**TRADUIRE.** Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N° 142. Décembre 89.

### Sommaire

Editorial.

Les ateliers de l'Institute of Translation and Interpreting, Londres.  
*Bruno Berger.*

Terminologie Technique: L'example neerlandais. *Maurice Voituriez.*

Laissez parler votre P.C. *M.L. Seren-Rosso.*

Des Perles. *Jean Maillot.*

Réalisation d'un glossaire avec le logiciel "Symphony". *F. Kozierowski, SFT Sud-Est.*

Les faiblesses de "Madame Bovary". *Jean Maillot.*

Ouvrages reçus. *Jean Maillot.*

Revue des Revues. *Jean Maillot.*

La vie de la SFT.

**TRADUIRE.** Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N° 143. Mai 90.

### Sommaire

À la conquete de l'"Est Dorado". La CPEI forme des linguistes aux métiers de Commerce. *M. L. Seren-Roso.*

La traduction française à Hong-Kong. *E. Boucher.*

Traduction et télévision. *Maurice Voituriez.*

Appel de la Federation International des Traducteurs aux ministres de la culture.

Ouvrages reçus. *Jean-Maillot.*

Revue des revues. *Jean-Maillot.*

Quelques perles. *Jean-Maillot.*

Informations.

La vie de la SFT.

Frantziako CPEIak (Centre de Préparation aux Echanges Internationaux), esportatzaile 'konpletoak' prestatzen ditu, ez bakarrik, tratu baten xehetasunak ongi menderatzeko gai direnak, baizik

eta Eki-Europako herrietan enpresa frantsesen "errotzean" lagunduko dutenak. Merkatu berrian errazago sartuko dira, bertako hizkuntza eta kulturaren berri jakinda.

Leuven-eko Psikologia Experimentaleko Departamentuak inkesta bat egin zuen, teleikusle gazte eta helduen artean, jakiteko zein zen beren jarrera bikoiztutako filmeen aurrean. Inkestatu guztiak neerlandofonoak ziren; hain zuzen ere filme gehienak, neerlandera gabe, beste hizkuntza bat hitzegiten bait dute. Lau urtez iraun zuen inkesta honek ondorio hauek erakutsi zituen:

- Bi lerroko azpitulua da egokiena (64 hizki gehienez).
- Sei segunduko iraupena azpituluko, zein eta hitz arrarorik azaltzen

ez den; orduan gutxiegia dira sei segundu.

- Azpitulua obsesionagarriak dira. Nahiz eta filmean hitzegiten den hizkuntza ulertu, ikusleak azpitulua irakurtzeko joera du: Atentzioa imaginetik azpitulutara pasatzen da etengabe.
- Teleikusle flamandar gehienak (% 98), azpituluen aldeko azaltzen dira eta ez filme bikoiztuena. Aldiz, itzulpenak eskasak direla diote.

**META.** Journal des traducteurs. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Les Presses de l'Université de Montréal. Vol. 35, N°1, mars 1990.

1. Hommage à Jean Darbelnet (1904-1990).
2. Actes du Colloque International «La Traduction Proligère».

### Sommaire-Contents

Avant-propos. *Monique C. Cormier et Jacques Lethuillier.*

La traduction proligère: allocution d'ouverture. *André Clas.*

L'Europe en neuf langues: champ d'affrontements et ferment d'intégration linguistiques. *Roger Goffin.*

La traduction et l'interprétation comme révélateurs des mécanismes de production et de compréhension du discours. *Daniel Gile.*

Word Processing and the Translation Process — The Effect of the Medium on the Message. *Hildegund Bühler.*

La fonction heuristique de la traduction. *Barbara Folkart.*

Word-Formation and Translation. *Dieter Kastovsky.*

L'étude des langues des spécialités médicales: un scialytique sur un champ opératoire. *Amal Jammal.*

Le foisonnement en traduction technique d'anglais en français.  
*Christine Durieux.*

Équivalence lexicale et traduction. *Christine Bagge.*

Interpreting Errors in Translation. *Candace Séguinot.*

Translation and the Bilingual Dictionary. *Roda P. Roberts.*

Translation as a Means of Defining Grammatical Structures. *Dora Sakayan.*

La traduction des hyperonymes et autres termes de grande extension.  
*Danica Seleskovitch.*

The Impact of Translation on Target Language Discourse: Text vs. System. *Albrecht Neubert.*

La traduction prolifère? — Sur le statut des textes qu'on traduit.  
*Jean-René Ladmiral.*

La traduction: histoire et théorie. *Paul St-Pierre.*

Translation and *Le Différend*. *Marilyn Gaddis Rose.*

Théoriser, c'est pas terroriser ou l'erreur en traduction. *François Peraldi.*

Marked and Unmarked Translation: An Approach from Semiotically Based *Natural Text Linguistics*. *Wolfgang U. Dressler.*

L'interprète face aux emprunts. *Marianne Lederer.*

Traduction et développement de la terminologie française dans le domaine des affaires. *Zélie Guével.*

Essai de logico-syntaxe comparée: la traduction de la conjonction anglaise *as*. *Paul Jinot.*

German *ad hoc* Compounds in Translation. *Catherine Mealing.*

Le rôle des mots d'emprunts dans la traduction biblique. *Jean-Claude Margot.*

La traduction et la constitution des langues: le cas de l'arabe. *André Roman.*

The Mentions of Equivalence in Translation. *Alan Melby.*

Paradoxes du discours québécois sur la traduction. *Sherry Simon.*

Comment dénaturer une traduction. *Maurice Pergnier.*



La traduction juridique: standardisation *versus* créativité. *Vassilis G. Koutsivitis.*

L'argot des toxicomanes en français et en anglais. *Jean-Paul Brunet.*

Le traducteur littéraire: un marieur empathique de cultures. *François Wuilmart.*

Le texte publicitaire: traduction ou adaptation? *Claude Tatilon.*

La traduction est-elle civilisatrice? Fonctions de la traduction et degrés de civilisation. *Jean-Claude Gémard.*

Présidents de séance. — Participants.

Joan zen urteko *Meta*-ren lehenengo ale hau, berezia dugu. Hain zuzen ere, Montréal-eko Unibertsitatean, 1989ko urriaren 5, 6 eta 7an izandako jardunaldi-dietan, 7 herrialdetako 32 hizlarik irakurri zituzten txostenak biltzen ditu. Jardunaldi hauen ideia aldizkariaren erredakzio batzordean sortu zen, 1988 urtearen azken aldera, 1990eko lehenengo aleen planifikazioa egiten ari zirela. Aldizkariaren 35. urteurrena ospatzeko modu egokia zela ikusi zen.

Gaia aukeratu zen, bi alde nagusiren inguruan aurkeztuko zen asmoz: gizarteen eboluzioan itzulpenak jokatu duen papera eta *Meta*-k berak jokatu duena itzulpengintzan.

Jardunaldien inaugurazio hitzaldian, André Clas-ek, aldizkari honen zuzendariak, Kolokioaren izenburuaren («*La traduction prolifère*») zergatia azaldu zuen: itzulpenak esan nahi du, emaltzea, garapena, eta ideia berrien sortzea; Bestearen eta Besteagatik integratzea, aldatzea eta aberastea.

Eta horixe izan da, hain zuzen, *Meta*-k bete duen papera ideien eboluzioan. Eta ezin ahaztu itzulpenaren rola zibilizazioen eboluzioan; Bibliako aipamenduetatik hasi eta gaur arte.

Ezin ditugu txosten guztiak laburtu hemen; gutxi batzuren aipamen laburra baino ez dugu emango:

ROGER GOFFINek, Europako aniztasun linguistikoa hartu zuen gaitzat; Europa anitz, hizkuntzanitz, eta kultur-anitza izango dena, edo ez dena.

DANIEL GILEk, diskurtsoaren produkzio eta ulertze-mekanismoak aztertze bide pribilegiatu gisa ikusten du itzulpena.

DIETER KASTOVSKYk erakusten digu, JH eta XHko testuen artean dauden diferentzien arrazoia, hizkuntza bakoitzak hitzak sortzeko dituen prozesu desberdinetan aurkitzen dela.

CANDACE SEGUINOTek, itzulpengintza eta interpretaritzako akatsen interpretatzeaz aritu zen; emaitzek, itzulpen prozesua hobeto ezagutzeko bali dezaketela dio.

ALBRECHT NEUBERTek, itzulpenak xede hizkuntzan duen eraginaz hitzegin zuen: faktore aberasgarria izan daiteke, baina baita poluitzaile arriskutsua ere.

JEAN-RENE LADMIRALek, ikuspegi kulturaletik heldu zion itzulpengintzari, eta kulturaren auto-analisisa egiteko bide den heinean aztertu.

ALAN MELBYk, hurbilketa linguistiko ez-tradizionala egin zuen: hizkuntza bakoitzak bere-berea duen era berezian egituratzen du mundua. Eta hemendik atera ditu itzulpen teoriari aplikatzeko zenbait ondorio.

CLAUDE TATILONek, komunikazio publizitarioaren dinamika deskribatu eta adibide batzurekin erakusten du, testu publizitarioak itzuli behar direnean, egokipenak agintzen duela.

## Bibliografia

**MATYSSEK, Heinz: *Handbuch der Notizentechnik für Dolmetscher* (Teil I-Teil II), Julius Groos Verlag, 1989, Heidelberg**

Gutzira ia bederatzirehun orrialde dituen eta bi liburukitan argitara eman den obra honetan egileak 30 bat urtez, esanosteko interpretaritzan metatu duen esperientzia dator.

Hainbeste urtetan zehar bilduriko eskarmentua zortzi bat ataletan banaturik eta ordenaturik dator.

Lehen atalean interpretariaren lanbide-iruditik abiatuz interpretaritza motak aurkezten ditu eta negozio, tratu eta harreman-interpretaria aipatu ondoren, batez ere batzar-interpretariaren azterketa burutzen du.

Ondoren esanosteko interpretariaren azterketa burutzen du aldi bere-

koarekiko dituen aldeak azpimarratuz, jadanik klasikoak bezain funtsezkoak diren entzutea, aztertzea, biltokiratzea eta kanporatzea lau urratsak gogoraraziz.

Hirugarren atalean, xehetasun handiarekin ekiten dio oharrak jasotzearen teknika aurkezteari, gai honi buruzko bibliografia eta ordezkariarik gailenenak arakatzuz eta kritikatzuz, ondoren bere posizioa azaltzeko. Liburuaren ekarpenik hoberena atal honetan aurkitzen da, zeren esperientzia luze batek egileari erakutsiaren agerpen xehe bat egiten bait du, «*Oubliez le mot!*» bezalako perpaus baten ulerkuntza zuzenetik abiatu eta

oharrak jasotze teknikaren oinarri-osagaiak eskaintzeraino. 12. epigrafe honetan honako gaiak lantzen ditu: ertza, zehar-marra, oharren goitiberako ordenua, esaldi-atalen elkarrekiko lotura, gezia, puntu bikoitza, preposizio-harremana, genitibo-harremana, kortxeteak, ukapena, indartze eta ahultzea, laburdura, zenbakia eta generoa, denbora eta modua, aditz modalak, pertsona-izenordeak, zenbakiak, kopuruak, datak. Sail hau notazioaren mintzaira eta notazioaren individualtasunaz hitzeginez ixten da.

Laugarren atalak sinboloak aztertzen ditu: mendebaldeko bibliografian puntu honetaz izan diren jarrerak irazkindu ondoren, jadanik klasikoa den Minjar-Beloruzev sobietarraren irakatsiak aipatzen ditu, azkenik bere sinbolo-sistemaren berri emateko.

Hurrengo atalean notazioaren hasimasiak azaltzen ditu, funtsezko arauak emanez eta ondoren sinboloen erabilerarako ihardunbide orokorrak eta sistematikoak eskainiz.

Aipatuaren ondoren eta orrialde ugaritan zehar oinarritzko sinboloak eta berorien aldagaiak azaltzen ditu adibide praktikoan bitartez. Honako hitz hauen sinboloak gomendatzen ditu bere esperientzia pertsonalaren emaitza gisa: *lana, ibilgailu, bake, merka-*

*talgo, ikatz, gerra, nekazaritza, merkatu, gizaki, metal, motore, energia, politika, prezio, produktu, lege, zuzenbide, estatu, garraio, trafiko, arma, ekonomia.*

Liburuaren azken atalean azterketa baten berri ematen du oharrak nola jaso diren eta interpretaritza nola burutu den aditzera emanez, horretarako E. A. Sevardnadzek 1986eko azaroaren 5ean Vienan emandako hitzaldi baten zatia errusieratik alemanierara interpretatuz. Ondoren bere bide bereziaz hitzegiten digu beste behin, ohi denez, bibliografia interesgarri batez gailurra emateko.

Bigarren liburukiak proposaturiko sinboloen zerrenda alfabetozkoa eskaintzen du.

Sarritan kontzeptu orokorregiak eta arruntkeriak esateko aitzakia besterik izan ohi ez den interpretaritzaren alor honetan, Matysseken lana zehatza eta teknikoa da eta bide honetatik pausoak ematen ari denari puntu jakingarri asko erakusten dizkio. Halere, ezer gutxi balio izaten dute honelako liburuek, baldin eta interpretariak edo interpretarigaiak irakatsi guzti horiek bere baitan odol-mamitzen ez baditu, eta esperientzia bide-erakusle duela bere ibilpide propioa aurkitu ezean, autoreak behin eta berriz azpimarratzen duenez.

X.Mendiguren

KING, Margaret (edit.) *Machine Translation Today*,  
Edinburgh Information Technology Series-Edits, 1987,  
Edinburgh

Edits bildumak ordenadore-zientzia eta inteligentzia artifiziala bezalako gaiak lantzeko asmoak ditu, hizkuntzalaritza konputazionala edota aldaketa teknologikoaren alderdi sozialak ikertzea ahaztu gabe, eta irakurleko akademiko bat espero du batipat bezeroen artean. Sail honetan argitara eman diren lehen hiru lanak makinabidezko itzulpenari buruzkoak dira eta etorkizunean programa-eraldakuntza, ordenadore-modelaketa eta ordenadorez lagunduriko diseinaketa bezalako gaiak buruzko lanak ere argitaratuko dira.

Esku artean daukagun titulua *Machine Translation Today*, sailak eskaintzen duen bigarrena, 21 berezilarri europarren ekarkeine osatua da (bakarra da amerikarra) eta 1984eko udaberrian Suitzian egin zuten lanbilera batean aurkezturiko materialak eskaintzen ditu.

Liburuak hiru atal nagusi ditu: *I Sarrera*, *II Software*, *III Makinabidezko Itzulpen-Sistemak*.

Bibliografia bost sailetan banaturik dator: 1973ra artekoa, 1973az geroztikoa, softwarea, hizkuntzalaritza eta hizkuntzalaritza konputazionala eta Inteligentzia artifiziala.

Sarrera izenburupean lehen atala osatzen duten gaien artean makinabidezko itzulpenaren historia, ALPAC txostenaz geroztik garabideen gain-

begiratu bat, teoria linguistikoa eta lehen orduko makinabidezko itzulpena, makinabidezko itzulpena hizkuntz ingeniarietza edo ezaguera-ereduzko arazo eta abar bezalakoak lantzen dira.

Bigarren sailean, Softwarea epigrafepean gai honekin zerikusia duten glosategi, software-arkitektura, itzultzaileak behar duen ingurunea, labanes eta abarri buruzko azterketak egiten dira.

Hirugarren atalean, makinabidezko itzulpenaren sistemak deritzon izenburupean gaur eguneko sistema operazional arruntak, eta SYSTRAN, SUSY, TAUM, GETA, ROSETTA, METAL, EUROTRA (azken bi hauek artean garabidean zeuden) proiektuak agertzen dira.

Amaitzeko, lankidetzako liburu honek bibliografia aberatsa dakar bost sailetan banatua: makinabidezko itzulpena 1973 arte, makinabidezko itzulpena 1973az geroztik, softwarea, hizkuntzalaritza eta hizkuntzalaritza konputazionala eta inteligentzia artifiziala.

Honelako liburuetan ohi denez, Gai-Aurkibideak ixten du liburua, makinabidezko itzulpenean funtsezkoak diren nozio eta kontzeptuak bilatzeko bidea erraztuz.

MIaren ikerketak hasiera motel samarra izan badu ere, gerora gero eta garbiago ikusi izan da munduaren

etorkizunerako duen garrantzia bai merkatalgoan eta bai politikan eman diren pauso bizkorren ondorioz eta MI-zerbitzuen eskaria gehituz joan da eta liburu honek ikuspegi egoki eta laburtua eskaintzen dio ikertzaileari ezezik, baita espezialista ez denari ere. Gaurgerokoan itzulpenarekin zuzeneko harreman ez duen asko ere behar-

turik aurkituko da gai honi buruzko informazioa izatera bere enpresa edo erakundearen baitan urtero itzulpen-gintzak hartzen dituen aurrekontu-partidak gero eta hobeki errazionaltzeko. Horretarako liburu hau eta beronen antzekoak ezinbestekoak gertatuko dira gure artean ere.

X.Mendiguren

**NEKEMAN, Paul (ed.) Translation, our future / La traduction, notre avenir. XIth World Congress of FIT / XI<sup>e</sup> Congrès mondial de la FIT, Euroterm, 1988 Maastricht.**

FITek (Itzultzaileen Nazioarteko Federakundeak) Holandako Maastrichten egindako XI Mundu-Biltzarren agiri edo txostenak 514 orrialde betetan eskaintzen ditu liburuak.

Sarrera eta inaugurazioko saioan Ana Lilova, FITen presidentesak eta Amadou-Mahtar M'Bow, UNESCOren Zuzendari Nagusiaren mezuekin hasten da liburuak, ondoren partaideek osatu zituzten bederatzitailer edo mintegien arabera irakurritako txostenak eskaintzeko.

Honako hauek dira, hurrenez-hurren, aipatu bederatzitailerrek biltzarrean zehar landuriko gaiak:

- 1.- *Teoria eta praktikaren arteko harremana.*
- 2.- *Literatur itzulpena, batipat hedapen mugatuko hizkuntzetatik eta hizkuntzetara.*

3.- *Itzulpena eta moldapena: itzulpen poetikoaren joerak.*

4.- *Itzultzaile eta interpretarien estatus juridikoa.*

5.- *Belaunaldi berrien trebaketa*

6.- *Terminologiaren orientabide berriak.*

7.- *Itzulpena eta moldapena mass-medien aroan*

8.- *Itzulpen juridikoaren joerak*

9.- *Interpretaritzaren alor berriak*

Guztira 91 txosten dira goian aipaturiko gaiei buruz mundu guztiko itzultzaileen ekarpenak ageri direlarik.

Liburuaren azken atalean 1987ko FITen XI Biltzarrak onar zititan aurkeztu zitzaizkion ebazpenak datoz, baita urte horretan eman ziren itzulpen-sarien berri ere Bertil Nathhorst, hungariarra, Astrid Lindgren, alemaniarra eta Ewald Osers, britaniarra, galardoatuak izan zirelarik.

Paul Nekeman eta Maastrichteko Itzultzaile-Eskolaren ahaleginari esker argia ikusi duten lan guzti hauek ongi isladatzen dute gaur eguneko itzulpen-gintzaren baitan dauden arazo, kezka eta itxaropenak, eta horregatik ezinbestekoa zaio lanbide honen profesio-

nalari berorietan murgiltzea munduko zerbitzurik zaharrenetakoa den honen nondik-norakoaren berri izan nahi badi. Txosten gehienak ingelesez edota frantsesez idatzirik datoz, kasu gutxi batzutan alemaniera erabili bada ere.

Xabier Mendiguren

**BRIAN T. Fitch: Beckett and Babel: An Investigation into the Status of the Bilingual Work, University of Toronto Press, 1988, Toronto.**

Liburu hau idazteko burutapena Becketten trilogiaren frantses bertsioaz saiakera bat (*Dimensions, structures et textualité dans la trilogie romanesque de Beckett, Lettres Modernes, 1977*) idazten ari zela sortu zitzaion egileari. Hain zuzen ere, lan horren bigarren atalean trilogia osoan zehar adierazlearen betekizunaz azterketa xehe egiten ari zela, otu zitzaion ingelesezko itzulpeneari nekez eman zitezkeela jatorrizkoan ageri ziren zenbait hitz-joko, asko eta asko itzulezinak bait ziren; gehienera ere, ingeles hizkuntzaren baliabideak ustiatuz «baliokideren» batzuk ezartzea besterik ez zuela egingo espero zitekeen. Horrela, bada, Brian T. Fitchek uste izan zuen posible zela, teorian behintzat, parez pareko lan bat idaztea, fenomeno analogoen berri emanez.

Beraz, Euskal Herrian hain eza-guna zaigun (aurreko SENEZen B. Atxagaren «Obabakoak»-en itzulpenberri-dazketaren berri ematen zen) autotzulpenaren aurrez-aurre jartzen

gaitu liburu honek, eta saiakeragileari sinestekotan, lan konplexua omen da gisa honetako bertsioak ikertzea, iharduera horrek eskatzen duen disziplina ezberdinen partaidetzarengatik, zeren bi eratara har bait daitezke: jatorrizko lehen testuaren itzulpen gisa edota eskubide guztiarekin beste testu ezberdin bezala. Arazo hau ahalik eta argien aztertzea izan da egilearen helburua, nahiz eta horretarako, bere hitzetan, «estudio heterogeno» samar bat burutu behar izan.

Ondorioetara iritsi aurretiko pausoak 12 kapitulutan banatzen ditu: hasi obra elebidunaren jaiotzatik eta beckettiar arazoak, autotzulpenaren arazoak eta trilogiako obretan zehar (*L'Innomable, Bing, Immobile, Compagnie, Le Dépeupleur*), ondoren autotzulpenaren estatusaz, testuaz eta metatestuaz, teoria eta praktikaren intersekzioaz eta obra elebidunaz hitzegtiko, besteak beste.

Ingelesezko bertsioa itzulpentzat hartu behar den edota obra berezi bat

bezala hartu behar oso garbi geratzen ez bada ere, zeren antzekoegiak bait dira aparte tratatzeko eta ezberdinegiak elkarren ordezkotzat hartzeko, egileak uste du nolarebait batera ezartzekoak direla esperientzia estetiko koherente eta bateratu bat eratu dezaten bai irakurlearentzat eta bai kritikoaarentzat eta honetaz ez dauka inolako zalantzarik. Azkenik ondorio bitxi samar bat ateratzen du Brian T. Fitchek:

*«lehen bertsioa soilik existitu dela... bigarren bertsioak argia ikus dezan».*

Autoreak amaieran Beckett, beronen obren itzulpenaz eta traduktologi-az eskaintzen duen bibliografia interesgarria da eta bertan azken aldiko teorigilerik interesgarrien lanak aipatzen dira, besteak beste, Benjamin, Berman, Holmes, Jakobson, Lefevre, Meschonnic, Nida, Paepcke, Popovic eta Steiner.

X.Mendiguren



**BERRI  
ETA  
ALBISTE**



## **«Literatura Unibertsala» deritzan itzulpen bildumaz**

Lurdes Auzmendi

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak sortu zen unean azaldu zituen kezka eta premien artean zegoen munduko literatura euskarara itzuli eta argitaratzearena. Premia honetaz beste asko zeuden arduratuta lehenagotik ere, baina sarritan gertatu ohi den bezala, indarrak batu behar izan ziren eskaerak behar zuen oihartzuna lortu zezan.

1988an hasi ziren elkarrizketak, lehenik Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta EIZIE elkarteak bildu ziren, eta geroago, Euskal Editoreen Elkarteari deitu zitzaion aipatutako elkarrizketetara; 1989ko udaberrian oinarrizko erizpideak finkatuta eta obren aukeraketa egin ondoren eman zitzaion hasiera proiektuari.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak premia eta ondorioak bere egin ondoren hasi zen egiazko lana. Guztira ehun bat obra itzuli eta argitaratzea erabaki zen, honetarako bost urtetako epea jarri zelarik. Aurrerago ikusiko dugun bezala, ausartegiak izan ginen euskal itzulpenaren egoera eta itzultzaileen baldintzak baloratzeko orduan. Literatura unibertsalaz hitzegitea literaturaren historia osoaz hitzegitea denez gerò, itzuli nahi ziren obrak aukeratzeko erizpideak finkatu

behar izan ziren lehen lehenik. Literatura klasikotzat jotzen direneko obrak kanpoan uztea erabaki zen, beste arrazoi batzuen artean hizkuntza klasikoetatik euskarara itzultzeko itzultzaile potentzial oso txikia ikusten zelako. Pentsamenduzko obra batzuk sartzearabaki zen, baina hauek gero kendu egin ziren Euskal Parlamentuan aurkeztutako mozio baten ondorioz hauekin beste bilduma bat osatzea erabaki zelako (eta bide batez esan behar da bilduma horren arrastorik ez dagoela).

Guzti horren ondoren, literatura unibertsaleko autore ospetsuenen zerrendatzeari ekin zitzaion, itzuli zitezkeen obra bat edo gehiago izendatuz bakoitzari. Autoreak izendatzeko arazo larriegirik ez zen izan, ez eta obrak aukeratzeko ere, nahiz eta argitaletxeren batek best-sellerrak sartzeko nahia sutsuki azaldu. Beraz, autoreen zerrenda finkatu eta urte bakoitzean itzuli behar zirenen zerrenda zehatza urtez urte osatzea erabaki zen. Esan beharra dago mundu osoko idazleak aukeratu zirela zein hizkuntzatan idatzi zuten edo duten kontutuan hartu gabe, pentsatuz kasu batzutan jatorrizko hizkuntzatik itzultzerik ez badago beste hizkuntza batzutarara egindago itzulpenetatik egin beharko zela gurera.

1989ko udaberrian egin zen lehen hogeitabrak itzultzeko lehiaketa publikoa. Proiektu gutxi aurkeztu eta beraz obra gutxi adjudikatu ahal izan ziren. Urte bereko udazkenean atera ziren lehiaketara adjudikatu gabeko obrak. Urte horretan, hogeitabrak obretatik bederatzi bakarrik adjudikatu ziren. Hauen eta ondoren adjudikatutakoen zerrenda artikuluaaren amaieran eskeintzen dugu.

1990eko udaberrian egin zen beste hogeitabrak itzultzeko lehiaketa publikoa eta honetan gauza batzuk aldatu egin ziren. Eusko Jauriaritzak EIZIE elkarteari pasatu zion honen adostasunarekin proiektua gestionatzeko eta bideratzeko lana. 89ko deialdian hogeitabrak atera baziren, 90ean hogeitamar atera ziren, nahiz eta hogeitabrak bakarrik adjudikatu behar izan. Itzultzaile bati obra bat baino gehiago adjudikatzeko aukera ere eman zen. Ahal zela, obra luzeegiak ez sartzearabaki zen, bai itzultzailearentzat eta baita euskal irakurle arruntarentzat ere onuragarria izango zelakoan. Eta azkenik

azpimarratu behar da itzulpen tarifak gaurkotu eta egokitu zirela, itzultzaileak ez bait zeuden ados literatura itzultzeagatik ordaintzen zenarekin.

Bi urtetan, guztira hogei obren itzulpena adjudikatu da, berrogei itzultzeko asmoa bazegoen ere. Eta zergatik gertatu den hori? Lehenago esan dugun bezala, aitortu behar da agian ausartegiak izan ginela euskal itzultzaileen baldintzak baloratzeko orduan, pentsatu bait genuen Euskal Herrian bazegoela nahiko kalitatea eskeintzen zuen aski itzultzaile bost urtetan horrelako proiektu bat aurrera ateratzeko. Baina errealitateak besterik erakutsi digu. Bi deialdietara guztira laurogei bat itzultzaile aurkeztu ondoren beren proiektuekin eta guztira hemezortzi itzultzailei bakarrik itzulpenak adjudikatu eta epai mahaietan egon direnekin hitzegin ondoren ateratzen den ondorio nagusia hau da: literatura kalitate maila egokiarekin edo onarekin itzuli dezaketen itzultzaile asko ez daudela gure herrian. Honek zenbait gauza beste era batera planteatzera behartuko bagaitu ere, ez gaitu gehiegi harritu behar, literatur idazle eta itzulpen tradizio laburra eta ez oso sendoa bait du gure herriak, eta zenbait jardunek oinarri sendoak behar dituzte sua eta garra ateratzeko.

Bestalde, euskal itzulpengintzak kuantitatiboki izan duen bultzadak kalitatearen balorazioa behar du orekatzen joateko, eta lehiaketa hauetara aurkeztu diren proiektuek eskeintzen zuten kalitatearen balorazioa oso beharrezkoa da non gauden eta lortu nahi dugun helmugara iristeko zer behar dugun jakiteko. Nik hemen gertatua gordintasun osoz azaltzea besterik ez dut egin, epaia eman dutenak bait dira nire ustez susmatzen ditugun baina oraindik gauen ilunpean gorderik dauden sakoneko hutsegiteak eta akatsak ezagutzera eman behar dituztenak.

Eta amaitzeko, hona hemen 89ko eta 90eko lehiaketan ondorioz adjudikatutako obren zerrenda:

1989koak: (lehenengo zazpiak argitaratuta daude)

A. CHEKHOV, «Ipuinak», Xabier Mendigurenek itzulia.

J. CONRAD, «Heart of darkness» I. Ibañezek itzulia.  
M. TWAIN, «Huckleberry Finn», A. Ibarzabalek itzulia.  
K. HAMSUN, «Sult», J. M. Mendizabalek itzulia.  
A. PREVOST, «Histoire de Manon Lescaut», A. Narbaizak itzulia.  
R. KIPLING, «Kim», K. Navarrok itzulia.  
J. SWIFT, «Gulliver's Travels», I. Mendigurenek itzulia.  
G. FLAUBERT, «Madame Bovary»  
E.A. POE, «Ipuinak»

1990ekoak:

R.L. STEVENSON, «Altxorraren uhartea»  
I. CALVINO, «Marcovaldo ovvero le stagioni in citta»  
L. SCIACIA, «Il giorno della civetta»  
J. JOYCE, «A portrait of the artist as a young man»  
E.T.A. HOFFMANN, «Ipuinak»  
L. TOLSTOI, «Ivan Ilitchen heriotza»  
E.M. FOSTER, «Where angels fear to tread»  
J. COCTEAU, «Les enfants terribles»  
M. UNAMUNO, «Abel Sánchez»  
TRUMAN CAPOTE, «Thansgiving Day»  
SAINT EXUPERY, «Pilote de guerre»

## Duvoisin Kapitaina (1810-1891)

### «euskal itzultzaileen buruzagi eta errege»

Xabier Mendiguren

Mitxelenak «euskal itzultzaileen buruzagi eta errege» deitu zuenean, ez zuen inolako ahoberokeriarik esan ainhoatarrari buruz. Izan ere, ugarian eta umoan nekez aurki daiteke euskalgintzaren historia osoan besterik —gure mendeko zenbaitek deitura hori agian Orixerentzat nahiago izango bazukeen ere— hain orekatuki idaztea eta itzultzea uztartu dituenik, eta itzulpengintzaren alorretik irten gabe, joera guztiak —itzulpen formala, dinamikoa, moldaera, itzulpen inplizitua— hain modu trebe eta orekatuz burutu dituenik.

Mutur batean «*Bible Saindua*» (1865) ezartzen badugu eta beste muturrean «*Laborantzako Liburua*» (1858), seguraski handik eta hemendiko maileguz paratua, erdian «*Telemake, Ulisen semearen gertakuntzak*» (12 liburu) *Felenonena* eta gipuzkeratik lapurterara aldaturiko «*Liburu Ederra*» (1856) ezarri beharko genituzke. Labur esateko, XIX mendeko euskal itzultzaileak bere ofizioan egin zitzaizkien saio eta erronka guztiak ezagutu zituen Duvoisinek. «*Jesu Kristoren Imitazionea*», Iturriagaren «*Jolasak*», Kijoteren hasiera eta abar ere itzuli zituen.

Burutu zituen lanak helburu eta baldintza ezberdinetan eginak izan ziren. *Bible Saindua*, esaterako, Luis-Luziano Bonaparte printzearen eskariz eta diru-laguntzari esker itzuli zuen Vulgatatik, baino lapurtera bititik aldendu gabe eta hizkuntzalariek euskara beste hizkuntzekin erkatzeko aukera izan zezaten egindako euskarapena zen. Duvoisinek Bonapartek jarritako baldintzak zorrotz betetzen ditu eta hala esaten dio apaiz bati: «Zuk nahi zenituzke nere liburuan aintzinako esaera zaharrenak aurkitu. Hori debekatua daukat. Debekatua daukat, baita ere, Lapurdin erabiltzen ez den hitzik erabiltzea ere. Baina inoiz erabili dut holakorik ere, baitezpadakoa eta beharrezkoa zenean. Noizik behin debeku horri ez entzun egin behar izan diot, baina oso gutxitan eta kontu handiz».

Beraz, Leizarraga, Axular, Haraneder eta abarrek ez bezala, printzearen hesi horren barruan burutu behar zuen mandatua. Latinaren morroi eginik zebilela ziotenen aurrean, berriz, bazekien euskara apaina egiteko, esaldi batzuk maizago beharko zituzkeela bata bestearengandik berezi, baina jabeturik zegoen latin-kutsuak ez ezik, hebreo-kutsuak ere neurri bateraino onartu beharrean zegoela. Bestalde, bere mendeko eta aurreko testu sakratuen itzultzaile guztiak bezala liburu santuei begiramendua zien eta ez zuen hizkuntzaren apainkeriengatik zentzua galdu nahi. Itzulpen bikain honen balioak aitortzean, ez dago ezarriak zeuzkan mugak begietatik galtzerik ere.

Bestalde, Itun edo Testamentu Berriaren itzulpenean aurrez landuago zegoen zidorretatik ibiltzeko aukera izan zuen, aldiz, Itun Zaharrarenean inork barrendu gabeko oihanetatik urratu behar izan zituen bide berriak.

Duvoisinek bazekien Bibliaren itzulpena ez dela egokiena euskararen dohai eta gaitasunak behar bezala agertzeko, fideltasunez itzuli behar zelako eta nahiago izan zuen Fenelonon «*Telemake*» obra hautatu bertan gure hizkuntzaren ahalmen harrigarriak argiro ikusiko zirelako, Fouquieri idatzi zionez. 40 bat hizkuntzatarra itzuli zen frantsesezko obra sonatuan askatasun handiagoz jokatzeko du hizkuntz baliabideekiko eta hala ez dira falta idazle zaharretatik eta beste euskalkietatik hartutako hitzak. Tamalez —baina garaiko katolikoaren artean ulertzekoa zenez— itzulpenean ez datoz jatorrizkoaren zenbait



pasarte, seguraski Duvoisinek erabili zuen edizioaren paratzaileek eskoletan erabiltzeko «txukundu» zutelako, nonbait.

Baina bai liburu santuen edo Telemake bezalako testu didaktiko-literarioen euskarapenean, eta bai jatorrizko testuetatik librekiago itzuliak diren laborantza edo San Inazio Loiolakoaren ejerzizioei buruzko liburuetan, Duvoisin batezbeste euskara aberats, zehatz eta irakurgarri baten jabe ageri zaigu.

Itzultzaileak, esan ohi da, hiru zaldik tiraturiko organ ibili behar du: **zer**, **nori** eta **nola** dira tiratzaile horien izenak eta ibilera egokia nahi badu modu orekatuan edo pareantsu eutsi behar diela zamari horiei bidetik errebelatzea ez daitezen. Duvoisin itzultzaileak ia beti mendean hartzen ditu itzulpenaren alderdi semantiko, estilistiko eta pragmatikoa, eta Bonaparteren eskariz edota zenbaitek bere buruan arrazoi handirik gabe irauli izan dituen aurreritziengatik bakarrik esan liteke inoiz edo behin troika horretan kirrinka higuinarririk sortu denik. Duvoisinen euskarapenetan ia beti hizkuntzaren sena gertatzen da garaile, jatorrizkoa, hizkuntza hartzailea eta irakurlearen artean triangelu harmoniazkoa burutuz. Duvoisin, hitz batez esateko, itzulpegintza modernoaren ezaugarri nagusia den joera integralaren aitzindari abantailatua da, jatorrizko testuaren aurrean gehitxo makurtzeko joera sarritan nabari zuen mende erromantikoaren bihotzean.



## EIZIEko Ohorezko Bazkideak

EIZIEk 1990. urtean egin zuen Biltzar Nagusian euskal itzulpen-gintzan lehenagoko garaietan aritutako itzultzaileak Elkartearen ohorezko bazkide eginez omentzeko asmoa agertu zuen, gaur egun lanbide honetan saiatzen garenon miresmen eta aitortzaren erakusgarri. Eta atsegina handia izan da Elkartearen osatzen dugunontzat aurten, otsailaren 16an egindako Biltzar Nagusian itzultzaile eta kultur gizon-emakume horietako batzuk ohorezko bazkide eginez bere burua ere bide batez ohoratzea.

Horrela, bada, izendatutakoak M<sup>a</sup> Dolores Agirre Lasheras, Lino Akesolo, Pedro Berrondo, Jean Marie Diharce «Iratzeder», Eusebio Erkiaga, Jon Etxaide, Jaime Kerexeta eta Santiago Onaindia izan ziren. Biltzar Nagusiaren ondoren egin zen omenaldi-ekitaldira, gainera, Eusko Jaurlaritzak ere, Joseba Arregi Kultur Sailburuaren, Mari Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako Idazkariaren eta Josu Legarreta, Kultur Saileko Zuzendariaren bitartez bildu nahi izan zuen, bai eta Euskaltzaindiak, Euskal Idazleen Elkartek, eta María José Velasco, APETI-Espainiako Itzultzaile eta Interpretarien Elkarte Profesionaleko lehendakari eta FIT-Itzultzaileen Nazioarteko Federakundeko presidenteorde andreak ere.

Honenbestez, Euskal Itzultzaileen Elkarteak gu guztion ondareztat aitortu nahi izan ditu aurreko belaunaldietako itzultzaileek kemen eta merezimendu handiz egindako lan eta euskaldun guztiei utzitako tradizio umoak. Omenaldi ekitaldian Kultura Sailburuak adierazi zuenez, euskal kulturaren munduan 1968tik aurrera kimu berri bat sortu bazen, gure aurrekoek hainbat eta hainbat lan egin zutelako izan zen, eta oraingo belaunaldiok zordun gaude garai zailtan euskarari eta euskal kulturari hainbeste indarrez eutsi zieten horiekin.

Ezin esan gabe utzi, bestalde, EIZIEk ez duela egun bakarreko beroan agortu nahi bere ohorezko bazkideei egindako omenaldia, eta horregatik asmoa du argitarapen berezi batean itzultzaile hauen itzulpen lan hautatu batzuk plazaratzeko, eta, baita ere, SENEZ aldizkari honen datorren ale batean bazkide berri haiei buruzko lantxo bat aurkezteko. Lan bati zein besteari berandu gabe heltzea espero dugu, gainera.



# 3

## Gaiak

Ale honetan / Pello Zabaletarekin solasean / FITen Munduko XII Kongresua. Belgrado 1990 / Euskara eta publizitatea / Poesi itzulpena kultur testuinguruaren koordinadetan / Aliceren Abenturak Lurralde Mirrengarrian liburuaren itzulpenaz / Itzultzaile profesionalentzako azterketa profesionalak / Andoni Sarriegiren eskariari erantzunez / Katalanaren zinpeko interpretariak / Procidako Literatur Itzultzaileen Etxea, Napoli (Italia) / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea / Bibliografia: MATYSSEK, Heinz: Handbuch der Notizentechnik für Dolmetscher / KING, Margaret: Machine Translation Today / NEKEMAN, PAUL: Translation, our future - La Traduction, notre avenir / BRIAN, T. Fitch: Beckett and Babel / «Literatura Unibertsala» deritzan itzulpen bildumaz / Duvoisin Kapitaina (1810-1891) «euskal itzultzaileen buruzagi eta errege / EIZIEko Ohorezko Bazkideak